Hala ere, milurteko berriaren hasieran, emakumeen sorkuntzak nabarmenki ugaritu zirelako iritzia zabaldu zen, eta areago, literatur sisteman sartzeko haiek erraztasun gehiago zituztelako ustearen adierazpenak ere agertu ziren han eta hemen. Pentsabide hori gogoan, 2002. urtean, segidako gogoeta plazaratu zuen Iban Zalduak: «1990eko hamarkadako euskal literaturaren ibilbidea errepasatzean, azpimarra daitekeen beste alderdi bat emakume idazleen presentziaren areagotzea izan da; badago emakumeen literaturaren *boom* batez hitz egin duenik ere» (Zaldua 2002: 44). Zalduak aieru horren berri ematen digu, baina zuhurtasunez heltzen dio baieztapenari: «Gauzak aldatzen ari direla uste dut, oraindik trantsizio garai batean gaudela ematen duen arren» (*idem*). Bistakoa da, literatur sorkuntzaren datu orokorren arabera bederen, 90eko hamarkadan emakume idazleen bat-bateko goraldia gertatu zelako iritzia gezurtatzeko moduan gaudela eta, poesiaren generoan behinik behin, halakorik gertatu ez zela.

Milurteko berrian ere joera bertsua antzeman dezakegu: 2000-2010 urte bitartean % 13,8koa izan baitzen emakumezko idazleek poesiaren generoan argitaratutako lanen portzentajea. Azken hamarraldiko ekoizpenari begira jarriz gero, berriz, esan dezakegu 2010-2020 epealdian emakumezko poeten argitalpenen gorakada apala gertatu dela. Argitaletxeen datu orokorra % 20koa bada 1972. urtetik gaurdainoko datuak kontuan hartzen baditugu, azken urteetako datuei soilik erreparatuz gero, 7 puntu goratu dela ikusi dugu —poesiaren generoan argitaratutako lanen % 27,3 da emakumezko idazleena hamarkada hura soilik kontuan izanda—. Azken-azken urteetako kopuruei erreparatzen badiogu, halaber, 2018. urtetik aurrerako datuek goranzko joera agertzen dute, urte hartatik honako ekoizpenari begiratuz gero, % 34 baita emakumeen sorkuntzari dagokiona (vs % 24, 2010-2018 epealdian). Nolanahi ere, emandako datuek erakusten dutenez, gaur-gaurkoz euskal poesiaren argitalpen dinamikak egoera parekidetik aski urrun dira artean ere, eta datu zehatzen faltan, espero izatekoa da narratiban topatuko dugun banaketak ere genero-desoreka bertsua salatzea.

Alderik bada, gainera, argitaletxeen artean. Bidea oraintsu, 2017. urtean, abiatu duen Balea Zuria argitaletxearen kasuan, esaterako, poesiaren generoan argitaratu dituen lanen % 44 da emakumezko sortzaileei dagokiena. Balea Zuriak DK Poesia sariketetan garaile izandako lanen argitalpenaren ardura du, eta horrek izan du eraginik emandako datuan, lehiaketa hartan saritutako lanen % 80 izan baita emakumezko egileena. Ondoko atalean ikusiko dugunez, sariketetan irabazle diren lanen datuak eta argitaletxeen bidez plazaratutako lanen artekoak ez dira elkarren isla. Beraz, sariketa eta argitalpen-dinamiken gurutzaketa da Balea Zuria argitaletxearen datuek agertzen dutena.


1. grafikoa.
Alberdanian argitaratutako olerki-bildumen banaketa, egileen generoaren arabera




2. grafikoa.
Balea Zurian argitaratutako olerki-bildumen banaketa, egileen generoaren arabera




3. grafikoa.
ELKARren argitaratutako olerki-bildumen banaketa, egileen generoaren arabera




4. grafikoa.
EREINen argitaratutako olerki-bildumen banaketa, egileen generoaren arabera




5. grafikoa.
MAIATZen argitaratutako olerki-bildumen banaketa, egileen generoaren arabera




6. grafikoa.
PAMIELAn argitaratutako olerki-bildumen banaketa, egileen generoaren arabera




7. grafikoa.
SUSAn argitaratutako olerki-bildumen banaketa, egileen generoaren arabera



8. grafikoa.
Argitaletxe desberdinetan argitaratutako lanen batezbestekoa, egileen generoaren arabera



9. grafikoa. Poesia-bildumen argitalpenaren bilakaera, egileen generoaren arabera: 1970-2020



Iturria: Alberdania, Balea Zuria, Elkar, Erein, Maiatz, Pamiela eta Susa argitaletxeen katalogo orokorretatik abiatuta osatu dugu grafikoa (II. eranskina).

3 Euskal Herriko poesia-lehiaketa nagusietan[3] saritutako lanen banaketa, egileen generoaren arabera[4]

Sariketetara etorrita, argitaletxeetako ekoizpenaren datuekin erkatuta, aldea adierazgarria da: euskal poesia-lehiaketa nagusietan saritutako lanen % 30,5 osatzen dute emakumezko idazleen sorkuntzek —gogora dezagun, % 19,5 dela argitaletxeen kasuan—. Lehiaketetan saritutako lanon artean ere aldaketarik antzeman daiteke 2018tik aurrerako datuetan, 2018-2022 epealdian saritutako lanen % 50 baita emakumezko egileena. Era berean, agerikoa da berrikiago abiatu diren poesia-lehiaketetan orekatuagoa dela generoaren araberako sarituen proportzioa —salbuespen da horretan Xabier Lete nazioarteko poesia saria—.

Argitaletxeen bidez plazaratutako lanen eta lehiaketetan saritutakoen arteko 10 puntuko aldearen irakurketa desberdinak egin daitezke: 1) pentsa genezake anonimotasunean eta egileen generoaren gaineko zantzurik gabe errazago balioesten direla emakumezkoen lanak; 2) izan liteke editoreen artean baino emakume gehiago izatea epaimahaietan eta Egañak (2013) kritikarien kasuan ikusitako fenomeno bertsuaren isla izatea desberdintasuna; 3) aldearen eragilea parte-hartzaileen kopuruan ere egon daiteke eta posible da kopuruetan emakume gehiagok egitea sariketen bidez argitaratzearen alde eta, aldiz, gizonezko idazleek ohiko argitaratze bideetarako joera handiagoa izatea. Hala, argitaratze eta saritze datuen desoreka horren eragile, hiru hipotesiok proposatzera ausartuko gara:

1. Irizpide literario hutsek gidatuta, egilea nor den jakin gabe egindako irakurketetan gehiago balioesten dira emakumeek idatzitako lanak.

---

[3] Euskal poesia-sariketa nagusiei erreparatu nahi izan diegu. Hala ere, badira garrantzitsuak diren beste lehiaketa batzuk ere, Urretxuko Udalak antolatutako Iparragirre saria, Lasarte-Oriako literatur lehiaketa eta beste hainbat. Hemen jasotakoak lagin zabala aurkezten du, baina ez lehiaketen osotasuna, noski.

[4] Euskal Herriko poesia-lehiaketa nagusietan saritutako emakume egileen lanen katalogoak II. eranskinean.


2. Emakumeek eurek, sariketek betetzen duten legitimazio funtzioa medio, joera handiagoa izan dute horietara aurkezteko.
3. Argitaratze-prozesuetan oztopo gehiago jartzen zaizkio emakume sortzaileari, eta zailagoa izan da eurentzat orobat edizio-prozesuetarako sarbidea.

Sariketek, argitaletxeek nola, zilegitze ahala dute literatura-sisteman. Argitaletxeez esandakoaren bidetik, literatur lehiaketak ere kapital sinbolikoaren indar eragile dira. Dollek eta Landerosek (2009) dioten eran, literatur lehiaketek egile eta obrak legitimatzeko erritu gisa funtzionatzen dute:


> Los concursos literarios, entonces, como figura, y en cuanto a una práctica o acto repetido y a la vez único, que pone en acción el sistema consagratorio de actores que forman parte del campo, o, lo desean, funciona como un ritual destinado a legitimar un autor y una obra (un discurso), y puede observarse como acto performativo (2009: 58).

Horrez gain, badute ezaugarri bereizgarri bat ere: anonimotasuna bermatzen dute lehiaketek eta, hala, legitimazio-bidea egilearen ezagupenik gabe eta, *a priori*, irizpide literario hutsek gidatuta egiteko aukera ematen dute. Lan honetan agertzen ari garen sariketa- eta argitaratze-dinamiken artean den aldearen gakoetako bat berezitasun horretan datzala dirudi, hain zuzen ere. Hori berresteko emandako datuak sariketa horietako parte-hartzaileen kopuruarekin eta argitaletxeetan jasotzen diren eskuizkribuenarekin alderatu beharko genituzke. Nolanahi ere den, generoak literaturaren plazara agertzeko bideetan ere eraginik baduela baiezta dezakegu bederen.


10. grafikoa.
Blas de Otero-Ángela Figuera poesia-lehiaketan saritutako lanen banaketa, egileen generoaren arabera



11. grafikoa.
DK poesia-lehiaketan saritutako lanen banaketa, egileen generoaren arabera



12. grafikoa.
Ernestina de Champourcin poesia-lehiaketan saritutako lanen banaketa, egileen generoaren arabera



13. grafikoa.
Irun Hiriko Kutxa Literatura Sariak lehiaketan saritutako lanen banaketa, egileen generoaren arabera



14. grafikoa.
Iruña Hiria Nazioarteko poesia-lehiaketan saritutako lanen banaketa, egileen generoaren arabera



15. grafikoa.
Iruñeko Udalak antolatutako egile berrientzako poesia-lehiaketan saritutako lanen banaketa, egileen generoaren arabera




16. grafikoa.
Lauaxeta poesia-lehiaketan saritutako lanen banaketa, egileen generoaren arabera




17. grafikoa.
Xabier Lete poesia-lehiaketan saritutako lanen banaketa, egileen generoaren arabera



18. grafikoa.
Xabier Portugal Pasaia Hiria poesia-lehiaketan saritutako lanen banaketa, egileen generoaren arabera



19. grafikoa.
Lehiaketetan saritutako lanen batezbestekoa, egileen generoaren arabera



4 Harrobiak dioena: Urruzuno literatur lehiaketa

Arestiko ataletara ekarritako datu horiek argitalpen-prozesuaren eta sariketa-irizpideen balorazioaren galbahetik pasa diren lanen berri baino ematen ez digutela jakitun, ekoizpen datu errealagoetara hurbilduko gaituen beste adierazle bat ere agertu nahi dugu: 14-18 urte bitarteko gazteei zuzendutako Urruzuno literatur lehiaketako datuak, hain zuzen ere. Tere Irastortzak esan zuenez, geroko idazleen haztegi direnez gero, kontuan hartu beharrekoak dira gazteei zuzendutako sariketetako datuak: «Euskal emakumezko idazle profesionalak ere aintzakotzat hartzeko garrantzizkoa da amateur deitu ohi den eremuetan idazten diharduten emakumezkoen berri jasotzea» (Irastortza 2019: 93).

1985. urtean sortutako literatur lehiaketa da Urruzuno, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak antolatzen duena eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendua dagoena. Harkaitz Canok dioenari jarraikiz, gure literaturaren harrobia da lehiaketa hura:

> Sarituen zerrendari begiratu besterik ez dago Urruzuno zer harrobi izan den jakiteko. Sarituetako askok jarraitu dute, aldez edo moldez, literatura, itzulpengintza edo bertsolaritzari lotuta, eta beste askok, kultur kudeaketa eta kazetaritzatik gertu. Geure nerabezaroko gertaera garrantzitsu bezala oroitzen dugu, behin urruzunotar izan ginenok. Boutadea barkatzen badidazue, atzera begiratuta, Urruzuno sariketa garrantzitsuagoa izan zen niretzat Euskadi Saria baino (Cano 2012 *apud* Berasaluze 2014: 16).

Gerora idazle ezagun bilakatu diren *urruzunotar* askok aitor dute sariketa horrek hauspotu zuela haien sorkuntza-ibilbidea. Lehiaketa horrek bai baitu berezitasun bat: irabazlea ez da bakarra, kategoria bakoitzeko ikastalde bat baizik, eta saria denek elkarrekin egin ohi duten egonaldi bat da —lehen Europan zehar; egun Euskal Herrian bertan—. Egun horietan euskal idazle eta sortzaileen bisitak jaso ohi dituzte eta hainbat sormenjarduera egiten, besteak beste. Irteera hori da askorentzako beste gazte literaturazaleak ezagutzeko lehen aukera, eta horregatik dirau gerora ere esperientzia horrek gehienen oroimenean. Leire Bilbao, Euskadi Saridun idazlea bera ere, *urruzunotarra* da eta harentzat ere baitezpadako mugarria izan zen lehiaketa irabazteak ekarri zion sarea: «Bide horretan, beste une garrantzitsu bat niretzako Urruzuno literatur lehiaketa izan zen. Sariketa honi esker ezagutu nituen literatura-zaleak ziren nire adineko beste neskamutilak. Horrek ere hauspotu zidan poesia irakurri eta idazteko grina» (Bilbao 2025 [2021]: 717).

Gari Berasaluzek *Hegats* aldizkariaren 54. zenbakian «Urruzunotarrak: Oroitzapenez ehundutako bidaiak eta sarea» erreportajea argitaratu zuen eta bertan jaso zuenez, «pertsonalki, irabazle gehienak nabarmen markatu dituen saria da» (Berasaluze 2016: 78). Lan hartan, Urruzuno literatur lehiaketa irabazitako hainbaten bizipenak jaso zituen eta denek ere sari hura oasi baten moduan gogoratzen dute; Mikel Ayllon idazlearen hitzak dira ondorengoak:

> Nerabezaroa oihana da, eta, edozein oihanetan bezala, lehoiak, tximinoak, elefanteak edo hipopotamoak aurkituko ditugu nonahi. Baina idaztea edo irakurtzea gustatzen bazaizu, inork inguruan nahi ez duen erle bat besterik ez zara izango. Horregatik, Urruzuno

> erlauntz bat izan zen, ni bezalako beste erle batzuk ezagutzeko aukera eman zidana (Ayllon *apud* Berasaluze 2016: 79).

Halaber, Urruzuno lehiaketa hainbat euskal literatura-bandaren ernamuin ere izan da. 1993. urtean Lubaki Banda sortu zen, lehiaketak elkartu zituen gazte talde baten ekimenez; Canok dioenez: «Garai horretan osatu genuen, Urruzuno lehiaketaren bidez elkar ezagutu genuen idazle batzuek, besteak beste, Lubaki Banda. Pott, gure itsas-argia, banda bat izan bazen, gu ez ginen gutxiago izango eta geuk ere banda izan behar genuen, *comme il faut*» (Cano 2024: 90). Lubaki Bandak *Susa* aldizkariaren azken hiru zenbakiak —31, 32 eta 33— osatu zituen. Bide beretik, 2013an Itu Banda sortu zen, eta hartan ere baziren literatur lehiaketan elkar ezagututako gazteak. Haiek *Lekore* gazteen literatur aldizkaria sortu zuten 2015ean. Haria ez da eten, eta aurrekoen eredura sortu zen berriki Behe Banda ere; «ezinegonak jarri zituen martxan, 2022an, Urruzuno lehiaketako irabazleen egonaldia elkarrekin pasatu zutenean» (Ubeda 2024). 2023ko abenduaz geroztik, fanzineak argitaratzen ditu Behe Bandak orobat.


Urruzuno, hortaz, euskal literaturaren harrobi garrantzitsua izan da, sorkuntzarako sarea eman eta literatura-ibilbidean aurrera egiteko akuilua askorentzat. Horregatik deritzogu jakingarri lehiaketa honen dinamiketan arakatzeari; horretarako, sariketaren inguruko hiru datu ezagutu nahi izan ditugu:

1. Urruzuno literatur lehiaketako parte-hartzaileen kopuruaren bilakaera (20. grafikoa).

2. Sariketa berean parte-hartzaile izandako gazteen generoaren araberako banaketaren bilakaera 2003. urtetik aurrera (21. grafikoa).


3. 14-18 urte bitarteko gazteei zuzendutako Urruzuno literatur lehiaketako saridunen generoaren araberako bilakaera 1986-2021 epealdian (22. grafikoa).

20. grafikoa. Urruzuno literatur lehiaketako parte-hartzaile kopuruaren bilakaera (1986-2021)




Iturria: Urruzuno literatur lehiaketako lan sarituen bildumetako datuetatik abiatuta guk osatutako grafikoa.

21. grafikoa. Urruzuno literatur lehiaketako parte hartzaileen bilakaera, egileen generoaren arabera: 2003-2021



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak eskura emandako datuetatik abiatuta guk osatutako grafikoa.

22. grafikoa. Urruzuno literatur lehiaketako irabazleen bilakaera, generoaren arabera: 1986-2022



Iturria: Urruzuno literatur lehiaketako lan sarituen bildumetako datuetatik abiatuta guk osatutako grafikoa.

1986. urtean lehiaketa abiatu zenez geroztik sariketan parte hartu zuten gazteen kopuruak bildu ditugu, ordutik sarituak izandako lanen egileen generoaren araberako banaketaren bilakaeraren berri ematen digun grafikoa osatu dugu, eta baita 2003. urtetik aurrerako parte hartzaileena ere. Azken grafiko horretan ezin izan ditugu 1986-2002 epealdiko datuak jaso, halako erregistrorik gordetzen ez delako. Hala, analisi honek, batetik, aurrez ekarri ditugun datuak gazteengan den produkzio mailarekin alderatzeko aukera eskaini digu, eta bestetik, Urruzuno literatur lehiaketako ekoizpen-datuak geroko sariketa eta argitalpenen proportzioetan islatzen ote diren agertu digu. Halaber, azken bi hamarkadetako bilakaeraren argigarri ere badira, 2003. urtetik honako datuek ia hogei urteko tartean izandako gora-beheren berri ematen baitigute.

Urruzuno literatur lehiaketak bi kategoria bereizten ditu: prosa eta poesia. Azterlan honetan fokua poesiagintzan jarri dugun arren, belaunaldi

gazteen ekoizpenaren datu orokorragoa hartu dugu kontuan oraingoan, eta bi kategoriak barne hartu ditugu ekarritako datuetan.

Parte-hartzaileen bilakaerari dagokionez, azken urteetako joera beheranzkoa izan da nabarmen. 1992. urtean 627 gaztek hartu zuten parte lehiaketan; 2020an, 114k baino ez. Dena den, egun sorkuntzan ari diren idazleekin alderaketa egiteko datuak aski esanguratsuak zaizkigu. Sariketara testurik bidali dutenen artean beti izan dira emakumezkoak nagusi, eta emakumezkoen parte-hartzea ez da behin ere % 65etik jaitsi. Areago, 2010. urteaz geroztik % 75etik gorakoa izan da beti. Datu horiek 14-18 urte bitarteko gazteen sorkuntzaren berri ematen digute eta ageriko egin neska gazteak idazketa literarioari emanagoak direla.

22. grafikoan jaso dugunez, lehiaketan saritutako lanen egileen artean ere erabat nagusi dira emakumeak: % 65etik gorakoa izan da beti irabazleen artean nesken kopurua. Azken urteetako datuari erreparatzen badiogu, aldea are eta nabarmenagoa da, gainera: 2017., 2018. eta 2019. urteetan, irabazleen % 90, % 89,5 eta % 90,5, hurrenez hurren, neskak izan ziren. Datu horiek helduei zuzendutako sariketetakoarekin alderatzen baditugu agerikoa da ez direla elkarren isla. Aztergai izandako sariketa guztien batezbestekoaren arabera, lehiaketa horietan garaile izandako lanen % 30,5 baino ez dagokio emakumezkoek idatzitako testuei. Azken urteetako datuak soilik kontuan hartzen baditugu, eta eman berri ditugunekin paralelismoa eginez, 2017-2019 epealdian saritutako lanen proportzioa antzerakoa da: % 34,6 izan ziren emakumezko sortzaileenak. Hala, gazteei zuzendutako Urruzuno literatur lehiaketako datuen eta helduei zuzendutako sariketen artean aldea oso da nabarmena, aipatu berri dugun epealdian, aldea 55 puntutik gorakoa izanik. Urruzuno literatur lehiaketako datuak argitaletxeetan plazaratu diren olerki-bildumen datuarekin alderatzen baditugu, desoreka are eta nabarmenagoa da; 2017-2019 urteen artean % 31,4 izan ziren emakume egileek plazaratu zituzten olerki-liburuak —Balea Zuria argitaletxearen datuak bazter utzita—.

Denborak esango du egungo gazteengan den produkzio-maila hori bera geroko helduen sariketetan eta argitalpen-dinamiketan islatzen den. Begi bistakoa dena da aurretiko urteetan ez dela bat etorri emakumezko gazteen

ekoizpen- eta saritze-maila eta helduen lehiaketetan saritutakoa edo argitaletxeen bidez kaleratu dena, bi datuen arteko denbora desfasea kontuan hartuagatik ere. 1999an ondorio bertsura heldu zen Olaziregi ere, gazteei zuzendutako literatur lehiaketetan eta helduentzako sariketetan garaile izandako lanen artean aldea izugarria zela ikusi baitzuen hark ere. Desoreka hori azaltzeko, ondoko hiru hipotesiok proposatu zituen: 1) 18 urtetik aurrera emakume idazleek lehiaketetara aurkezteari uzten diote; 2) Adinarekin, beren lanen kalitate-maila jaitsi egiten da; 3) Adinarekin, emakumezko gutxiagok idazten dute (Olaziregi 1999: 23).

Agertu berri ditugun datuek salatzen duten bilakaera azaltzeko, hemen ere hipotesi bertsuak iradoki beharko genituzke, baina Olaziregik ere orduan adierazi zuenez, desoreka horiek literatur sistemaren dinamika konplexuagoen ondorio dira, baiki. Azken hipotesiari dagokionez, bistakoa da adinarekin nesken artean nabarmena dela etena, eta azaleratutako zenbakiek erakusten dutenez, joera orokorra literatur sorkuntza uztearena dela. Gaztaroan haien lanak nagusi diren arren, helduaroan gutxiengoa izatera igaro ohi dira nabarmen. Ondorio horren arrazoietan sakontzeko, baina, aurreko bi hipotesiak gainditzen dituzten analisiak egin behar ditugu ezinbestean.

Bide horretan, Joana Russek *How to Suppress Women's Writing* (1983) lanean emakume idazleen sorkuntzen eragozle jokatzen duten indar inplizituetan arakatu zuen eta lehen bezala egun ere haien sorkuntzak zigortu eta orobat galarazteko erabili ohi diren estrategia zenbait identifikatu zituen. Haren esanari jarraikiz, emakume idazleak oztopatu ditu egiletasuna ukatzeak, isolamenduak, salbuespenaren ideiak eta balio estetikoen arbuioak, besteak beste, eta horregatik da garrantzitsua, hark dioenez, aurrez formulatu ditugun hipotesiak bezain agerikoak ez diren indar galarazleak salatzea: «it's important to realize that the absence of formal prohibitions againts commiting art does not preclude the presence of powerful, informal ones. For example, lack of leisure [is] certainly a powerful deterrent to art» (Russ 1983: 6). Denbora-falta aipatzen du Russek eta euskal emakumezko idazleen artean ere maiz aipatu izan duten zailtasuna izan da denbora-faltarena. Segidan bildutako adierazpenetan, esaterako, Leire Bilbao eta

Ione Gorostarzu poeten hitzek denborarekiko larridura bera salatzen dute; horretan dute poesiaren generoa hautatu izanaren arrazoia ere:

> Poesiarekin […] lan egiteko modua ere oso desberdina da bestelako generoen aldean. Nik ez dut nire burua ikusten hamaika orduz ipuin bat idazten; denbora ez dut horretan lagun. Ez da nire sorkuntza-erritmoa (Gorostarzu 2025 [2022]: 761).

> Gero kontua da denbora behar izaten dudala hori papereratzeko. Bestelako betebehar batzuk ditugu denok gure egunerokoan, nik ez daukat Woolfek zioen norberaren gelarik. Azken finean, zergatik idazten ditugu poemak? Hau da, zortziko txiki bat? Denborarik ez dugulako. Akaso, idazketaz aparteko lanik ez bagenu eta umerik ere ez, ipuinak idaztera animatuko ginateke. Edo ez. Edo nobela bat idatziko genuke. Edo ez; agian poeta izatea erabakiko genuke. Baina, edozelan ere, denbora muga bat da, eta ez du bestelako aukerarik ematen. Baldintzatu egiten du gure idazketa jarduna (Bilbao 2025 [2021]: 723).

Denbora hartzeko zailtasunekin batera, sortzaile-sorkuntza harreman zuzena gainditzen duten bestelako oztopoetan arakatzea ezinbestekoa da lan honetan agertutako datuen eta desorekaren jatorria eta arrazoiak ezagutzeko. Russek, testuinguru anglo-saxoia abiapuntu izanik, aipatutako eragile horiek guztiek emakumezko sortzaileei literatura-sistemarako sarbidea ukatzeko estrategia gisa funtzionatzen dutela erakutsi zuen. Gurean ere, bistan da, azterketa soziologiko sakonago baten menpe dagoela emakume gazteen sorkuntzaren eta helduaroan topatu dugunaren arteko aldearen argitzea.

5 **Ondorioak**

1970. urtetik honako bilakaera marrazten lagundu diguten adierazleen analisiak ageriko egin du euskal literaturaren dinamiketan egileen generoa baldintzatzailea izan dela eta, oraindik ere, badela. Azterketa honek ageriko egin du idazle gazteen artean emakumeak erabat nagusi diren arren, helduaroan gutxiengo izatera igarotzen direla. Urruzuno literatur lehiaketako da-

tuen kasuan, sariketa hartan erabat nagusi izan dira beti neskak, bai parte-hartze datuetan, baita irabazle izandako lanetan ere. Argitaletxeetatik eta lehiaketetatik jasotako datuetan, aldiz, gizonezko idazleen nagusitasuna erabatekoa da. Ekarritako datuek ondorio orokor bi agertu dizkigute: batetik, lan argitaratuen kasuan, arrakala izugarria dela eta gutxiengoa direla edizio-prozesu baten ondotik plazaratu ziren emakumezko idazleen olerki-bildumak; bestetik, sariketei dagokienez, desoreka ere nabarmena izan arren, ez dela argitaratutako lanekiko proportzionala.

Oraintsu honetako euskal literaturaren bilakaerari erreparatzen badiogu, 2015-2020 epealdiari hain zuzen ere, emakumezkoek kopuruan gora egin duten arren, hiru eremu horietan banaketak bertsua izaten jarraitzen du. Urte horietan Urruzuno literatur lehiaketa irabazitako lanen % 80,7 emakumezkoen sorkuntzak izan ziren; helduei zuzendutako sariketetan % 36,1 eta argitaletxeetan kaleratu ziren olerki-bildumen artean % 29,6 izan ziren emakumezko idazleenak.

2015-2020 epealdiari dagozkion datuak:

23. grafikoa. Urruzuno literatur lehiaketan saritutako lanak (2015-2020)



24. grafikoa. Sariketetan irabazle izandako lanak (2015-2020)



25. grafikoa. Argitaratutako olerki-liburuak (2015-2020)



Horrenbestez, aipatu datuok milurteko berriaren hastapeneko dinamiken neurgailutzat jotzen baditugu, esan dezakegu euskal literaturan ez dela egiturazko aldaketa sakonik gertatu 2000. urteaz geroztik. Parekidetasunerako bidean urratsik eman dela ukaezina bada ere, adierazleek erakusten dute dinamika bertsuan ekin ziola euskal literaturak mende berriari genero-

arrakalari dagokionez. Miren Agur Meabek orain hogei urte adierazi zuen bezala, emakume idazleen kopuruak emendatu arren, oraindik ere, gizonezko idazleena da euskal literatura-sistemaren erdigunea: «Emakumezko idazlea euskal literaturaren parte da gero eta gehiago. Hala ere, gauza bat da urtero emakumeek plazaratzea, emakumeak idatzitako lanen kopurua haztea, eta beste bat lan horiek zer balorazio jasotzen duten, praktikan kanona nork eta nola definitzen duen» (Meabe 2006: 380).

Aitzitik, bada azken urteotan emakume idazleen sorkuntza periferian izatetik literatur sistemaren zentroan leku egitera igaro dela ondorioztatu duenik; Jon Kortazarrek, esate baterako, honakoa adierazi zuen berriki: «La escritura de mujer ha pasado en el sistema literario vasco de la periferia a ocupar un lugar en la centralidad. Es un proceso lento y no concluido. […]. Pero el panorama ha cambiado» (2022: 5). Aldaketa abian dela zalantzan jarri gabe, egin berri dugun irakurketak erakutsi digu generoa baldintzatzaile azkar eta ezkutua den gudu-zelaia dela, oraindik ere, euskal literatura. *Begiak zabalduko zaizkizue* (2021) saioan Irati Jimenezek, hain zuzen ere, egoera «aldatutzat» ematearen arriskua agertu zuen:

> Euskal literatura ze matxista den ez dugu benetan onartu. Onartu gabe aldatutzat eman dugu, eta horrek arrisku handiak ditu. Etorkizunean edonork esan dezakeelako hemen ez dela ezer gertatu edo ez dela horrenbesterako izan. Hala ere, *edonola ere*, gauzak aldatzen doaz. Gezurra litzateke kontrakoa esatea […]. Astiro baina bagoaz (Jimenez 2021: 228).

Hortaz, euskal literatur sistema eraldatzen ari dela esan dezakegun arren, gainerako gizarte-esparruetan bezala, artearenean ere deseraikuntza-berreraikuntza prozesuak geldoak dira; Lasartek eta Alvarez-Uriak dioskutenez: «belaunaldi berriekin batera euskal literatura feministagoa da, baina oraindik bide luzea dago egiteko» (2022: 13). Gaurgero hala izan dadin, ezinbestekoa da literatur kritika feministaren eginbeharra, emakumeena gutxitutako sorkuntza izan den iragan hurbilari ahotsa jartzeko, isilean izandakoak argitara ekartzeko eta, azken buruan, euskal literatura parekideagoa osatzeko bidean.

Bibliografia

ALONSO, Idurre (2009). *Euskal literaturaren irakaskuntza Hego Euskal Herriko batxilergoan. Ezagutza kontzeptualetatik gaitasun komunikatiboetarako bidean*. Doktore-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea. ADDI. http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Idurre_Alonso_TESI.pdf (2025eko urriaren 15ean kontsultatua).

BERASALUZE, Gari (2014). «Haize-kontra nabigatzen», *in Urruzunotarrak gehituz 2014*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.

BERASALUZE, Gari (2016). «Urruzunotarrak: Oroitzapenez ehundutako bidaiak eta sarea», *Hegats* 54: 78-81.

BILBAO, Leire (2025 [2021]). «Poesian jolastu, amestu eta arriskatu egin behar da», *in* Ane Arrastoa, *Poetika feministak Afektuaren Ikasketen argitan. Euskal poesia garaikidearen irakurketa proposamen bat (1971-2020) (I. eranskina)*. Doktore-tesi argitaragabea, Euskal Herriko Unibertsitatea.

BORDIEU, Pierre (1999). «Une révolution conservatrice dans l'édition», *Actes de la Recherche en Sciences Sociales* 126-127: 3-28.

CANO, Harkaitz (2024). «Mahai ingurua. Euskal literatura aldizkariak eta periferiak. Gauzak ez dira horrela, gauzak horrelaxe daude [Parte hartzaileak: Itxaro Borda, Harkaitz Cano eta Beñat Sarasola. Moderatzailea: Juan Luis Zabala]», *Egan* 77 (1-2): 87-118.

DOLL, Darice eta LANDEROS, Damaris (2009). «Los concursos o certámenes literarios como actos performativos: El caso del Certamen Varela de 1887», *Acta Literaria* 38: 55-69. https://doi.org/10.4067/s0717-68482009000100005

EGAÑA, Ibon (2013). *Kritikarako hurbilketa literaturaren soziologiatik. Egunkari eta aldizkarietako euskal literatur kritiken analisia (1975-2005)*. Doktore-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea. ADDI. http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Ibon_Egana_TESIA.pdf (2025eko urriaren 15ean kontsultatua).

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA. (2022). «Bazkideak Atik Zra». https://idazleak.eus/eu/bazkideak/bazkideak-a-z

GOROSTARZU, Ione (2025 [2022]). «Poesia une baten erretrato bat da, sentimendu batena, galdera batena», *in* Ane Arrastoa, *Poetika feministak Afektuaren Ikasketen argitan. Euskal poesia garaikidearen irakurketa proposamen bat (1971-2020) (I. eranskina)*. Doktore-tesi argitaragabea, Euskal Herriko Unibertsitatea.

IRASTORZA, Tere (2019). «Euskarazko literatura eta hitzen sorkuntzako emakumeen eta gizonen egoera: egoeraren diagnostikoa», *in Genero programak eta politikak*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.

JIMENEZ, Irati (2021). *Begiak zabalduko zaizkizue. Literaturari buruzko elkarrizketa bat*. Elkar.

KORTAZAR, Jon (2022). *De la periferia al centro: nuevas escritoras vascas*. Edizioni Ca' Foscari.

LASARTE, Gema eta ÁLVAREZ-URIA, Amaia (2022). «Belaunaldi berriekin batera euskal literatura feministagoa da, baina oraindik bide luzea dago egiteko». *Noticias de Álava*, 2022ko ekainaren 12a. https://www.noticiasdealava.eus/gasteiz/2022/06/12/belaunaldi-berriekin-batera-euskal-literatura-3585377.html (2025eko urriaren 16an kontsultatua).

MEABE, Miren Agur (2006). «Doitasunaren poeta», *in* Ana Urkiza [Elkarrizketatzailea], *Zortzi unibertso, zortzi idazle*. Alberdania.

MUÑOZ, Josune (2010). «Tabu batzuk komikien bidez argituko dira». *Argia*, 2010eko otsailaren 14a. 10-14. https://share.google/wqTG5UN7AQ1XJGhDC

OLAZIREGI, Mari Jose (1999). «Intimismoaz haraindi: emakumezkoek idatzitako euskal literatura», *Oihenart* 1 (9): 1-75.

OLAZIREGI, Mari Jose eta AYERBE, Mikel (2016). «El conflicto de la escritura y la rescritura de la identidad: análisis de la narrativa de escritoras vascas que abordan el conflicto vasco», *in* Katarzyna Moszczyńska-Dürst, Karolina Kumor, Ana Garrido eta Aránzazu Calderón (arg.), *Identidad, género y nuevas subjetividades en las literaturas hispánicas*. Instituto de Estudios Ibéricos e Iberoamericanos de la Universidad de Varsovia.

OLAZIREGI, Mari Jose (2002). «Hegoaldeko euskal literatura milurte berriaren atarian», *in Eusko Ikaskuntza: XV Congreso de Estudios Vascos: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak*: 639-647.

RUSS, Joana (1983). *How to suppress women's writing*. University of Texas Press.

UBEDA, Garbiñe (2024). «Maila apalenetik hasita, idazle». *Berria*, 2024ko urtarrilaren 29a. https://www.berria.eus/kultura/maila-apalenetik-hasita-idazle_2135883_102.html (2025eko urriaren 16an kontsultatua).

ZALDUA, Iban (2002). «Izan al da emakumeen literaturaren 'boom'-ik?», *Egunkaria*, 2002ko uztailaren 2a. https://www.berria.eus/hemeroteka/egunkaria/pdfa/?data=2002-07-02&orria=044&zenb=TmpWcUpXOGExR0IzUW8yazZ6c3ZpZz09 (2025eko urriaren 16an kontsultatua).

Eranskinak

I. ERANSKINA: Euskal argitaletxe nagusiek poesiaren generoan argitaratutako emakume idazleen lanen katalogoak

1. taula. Alberdania argitaletxean argitaratutako emakume idazleen olerki-bildumak (1993-2021)

Izenburua	Idazlea	Urtea
Sano erradikal	Isa Díaz	2020

2. taula. Balea Zuria argitaletxean argitaratutako emakume idazleen olerki-bildumak* (2017-2022)

Izenburua	Idazlea	Urtea
Ohe hutsetan	Izaskun Gracia	2018
*Azalberritze bat***	Esti Martinez	2018
Zeldak -Gorputz honetatik-	Elena Olave	2019
Abaro	Itxaro Borda	2020
*Aro beilegia***	Lizar Begoña	2020
Hostoen hezurdura unatua	Maixa Zugasti	2021
*Eskuan beti zerbait***	Maialen Berasategi	2021
*Hotza bazkatzen***	Izaskun Igoa	2022

* Bi antologia poetiko ere argitaratu ditu Balea Zuriak: *Bidea eta zauria: sei poeta (2000-2019)* (2021) izenburuduna bata, Peru Magdalena, Jon Benito, Hasier Larretxea, Ione Gorostarzu, Iñigo Astiz eta Beatriz Chivite olerkarien lanekin osatua, eta *Lurra eta dardara: zortzi ahots emakumezko: antologia poetikoa* (2019) izenburuduna bestea, Amaia Lasa, Itxaro Borda, Tere Irastortza, Miren Agur Meabe, Castillo Suárez, Leire Bilbao, Izaskun Gracia eta Aintzane Galardi poeten testuak biltzen dituena.

** DK Poesia Sariaren irabazlea.

3. taula. Elkar argitaletxean argitaratutako emakume idazleen olerki-bildumak (1972-2022)

Izenburua	Idazlea	Urtea
*Korapiloak**	Jasone Osoro	2001
Bazterreko ahotsa	Ana Urkiza	2002
Spam poemak	Castillo Suarez	2004
Bala hutsak	Castillo Suarez	2006
Souvenir	Castillo Suarez	2008
Des egiten	Ione Gorostarzu	2012
Urtebetetze festa	Castillo Suarez	2012
Zure hatzaren ez galtzeko	Itxaro Borda	2014
Orain hilak ditugu	Karmele Jaio	2015
Babeserako kopia	Goizalde Landabaso	2015
Ez da erditzea	Ione Gorostarzu	2019
Irautera	Castillo Suarez	2019
*Dena ametsa den irudipena***	Leire Vargas	2021

* Ipuinak eta poemak biltzen dituen liburua.

** Irun Hiriko Kutxa Literatura Sariaren irabazlea.

4. taula. Erein argitaletxean argitaratutako emakume idazleen olerki-bildumak (1976-2022)

Izenburua	Idazlea	Urtea
Eskaileraren bi aldeetan	Amaia Iturbide	1986
Itzulbidea	Amaia Iturbide	1992
Gelak eta zelaiak	Amaia Iturbide	1994
Ur-tximeletak	Pili Kalzada	1999

Labirintoaren orduak	Amaia Iturbide	2008
Eszenatokietako aztarnak hasten direnean	Amaia Iturbide	2011
Mendafin usaineko iluntzeak	Aintzane Galardi	2015
Dorrearen eta penduluaren arteko ituna	Amaia Iturbide	2016
Biennale	Beatriz Chivite	2017
Txoriak etortzen ez diren lekua	Alaine Agirre	2017
Oroimenaren xaflakortasunaz	Paloma Rodriguez-Miñambres	2019
Zaharkitze programatua	Eva Perez-Pons	2020

5. taula. Maiatz argitaletxean argitaratutako emakume idazleen olerki-bildumak (1984-2022)

Izenburua	Idazlea	Urtea
Bizitza nola badoan (1974-1984)	Itxaro Borda	1984
Basamortuan oasiaren bila	Gotzone Sestorain	1986
Just love, poemak	Itxaro Borda	1988
Egiaren egarriz	Henriette Aire	1989
*Hautsak errautsa bezain**	Itxaro Borda	2003
Noiztenka, poemak	Itxaro Borda	2007
Itsasoko izaki	Amaia Lasa Alegria	2010
Chansons d'amour	Ainara Maia Urroz	2012
*Medearen iratzartzea eta beste poemak**	Itxaro Borda	2012
Eskualdunaren gakoa	Agurtzane Anduetza	2015

Egunsentia	Amaiur B. Blasco	2016
Olerki ipuin eta eleberriak	Mayi Pelot	2019

* Elebidunak. Sail honetakoak ez dira kontuan hartu grafikoak osatzerakoak, gehienak ez baitira jatorriz euskaraz sortuak.

6. taula. Pamiela argitaletxean argitaratutako emakume idazleen olerki-bildumak (1983-2022)

Izenburua	Idazlea	Urtea
Derrotaren fabulak	Tere Irastortza	1986
Osinberdeko kantoriak	Tere Irastortza	1993
Atari ahantziak	Aurelia Arkotxa	1993
Manual devotio gabecoa edo ibilgailuetara erabilitako	Tere Irastortza	1994
Gabeziaren khantoreak	Tere Irastortza	1995
Izen gabe, direnak	Tere Irastortza	2000
Glosak - Esana zetorrenaz	Tere Irastortza	2003
Denbora enaren hegaletan	Karmele Igartua	2009
Itsaso kontra bat	Karmele Igartua	2011
Eta orain badakit	Tere Irastortza	2011
Amaren heriotzak libreago egin ninduen	Mari Luz Esteban	2013
Mundua betetzen zenuten	Tere Irastortza	2015
Pekineko kea	Beatriz Chivite	2017
Mugi/atu	Beatriz Chivite	2019
Andrezaharraren manifestua	Mari Luz Esteban	2019
*Zoonomia**	Nerea Arrien	2022

* Xabier Lete Nazioarteko Poesia Sariaren irabazlea.

7. taula. Susa argitaletxean argitaratutako emakume idazleen olerki-bildumak (1983-2022)

Izenburua	Idazlea	Urtea
Hirusta	Aitxus Iñarra	1985
Hitz antzuen azokan	Gema Lasarte	1985
Krokodil bat daukat bihotzaren ordez	Itxaro Borda	1986
Bestaldean	Itxaro Borda	1991
Orain	Itxaro Borda	1998
Azalaren kodea	Miren Agur Meabe	2000
Mugarri estaliak	Castillo Suarez	2000
Ezkatak	Leire Bilbao	2006
Bitsa eskuetan	Miren Agur Meabe	2010
Scanner	Leire Bilbao	2011
Tractatus	Jule Goikoetxea	2014
Alde erantzira nabil	Ekhine Eizagirre	2016
Goseak janak	Idurre Eskisabel	2018
Etxeko urak	Leire Bilbao	2020
Nola gorde errautsa kolkoan	Miren Agur Meabe	2020
Lazunak azazkaletan	Oihana Arana	2021
Gu gabe ere	Itziar Ugarte	2021
Gepardo japoniarrak	Lizar Begoña	2022

II. ERANSKINA: Euskal Herriko poesia-lehiaketa nagusietan saritutako emakume egileen lanen katalogoak

8. taula. Blas de Otero-Ángela Figuera Poesia Sarian (2008-2022)* garaile izandako emakume idazleen lanak

Izenburua	Idazlea	Urtea
Mendafin usaineko iluntzeak	Aintzane Galardi	2014
Biennale	Beatriz Chivite	2016
Oroimenaren xaflakortasunaz	Paloma Rodríguez	2018
Zaharkitzapen programatua	Eva Pérez-Pons	2019

* 2009. urtean eman gabe geratu zen saria.

9. taula. DK Poesia Sarian (2017-2022) garaile izandako emakume idazleen lanak

Izenburua	Idazlea	Urtea
Azalberritze bat	Esti Martinez	2017
Aro beilegia	Lizar Begoña	2019
Eskuan beti zerbait	Maialen Berasategi	2020
Hotza bazkatzen	Izaskun Igoa	2021

10. taula. Ernestina de Champourcin Lehiaketan (1994*-2021) saritutako emakume idazleen lanak

Izenburua	Idazlea	Urtea
Gariaren usain horia	Maite Urkiza	1993
Ura badoa maldan behera	Isabel Díaz	1994

Bisaia ezagunek aurkeztu zaituzte	Miren Zabala	1998
Iragarki merkeak	Castillo Suárez	1999
Patio bat bi itsasoen artean	Ixiar Rozas	2000
Madarikazioa	Castillo Suárez	2002
Kapela berdea pianoaren gainean	Katixa Aguirre	2003
Eleak eta beleak	Izaskun Gracia	2006
Desoseguaren gorazarrea	Paloma Rodríguez-Miñambres	2013
Metro	Beatriz Chivite	2014

* 1993 urtean hasi ziren euskarazko lanak ere saritzen. 1990., 1991. eta 1992. urteetan gaztelaniaz idatzitako lanak baino ez ziren saritu. 2020. urtean ez zen deialdirik egin.

11. taula. Irun Hiriko Kutxa Literatura-Sarian (1970-2022)* garaile izandako emakume idazleen lanak

Izenburua	Idazlea	Urtea
Maitasunaren magalean	Arantxa Urretabizkaia	1981
Ezezagun baten kuadernoa	Mari Jose Kerejeta	1987
Hitz hits, paperezko mihisetan lits	Aranzazu Garzia	1991
Ontzi iluna	Isabel Díaz	1998
Poema amniotikoak	Sonia González	2005
Dena ametsa den irudipena	Leire Vargas	2021

* 1975ean eta 1989an saria eman gabe geratu zen. 2013an eta 2020an ez zen deirik egin.

12. taula. Iruña Hiria Nazioarteko Poesia Lehiaketan (2016-2022) saritutako emakume idazleen lanak

Izenburua	Idazlea	Urtea
Hegodun poemak	Aintzane Galardi	2018
Bidai (H)ariketak	Oihane Garmendia	2020
Eripoemia	Lierni Azkargorta	2021

13. taula. Iruñeko Udalak antolatutako egile berrientzako euskarazko literatur lehiaketan (1988-2021)* saritutako emakume idazleen lanak

Izenburua	Idazlea	Urtea
Menda eta azukrearen olerkiak	Maria Markotegi	1990
Amodio galduak	Castillo Suárez	1998
Bitaminak	Castillo Suárez	1999
Graffittien berba	Alazne Juaniz	2005
Pekineko kea	Beatriz Chivite	2012
Udaberria gutaz ahaztu zen urte hartan	Marisa Zubiri	2013
Hareazko gabiltza	Irati Majuelo	2017
Patriketan gordeak	Nerea Balda	2018
Itzalak uraren azpian	Iosune de Goñi	2021

*1989., 1992., 2006., 2007., 2009., 2010. eta 2014. urteetan ez zen deialdirik egin edo saria banatu gabe geratu zen.

14. taula. Lauaxeta Poesia Sarian (2012-2021) garaile izandako emakume idazleen lanak

Izenburua	Idazlea	Urtea
Eszenatokietako aztarnak hasten direnean	Amaia Iturbide	2012
Tractatus	Jule Goikoetxea (< 35)	2014

Metro	Beatriz Chivite (< 35)	2015
Morfologiak	Garazi Ugalde (< 35)	2016
Dorrearen eta penduluaren arteko ituna	Amaia Iturbide (> 35)	2017
Zeldak -Gorputz honetatik	Elena Olave (< 35)	2020
Etxeko urak	Leire Bilbao (> 35)	2021

15. taula. Xabier Lete Nazioarteko Poesia Sarian (2011-2021)* garaile izandako emakume idazleen lanak

Izenburua	Idazlea	Urtea
Zoonomia	Nerea Arrien	2021

* Bi urtean behin egiten da deialdia.

16. taula. Xabier Portugal Pasaia Hiria poesia lehiaketan (1981-2022) saritutako emakume idazleen lanak

Izenburua	Idazlea	Urtea
Oroimen bizi eta margulduak	Mirari García de Cortázar (accesita)	1995
Txilista	Mª Jesús Muñoz (1. saria)	2001
Asteburuko bidaia	Arantza Otaegi (2. saria)	2009
Hirigrafiak eta paisaiagramak	Ekhiñe Egiguren (1. saria)	2011
Korapiloak lokarrietan	Garazi Ugalde (1. saria)	2014
Morfologiak	Garazi Ugalde (1. saria)	2015
Afasia Airlines	Goizane Aizpurua (1. saria)	2017
Interpretazioak G minorren	Goiatz Labandibar (2. saria)	2019
Gorputz baten aztarnak elurretan	Iosune de Goñi (1. saria)	2021

Propagandatik albisteetara: euskarazko kazetaritza informatiboaren hastapenak XIX. mende bukaeran

De la propaganda a las noticias: los inicios del periodismo informativo en euskera a finales del siglo XIX

De la propagande aux nouvelles : les débuts du journalisme informatif en basque à la fin du XIX^{e} siècle

From Propaganda to News: The Beginnings of Informative Journalism in Basque in the Late 19th Century

MURUA URIA, Imanol
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU
Kazetaritza Saila
imanol.murua@ehu.eus
ORCID: https://orcid.org/0000-0002-1083-7731

DOI: https://doi.org/10.59866/eia.v2i71.350

Jasotze-data: 2025-11-07
Behin-behineko onartze-data: 2026-04-21
Behin betiko onartze-data: 2026-06-09

Artikulu honek euskarazko kazetaritza informatiboaren hastapenak aztertzen ditu. Horretarako, XIX. mendean argitaratu ziren euskal aldizkarietan albistearen generoa noiz lantzen hasi ziren eta nola garatu zuten azaltzen du. *Le Réveil Basque, Eskualduna* eta *California'ko Eskual Herria* informazio orokorreko astekariek astez aste eta luzaroan landu zuten informazio-genero oinarrizkoena euskaraz, baina *Uscal-Herrico Gasetak*, *Escualdun Gazetak*

eta *Euskalzale*k ere argitaratu izan zituzten albisteak. Aldizkari horien azterketa hemerografikoan oinarritu da ikerketa.

Hitz gakoak: albistea, informazio-generoak, kazetaritza-generoak, euskal kazetaritzaren historia, euskal hedabideak.

Este artículo estudia los orígenes del periodismo informativo en euskera. Analiza cuándo y cómo comenzó a desarrollarse el género de la noticia en las revistas vascas publicadas en el siglo XIX. *Le Réveil Basque*, *Eskualduna* y *California'ko Eskual Herria* fueron semanarios de información general que cultivaron el género informativo básico en euskera de manera sistemática y prolongada, pero *Uscal-Herrico Gaseta*, *Escualdun Gazeta* y *Euskalzale* también publicaron noticias. La investigación se basa en un análisis hemerográfico de estas revistas.

Palabras clave: noticia, géneros informativos, géneros periodísticos, historia del periodismo vasco, medios en euskera.

Cet article analyse les débuts du journalisme informatif en langue basque. Il explique quand et comment le genre de la nouvelle a commencé à se développer dans les revues basques publiées au XIX^e^ siècle. *Le Réveil Basque*, *Eskualduna* et *California'ko Eskual Herria* étaient des hebdomadaires d'information générale qui ont cultivé de manière régulière et durable le genre informatif fondamental en basque, mais *Uscal-Herrico Gaseta*, *Escualdun Gazeta* et *Euskalzale* ont aussi publié des nouvelles. La recherche repose sur une analyse hémérographique de ces revues.

Mots-clés : nouvelles, genres informatifs, genres journalistiques, histoire du journalisme basque, médias en basque.

This article examines the early development of informative journalism in Basque language. It describes when and how the news genre began to be cultivated in Basque magazines published in the 19th century. *Le Réveil Basque*, *Eskualduna* and *California'ko Eskual Herria* were general-information weeklies that regularly and consistently developed the basic genre of news in Basque, although *Uscal-Herrico Gaseta*, *Escualdun Gazeta* and *Euskalzale* also published news items. The research is based on a hemerographic analysis of these periodicals.

Keywords: news, informative genres, journalistic genres, history of Basque journalism, media in Basque.

MURUA URIA, Imanol (2026) «From propaganda to news: the beginnings of informative journalism in Basque in the late 19th century», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 71 (2): 143-176.

1 Sarrera
2 Metodologia
3 Auziaren egoera
4 **Emaitzak**
4.1 *Uscal-Herrico Gaseta*
4.2 *Escualdun Gazeta*
4.3 *Le Réveil Basque*
4.4 *Eskualduna*
4.5 *California'ko Eskual Herria*
4.6 *Euskalzale*
5 Ondorioak
Bibliografia

1 Sarrera

Euskarazko kazetaritzaren historia 1880ko hamarkadan hasi zen. Euskaraz testu informatiborik argitaratu zen aurretik, eta euskarazko hedabiderik ere bai aldi labur batez —Xahoren *Uscal-Herrico Gaseta*—, baina, 1886an Pauen *Le Réveil Basque* eta 1887an Baionan *Eskualduna* jaio ziren arte, euskaldunek ez zuten izan aukerarik bertako eta urrutiko gertaeren berri euren hizkuntzan maiztasunez eta modu jarraituan jasotzeko. Hurrengo hamarkada ere emankorra izan zen: 1893an, Los Angelesen, *California'ko Eskual Herria* jaio zen —eta lekukoa hartu, zortzi urte lehenago hiri berean hiru astez baino argitaratu ez zen aldizkariari, *Escualdun Gazeta*ri—, eta, 1897an, Bilbon, *Euskalzale* kultur astekaria.

Le Réveil Basque, *Eskualduna* eta *California'ko Eskual Herria* informazio orokorreko astekariak ziren, eta gaurkotasun informatiboari jarraipena egiten zioten. *Le Réveil Basque* eta *Eskualduna* elebidunak ziren. *Le Réveil Basque*k frantsesez argitaratu zituen artikulu gehienak bere ibilbide osoan, eta *Eskualduna*n ere frantsesak presentzia handia zuen lehen urte haietan, denborarekin euskara guztiz nagusitu zen arren. *California'ko Eskual Herria*, aldiz, euskara hutsean argitaratu zen, *Euskalzale* bezala, baina hau kultura aldizkaria zen; gaurkotasun informatiboari ez zion astez asteko jarraipenik egiten, baina kazetaritza-testuak argitaratu ohi zituen, dibulgazioko eta sormeneko testu ugariagoen artean.

Kazetaritza ideologikoaren garaia zen, eta iritzia eta informazioa nahastea oso ohikoa zen. Oro har, iritzi generoek (gutunak, iritzi-artikuluak) leku handia hartzen zuten. Informazio-generoen artean albistea zen nagusi, baina albistea bezain goiztiarra da kronika euskarazko prentsan, nazioartekoan bezala. Elkarrizketa eta erreportaje oso gutxi argitaratzen ziren garai hartan hizkuntza nagusietan, genero horiek hurrengo mendean garatuko baitziren, eta euskarazko hedabideetan ez zen halakorik plazaratu ez mende bukaera hartan, ez hurrengo mendearen lehen bi hamarkadetan ere (Díaz Noci 1995).

Euskarazko kazetaritza-generoen hastapenei buruzko ikerketa orokorragoaren barruan, euskarazko lehenengo albisteak non, noiz eta nola argita-

ratu ziren argitzea da artikulu honen helburua, eta euskarazko kazetaritza-generoen garapena nazioarteko kazetaritzaren ereduen bilakaeraren testuinguruan kokatzea. Hau da, XIX. mende bukaeran euskaraz argitaratu ziren hedabideek informazio genero oinarrizkoena zer modutan eta zer ezaugarrirekin baliatu zuten argitu nahi du.

2 **Metodologia**

Euskarazko albisteak argitaratu zituzten lehenengo hedabideen azterketa hemerografikoa dago ikerketa honen oinarrian. Sei aldizkariok hartu dira kontuan: *Uscal-Herrico Gaseta* (1848), *Escualdun Gaze*ta (1885-1886), *Le Réveil Basque* (1886-1894), *Eskualduna* (1887-1944), *California'ko Eskual Herria* (1893-1898) eta *Euskalzale* (1897-1899). *Eskualduna* aldizkariaren lehen hamahiru urteak aztertu dira, ez ibilbide osoa.

Aldizkari horien bildumak eskuragarri daude hainbat hemeroteka digitaletan: *Uscal Herrico Gaseta,* Frantziako Liburutegi Nazionaleko Gallica zerbitzuan; *Escualdun Gazeta* eta *California'ko Eskual Herria*, Eusko Jaurlaritzaren *Euskariana* webgunean; *Le Réveil Basque*, Baionako Udalaren Bilketa atarian; *Euskalzale*, Susa argitaletxearen Armiarma zerbitzuaren Euskal Prentsaren Lanak atalean; eta, *Eskualduna*, bai Bilketa atarian, bai Armiarmaren gunean.

Hedabide guztiek XIX. mendean argitaratutako zenbaki guztiak begiratu dira, euskarazko albisteak atzemateko. Beren ibilbide laburragatik edo kazetaren izaeragatik albiste corpus txikia duten hiru hedabideetan, hau da, *Uscal-Herrico Gaseta*, *Escualdun Gazeta* eta *Euskalzale* aldizkarietan, albistetzat jo diren testu guztiak aztertu dira. Ibilbide luzeagoko eta albiste ondare handiagoko beste hiru hedabideetan, argitaratutako albiste guztiak gainbegiratu dira, albisteak argitaratu ohi zituzten atalei erreparatu zaie bereziki, beren ezaugarriengatik esanguratsuenak diren albisteak aztertu dira, eta haien arteko aipagarrienak nabarmendu dira berariaz artikulu honetan.

Ikerketatik kanpo gelditu dira kazetaritzakoak ez diren testuak, hala nola dibulgaziokoak, literatur sorkuntzakoak, eta gai erlijiosoei buruzkoak, baita hedabide elebidunetan frantsesez argitaratutako testuak ere. Iritzi-testu hutsak ere, hala nola iritzi-artikuluak eta gutunak, kanpo utzi dira, baina informatzeko helburuz idatzitako testu hibridoak, informazioarekin batera iritzia ere ematen dutenak, aintzat hartu dira. Albiste ez diren kazetaritza-testuak, hala nola kronikak eta zerbitzu-kazetaritzako atalak, kontuan hartu dira ikerketan, eta batzuetan aipatu ere bai, testuingurua osatze aldera.

Testuak sailkatzeko irizpide gisa generoei buruzko oinarri teoriko klasikoak hartu dira. Batetik, tradizio anglo-saxoian finkatutako bi multzo handiak bereizi dira, *stories* eta *comments*, hau da, kontakizun informatibo eta interpretatiboak, batetik, eta argudiozko kontakizunak, bestetik. Sailkatze hori bat dator van Dijken (1990) diskurtsoaren teorian egiten den bereizketarekin: narrazio eskemako testuak, batetik, eta argudio eskemako testuak, bestetik. Behin argudio testuak baztertuta, Martínez Albertosen (1974) oinarri teorikoen gainean Gomisek (2019) proposatutako sailkapenaren argitan bereizi dira albisteak narrazio eskemako testuen artean eta aztertu dira albiste horien ezaugarriak.

3 **Auziaren egoera**

Oihartzabalen (1990) aurkikuntzari esker dugu *Uscal-Herrico Gaseta*ren berri, Parisko Biblioteka Nazionalean bere bi zenbakiak topatu zituen arte ez baitzegoen Xahoren aldizkariaren berririk. Geroztik, euskarazko kazetaritzaren lehen mugarritzat hartu dute ikerlariek (Díaz Noci 1995; Urkizu 1992). *Uscal-Herrico Gaseta*n plazaratutako hainbat artikulu berrargitaratu zituen Xahoren testu hautatuen bilduman Urkizuk (Chaho 1992).

Los Angelesko *Escualdun Gazeta*ri Díaz Nocik (2001) aitortu dio euskaraz beste inork baino lehen landu izana kazetaritza-hizkuntza ez-erretorikoa, baina testuen kalitatea ez dela oso ona ohartarazi dute Knörrek (1990) eta Arbelbidek (2001).

Testuinguru berean aritu ziren biak, eta kazetaritza-eredu antzekoa landu zuten. Baina, euskarazko kazetaritzaren historiaren ikuspuntutik, ez litzateke bidezkoa izango bataren eta bestearen ekarpena parekatzea. Euskarazko edukiei erreparatuta behintzat, *Eskualduna* askoz ere kazetaritza-produktu hobea zen: euskarazko edukiei lehentasuna ematen zielako; euskarazko kazetaritza-hizkuntza estiloz homogeneoa ontzen lan handia eta oparoa egin zuelako; testuen kalitatea hobea izanik kontakizunek dohain handiagoak zituztelako kazetaritza ikuspuntutik ere, zorrotzagoak, zehatzagoak eta argiagoak zirenez, oro har, estilo erretorikoa gorabehera. «Zonbeit berri», «Petite Chronique» eta «Asteko berriak» ataletan Jean Hiriart-Urrutik eta *Eskualduna*ko beste egileek idatzitako albiste ugariek beste inork baino leku

nabarmenagoa merezi dute euskarazko informazio-generoen hastapenen historian.

Biscailuzen *Escualdun Gazeta*ren leku berean jaio eta garatu zen Goytinoren *California'ko Eskual Herria*, hau da, kazetaritza gero eta informatiboagoa egiten zuten egunkari kaliforniarren testuinguruan, baina zortzi urte geroago. Biscailuzen aldizkariak baino askoz gehiago iraun zuen, eta kalitate handiagoko kazetaritza-produktua egin zuen. AEBetako Alderdi Errepublikanoko kidea zen Goytino, eta ez zuen ezkutatzen, baina *California'ko Eskual Herria* ez zen hedabide alderdikoia, ez zion iritziari lehentasuna ematen eta ez zuen propaganda politikorik egiten. Lehentasuna informazioari ematen zion, euskal diasporako kide guztiei zuzendutako edukiak ematen zituen, joera politiko guztietako irakurleek eroso irakurtzeko modukoak. Informazio-generoak euskaraz beste inork ez bezala landu zituen, kazetaritza estatubatuar garatuagoaren eraginpean: batere iritzirik gabeko albiste asko argitaratzen zituen, hasieratik harira jotzen zuen estilo zuzen eta zehatza baliatzen zuen, hizkuntzaren argitasuna eta laburtasuna lehenesten zituen, eta informazioaren funtsa laburbiltzen zuten izenburuak egin ohi zituen, azpititulu osagarri eta guzti albiste garrantzitsuenetan. *Escualdun Gazeta*k lehenago bezala, *California'ko Eskual Herria*k berri agentzien *depech*en zerbitzua baliatu zuen, eta haietan baliatzen zen estilo zuzen, labur eta argia euskarara ekarri zuen.

Los Angelesen argitaratzen zen, baina euskaraz; Kaliforniako hedabideetatik elikatzen zen, baina baita Euskal Herrikoetatik eta Frantziakoetatik ere. Horregatik, Euskal Herrian eta Frantzian nagusi zen —eta AEBetan oraindik guztiz gainditu gabe zegoen— kazetaritza-eredu ideologikoaren eraginpean ere aritu zen, eta horren arrastoak ere badaude *California'ko Eskual Herria*ren orrialdeetan. Iritziarekin bukatzen ziren albisteak ere argitaratzen zituen, iritzirik gabeko ugariagoen artean, eta estilo erretorikoa ere baliatzen zuen, estilo zuzen eta zehatza baino gutxiagotan bazen ere. Irakurlearen arreta erakartzeko ukitu sentsazionalistako izenburuak eta testuak ere baliatu zituen Goytinoren aldizkariak, baina horrek ez du prentsa sentsazionalistaren eremuan kokatzen; besterik gabe, garai berean bereziki New Yorken Pulitzerren eta Hearsten egunkarien eskutik garatu zen prentsa-

mota horren (Francke 2019; Shaw eta Slater 2019) eragina ere nabari da, neurri apal batean, Goytinoren astekarian.

Hego Euskal Herrian euskara hutsean argitaratu zen lehen aldizkaria izan zen *Euskalzale*, baita informazio genero oinarrizkoena, albistea, euskaraz maiztasunez eman zuen lehena ere. Lehen sei zenbakietan argitaratutako albiste laburren atala euskarazko kazetaritza-hizkuntza argi, labur eta zehatza lantzeko saiakera interesgarria izan zen, Azkueren eskutik. Estiloaren ikuspuntutik, *Euskalzale*ren eredua gertuagoa zegoen *Eskualduna*ren eta *Le Réveil Basque*ren eredu europarretik *California'ko Eskual Herria*ren eredu amerikarragotik baino.

Hortik aurrera, informazioa, interpretazioa eta iritziaren mugetan mugitzen ziren testu ugari argitaratu zituen, kazetaritza narratiboaren eta analitikoaren eremuan kokatzekoak, eta ekarpen sendoa egin zion ildo horretan euskarazko kazetaritza-hizkuntzari. Informazio hutseko albisteen arloan, ordea, ez du ondare handirik utzi, lehenengo hilabete eta erdian astez aste plazaratutako atal bereziaz aparte.

Euskarazko lehenengo hedabideetan informazio-genero oinarrizkoenak, albisteak, zer leku eta bilakaera izan zuen aztertu da artikulu honetan. Horretarako egin den azterketa hemerografikoan atzeman da euskarazko kazetaritzaren lehen aro honetan, albistearekin batera, kronika ere landu zela artikulu honetan aztertu diren hedabide gehienetan. Sinatu gabeko kronikak dira askotan, baina sinatuak ere bai, beste batzuetan. Kronika horiek aztertzeak ekarri dezake argi pixka bat euskarazko kazetaritza-generoen hastapenen historiari buruz.

Bibliografia

ALTZIBAR, Xabier (2002). «*Euskalzale* eta *Ibaizabal* Bilboko asterokoak», *in* Adolfo Arejita, Ana Elejabeitia, Carmen Isasi eta Joan Otaegi (arg.) *Bilbao, el espacio lingüístico: Simposio 700 aniversario*. Deustuko Unibertsitatea.

ALTZIBAR, Xabier (2004). «Hitzaurrea», *in* Jean Hiriart-Urruti, *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*. Labayru Ikastegia.

ALTZIBAR, Xabier (2005). «Zer dakarkio Hiriart-Urrutik euskal kazetaritzari?», *in Txilladegiri omenaldia «nerekin yaio nun»*. Iker bilduma 17. Euskaltzaindia.

ALTZIBAR, Xabier (2008). «*Réveil Basque* astekari errepublikano elebiduna (1886-1894)», *in Jean Haritschelhar-i omenaldia*. Iker bilduma 21. Euskaltzaindia.

ARBELBIDE, Xipri (2001). «Californiako Eskual Herria» *in* Jean Claude Larronde (arg.), *Eugène Goyheneche Omenaldia Hommage*. Eusko Ikaskuntza.

ARBELBIDE, Xipri (2003). *Jean Pierre Goytino*. Bidegileak 30. Eusko Jaurlaritzaren Argitarapen Zerbitzu Nagusia.

ARBELBIDE, Xipri (2007). *Xuri-gorriak*. Elkar.

ARMIARMA. EUSKAL PRENTSAREN LANAK. «Eskualduna» (1887-1944). Azken kontsulta data: 2026-06-02. https://www.hemeroketa.eus/argi.htm

ARMIARMA. EUSKAL PRENTSAREN LANAK. «*Euskalzale*» (1897-1899). Azken kontsulta data: 2026-06-02. https://www.hemeroketa.eus/argi.htm

BIBLIOTÈQUE NATIONALE DE FRANCE. GALLICA. «*Uscal-Herrico Gaseta*» (1848). Azken kontsulta data: 2026-06-02. https://prentsa.bilketa.eus/ark:/12148/bpt6k6266264t

BIDEGAIN, Eneko (2013). *Lehen mundu gerra* Eskualduna *astekarian*. Euskaltzaindia.

BILKETA, EUSKAL FUNTSEN ATARIA. «*Ariel*» (1844-1852). Azken kontsulta data: 2026-06-02. https://www.bilketa.eus/ark:/27020/bi00004

BILKETA, EUSKAL FUNTSEN ATARIA. «*Eskualduna*» (1887-1944). Azken kontsulta data: 2026-06-02. https://prentsa.bilketa.eus/prentsa-motak/tokiko-prentsa/eskualduna

BILKETA, EUSKAL FUNTSEN ATARIA. «*Le Réveil Basque*» (1886-1894). Azken kontsulta data: 2026-06-02. https://prentsa.bilketa.eus/prentsa-motak/tokiko-prentsa/le-reveil-basque

CHAHO, Agosti (1992). *Azti-begia eta beste izkribu zenbait. Patri Urkizuren edizioa*. Klasikoak.

CHALABY, Jean K. (1996). «Journalism as an Anglo-American Invention: A Comparison of the Development of French and Anglo-American Journalism, 1830s-1920s», *European Journal of Communication* 11 (3): 303-326. https://doi.org/10.1177/0267323196011003002

DÍAZ NOCI, Javier (1995). *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1839)*. Eusko Ikaskuntza.

DÍAZ NOCI, Javier (2001). «Historia del periodismo en lengua vasca de los Estados Unidos: dos semanarios de Los Ángeles en el siglo XIX», *Zer: Komunikazio Ikasketen Aldizkaria* 10: 309-329.

VAN DIJK, Teun A. (1990). *La noticia como discurso. Comprensión, estructura y producción de la información*. Paidós.

EUSKARIANA, EUSKADIKO LIBURUTEGI DIGITALA. «*California'ko Eskual Herria*» (1894-1898). Azken kontsulta data: 2026-06-02. https://www.euskariana.euskadi.eus/euskadibib/es/bib/1058678.do?queryId=47149&position=3

EUSKARIANA, EUSKADIKO LIBURUTEGI DIGITALA. «*Escualdun Gazeta*» (1885-1886). Azken kontsulta data: 2026-06-02. https://www.euskariana.euskadi.eus/euskadibib/es/bib/1058673.do

FRANCKE, Warren (2019). «Sensationalism and the Development of 19th-Century Reporting: The Broom Sweeps Sensory Details», *Journalism History* 12 (3-4): 80-85. https://doi.org/10.1080/00947679.19 85.12066609

GOMIS, Llorenç. (2019). *Teoría de los géneros periodísticos*. Universitat Oberta de Catalunya.

GUILLAMET, Jaume (2003). «Por una historia comparada del periodismo. Factores de progreso y atraso», *Doxa Comunicación* 1: 35-56. https://doi.org/10.31921/doxacom.n1a2

KINTANA, Jurgi (2005). «Euskarazko prentsaren hasiera eta garapena Bilbon (1815-1937)», *Bidebarrieta* 16: 141-169.

KNÖRR, Enrike (1990): «De cuando se hacían periódicos vascos en California». *El Diario Vasco*, 1990eko otsailaren 11: 20.

LAFITTE, PIARRES (1941). *Le basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule. Conférence donnnée au Museée Basque de Bayonne le 3 avril 1941*. Aitzina.

LAFITTE, PIARRES (1971). «Aintzin-solasa», *in* Jean Hiriart-Urruty, *Mintzaira, aurpegia: Gizon!* Jakin.

MARTÍNEZ ALBERTOS, José Luis (1974). *Curso general de redacción periodística*. Mitre.

MURUA, Imanol (2022). «Far West en lengua vasca: el periodismo pionero del semanario vasco-americano California'ko Eskual Herria (1893-1898)», *Revista Internacional de Historia de la Comunicación* 18: 142-162. https://doi.org/10.12795/RIHC.2022.i18.09

MURUA, Imanol (2023). «Bertsolariak, erromesaldiak eta naufragioak: Klaudio Otaegiren kronika aitzindariak «Euskal-Erria» aldizkarian (1880-1887)», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 68 (2): 87-115. https://doi.org/10.59866/eia.v2i68.266

MURUA, Imanol (2024). «Euskarazko kazetaritza politikoaren hastapenak: *Le Réveil Basque*-ren ekarpen aitzindaria (1886-1894)», *Uztaro* 131: 85-106.

OIHARTZABAL, Beñat (1990). «Euskarazko kazetaritzaren lehen entseiua: A. Chahoren *Euskal Herriko Gaseta (1848)*», *in* Elixabete Perez Gaztelu eta Patri Urkizu Sarasua (arg.), *Patxi Altunari omenaldia*. Mundaiz 5: 191-207.

SCHUDSON, Michael (2001). «The objectivity norm in American journalism», *Journalism* 2 (2): 149-170. https://doi.org/10.1177/146488490100200201

SHAW, Donald L., SLATER, John W. (2019). «In the Eye of the Beholder? Sensationalism in American Press News, 1820-1860», *Journalism History* 12 (3-4): 86-91. https://doi.org/10.1080/00947679.1985.12066610

STEPHENS, Mitchell (1997). *A history of news*. Harcourt Brace College Publishers.

URKIZU, Patri (1992). *Agosti Chahoren bizitza eta idazlanak (1811-1858)*. Euskaltzaindia.

ZABALTZA, Xabier (2011). *Agosti Xaho. Aitzindari bakartia, 1811-1858*. Bidegileak 62. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Euskararen erabilera eta pedagogia berritzaileak: norabide berean?

Uso del euskera y pedagogías innovadoras: ¿en la misma dirección?

L'usage du basque et les pédagogies innovantes : une même orientation ?

Basque Language Use and Innovative Pedagogies: In the Same Direction?

MINER ASTABURUAGA, Libe
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU
Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saila
libeminerastaburuaga@gmail.com
ORCID: https://orcid.org/0009-0004-7957-4492

DOI: https://doi.org/10.59866/eia.v2i71.351

Ikerketa honek 2025eko Mintzola ikerketa-saria jaso du master amaierako lanen kategorian. Libe Miner Astaburuagak Gizarte eta Hezkuntzako Eremuen Unibertsitate Ikerketa Masterra amaitzeko aurkeztutako lanaren atal bat da, hain zuzen ere.

Jasotze-data: 2025-11-08
Behin-behineko onartze-data: 2026-03-13
Behin betiko onartze-data: 2026-06-18

Euskal hezkuntza-sisteman irakaskuntza nagusiki euskaraz egiten bada ere, ikasleen eguneroko erabilera mugatua da. Artikulu honek irakaskuntza-estrategien eta euskararen hizkuntza-praktiken arteko lotura aztertzen du, behaketak, elkarrizketak eta dokumentuen analisia oinarri hartuta. Emaitzek erakusten dute irakasleek euskararen erabilera sustatzen dutela ikaskuntza gidatuko espazioetan, baina gutxiago esku hartzen dutela zirkulazio libreko eremuetan. Ondorioz, beharrezkotzat jo da autonomia eta euskararen erabilera aktiboa uztartuko dituzten esku-hartze koherenteen beharra.

Hitz-gakoak: hizkuntza-erabilera, hizkuntza-normalizazioa, irakaskuntza elebiduna, praktika pedagogikoa, Lehen Hezkuntza.

Aunque en el sistema educativo vasco la enseñanza se desarrolla principalmente en euskera, su uso cotidiano por parte del alumnado sigue siendo limitado. Este artículo analiza la relación entre las estrategias docentes y las prácticas lingüísticas a partir de observaciones, entrevistas y análisis documental. Los resultados muestran que el profesorado fomenta el uso del euskera en espacios de aprendizaje guiado, pero interviene menos en los espacios de circulación libre. En consecuencia, se señala la necesidad de diseñar intervenciones coherentes que integren la autonomía del alumnado y el uso activo del euskera.

Palabras clave: uso de la lengua, normalización lingüística, enseñanza bilingüe, práctica pedagógica, Educación Primaria.

Bien que l'enseignement se déroule principalement en basque au sein du système éducatif basque, son usage quotidien par les élèves demeure limité. Cet article analyse la relation entre les stratégies pédagogiques et les pratiques linguistiques en basque à partir d'observations, d'entretiens et d'une analyse documentaire. Les résultats montrent que les enseignants favorisent l'usage du basque dans les espaces d'apprentissage guidé, mais interviennent moins dans les espaces de libre circulation. Il apparaît ainsi nécessaire de concevoir des interventions pédagogiques cohérentes conciliant l'autonomie des élèves et l'usage actif du basque.

Mots-clés : utilisation de la langue, normalisation linguistique, enseignement bilingue, pratique pédagogique, enseignement primaire.

Although instruction within the Basque education system is predominantly delivered in Basque, students' everyday use of the language remains limited. This article explores the relationship between pedagogical strategies and students' language practices in Basque through observations, interviews, and document analysis. The findings reveal that teachers employ a range of strategies to encourage Basque use in guided learning contexts, while their intervention decreases considerably in less structured spaces. These results highlight the need for coherent pedagogical approaches that effectively reconcile student autonomy with the active use of Basque.

Keywords: language use, language standardization, bilingual education, pedagogical practice, Primary Education.

MINER ASTABURUAGA, Libe (2026). «Basque language use and innovative pedagogies: in the same direction?», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 71 (2): 177-225.

1 Sarrera
2 Marko teorikoa
3 Ikerketaren kokapena eta testuingurua
3.1 Abiapuntua: metodologia berritzaileak eta hizkuntza
3.2 Herriko testuinguru soziolinguistikoa
3.3 Ikastetxearen deskribapena eta euskararen erabilera
4 Ikerketa-helburuak
5 Metodologia
5.1 Parte-hartzaileak eta lagina
5.2 Datu-bilketarako teknikak
5.2.1 Behaketa parte-hartzailea
5.2.2 Elkarrizketa erdi egituratua
5.2.3 Dokumentuen analisia
5.3 Datu-bilketarako prozedura
5.4 Datuen azterketa eta analisia
6 Emaitzak
6.1 Ikastolaren hezkuntza-ikuspegiaren printzipio pedagogikoak
6.2 Irakaslearen esku-hartzea eta estrategia pedagogikoak
6.3 Irakasleen pertzepzioak euskararen erabilerari buruz
7 Ondorioak
Bibliografia

1 Sarrera

Euskal Herriko errealitate soziolinguistikoak eraldaketa sakona bizi izan du azken mendean. Paisaia demografikoa, soziala eta linguistikoa dinamikoa izan da beti, eta bilakaera horretan euskararen eta gaztelaniaren arteko bizikidetza-modu berriak sortu dira, ordezkapen- zein indarberritze-prozesuek eta, azken bi hamarkadetan, geldotzearen aroak markatuta. Iurrebasok eta Goikoetxeak (2025) adierazten duten bezala, euskararen ibilbide historikoa lineala edo espontaneoa izatetik urrun, garai bakoitzeko tentsio soziopolitikoen eta belaunaldiz belaunaldi berrasmatzen jakin duen komunitate baten erresilientzia-gaitasunaren isla da. Autore horien esanetan, frankismoak, 1960ko eta 1970eko hamarkadetako industrializazioak eta migrazio-fluxuek euskararen belaunaldien arteko transmisioa eten bazuten ere, garai hartatik aurrera suspertze-korronte indartsua sortu zen, euskara batua sendotzearekin, gerraosteko ikastolak sortzearekin eta euskal kultura loratzearekin batera.

Hala ere, XXI. mendearen hasierak nolabaiteko geldotzea ekarri du euskararen erabileran, 2001ean etxean euskara jasotako umeak % 20 izatetik 2021ean % 19ra igaro baitira (Iurrebaso eta Goikoetxea 2025). Era berean, Soziolinguistika Klusterraren hizkuntzen erabilerari buruzko azken kaleko neurketaren arabera, herritarren % 12,6k erabiltzen du euskara, 2006an neurtutako % 13,7aren azpitik (Altuna *et al.* 2022). Ondorioz, euskararen eta gaztelaniaren koofizialtasuna gorabehera, oraindik ere desoreka handiak daude ezagutzari, erabilerari eta prestigio sozialari dagokienez (Aierdi eta Ruiz 2024). Gaztelaniak posizio hegemonikoa du komunikazio-eremu gehienetan, eta euskarak hizkuntza minorizatua izaten jarraitzen du (Quintanilla 2014).

Desoreka horiek eragin zuzena dute hezkuntzaren esparruan. Eskola hizkuntza-normalizaziorako funtsezko sozializazio-esparrua bada ere (Kasares 2017), euskararen erabilerak mugatua izaten jarraitzen du eskola-bizitzako zenbait eremutan (Altuna *et al.* 2022). Gainera, bereziki kezkagarria da arnasgune deritzen euskaldunen kontzentrazio handieneko eremuetan honek izan duen beherakada (Iurrebaso 2019). Soziolinguistika Klusterraren (2022) arabera, 2017tik 2021era bitartean, euskararen

erabilera % 86,4tik % 83,3ra jaitsi da % 90 baino gaitasun handiagoa duten udalerrietan eta % 82,1etik % 79,2ra % 80 eta % 90 bitartekoa dutenetan. Nahiz eta % 70 eta % 80 arteko edukiera duten udalerrietan igoera txiki bat erregistratu den % 53,9tik % 55era, joera orokorrak beheranzkoa izaten jarraitzen du. Jaitsiera hori erronka garrantzitsua bihurtu da herri horietako ikastetxeentzat, ikasleen artean euskararen erabilera murrizten ari dela hauteman baitute, ikasleen hizkuntza-profilak aldatu eta etxeko hizkuntza euskara duten haurren kopurua jaitsi delako, besteak beste (Saragüeta eta Garaio 2022).

Euskal hezkuntza-sistemaren zutabe nagusia den murgiltze osoko D eredua euskalduntze-prozesuan funtsezkoa izan bada ere, azken ebaluazio diagnostikoak (ISEI-IVEI 2023a) agerian uzten du euskararen ezagutzamailaren eta erabileraren arteko aldea kezkagarria dela, nagusiki eskolainguruneko testuinguru informaletan. Izan ere, hizkuntza bat menderatze hutsak ez du hizkuntzaren praktika aktibo eta jarraitua bermatzen.

Errealitate horren aurrean, eta euskarari eragiten dioten muga eta desoreka soziolinguistikoak aintzat hartuta, euskal hezkuntza-sistemak zeregin erabakigarria du hizkuntza gutxitu horren ikaskuntza, sozializazioa eta erabilera sustatzeko (Amonarriz 2019). Eskolak, sozializatzeko espazio pribilegiatu gisa, hizkuntza-kultura inklusiboa sustatu behar du, euskara hezkuntza-komunitateko eragile guztien arteko eguneroko harremanetarako hizkuntza gisa indartuko badu. Helburu hori lortzeko, ezinbestekoa da testuinguruan kokatutako eta ikasleen aniztasunari egokitutako eskuhartze pedagogikoak diseinatzea eta ezartzea, euskara erabiltzeko benetako aukerak areagotzeko (Eusko Jaurlaritza 2018). Hau da, ekitatea eta inklusioa bermatuko duten erantzun pedagogikoak behar dira, ikasle guztiek, beren hizkuntza-jatorria edozein dela ere, euskarazko gaitasun-maila egokia eskuratzeko eta hizkuntza egunerokoan erabiltzeko (Euskararen Aholku Batzordea 2024).

Azken urteotan, euskarak hezkuntza-sisteman duen presentzia indartzeko ahaleginekin batera, hezkuntza-paradigmak ikasleen autonomian eta espazioaren, denboraren eta harreman pedagogikoen antolaketa malguan oinarritzen diren metodologia pertsonalizatuagoak eta aktiboagoak hobes-

ten ditu. Hala ere, ikuspegi berri horiek ikasleen euskararen erabileran duten eraginari buruzko ikerketak urriak dira oraindik ere, eta horrek hizkuntza-praktiketan eta ikasgelako hizkuntzaren eguneroko bizipenean duten eraginari buruzko galderak eta kezkak azaleratzen ditu. Hutsune hori bereziki esanguratsua da euskal eskola asko proposamen berritzaileak txertatzen ari diren une honetan.

Esparru horretan kokatzen da ikerketa hau, zeinaren helburu nagusia egungo eskola batean nagusi diren metodologia pedagogikoen eta euskararen ahozko erabileraren arteko harremana aztertzea baita. Artikulua *Euskararen erabilera ikaskuntza gidatuko espazioetan eta zirkulazio libreko eremuetan: Gipuzkoako Lehen Hezkuntzako kasu-azterketa bat* izeneko master amaierako lanaren parte da. Bertan, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) eskola bateko ikaskuntza-espazioetan euskararen erabilerari buruzko azterketa sakona egin da. Hizkuntza-normalizazioarekiko konpromiso instituzional eta komunitario sendoa dagoen arren, aztertutako ikastetxean ikasleen artean euskararen eguneroko erabilera pixkanaka murrizten ari dela ikusi da, eta horixe da irakasleen kezka nagusietako bat. Kezka hori, hain zuzen ere, proiektu pedagogiko berritzailea duen ikastetxe batean agertzen da, eta horrek areagotu egiten du errealitate horren arrazoiak aztertzeko beharra. Era berean, gai honi buruzko lan gutxi egoteak (Barquín 2024; Iruskieta eta Huarte 2025) indartu egin du erronka horri hezkuntzaren ikuspegitik heltzeko interesa.

2 **Marko teorikoa**

Hizkuntzen psikopedagogia irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuen diziplina anitzeko ikuskera batean oinarritzen da (Etxeberria 2003). Ikuskera hori paradigma soziokonstruktibistan errotuta dago, eta ikasleen zeregin aktiboaren eta interakzioaren bidez ezagutza batera eraikitzearen garrantzia azpimarratzen ditu. Esparru horretan, erabilitako metodologiak eta estrategiak, ikasgelako interakzioen kalitatea eta ikastetxearen antolaketa pedagogikoa erabakigarriak dira hizkuntza-garapenerako.

Hizkuntza bat ikastea, batez ere, bigarren hizkuntza bat, prozesu konplexua da, hizkuntzarekiko esposizioaz gain, testuinguru esanguratsuetan erabiltzeko aukerak eskatzen dituena. Krashenen (1985) arabera, input ulergarria jasotzea hizkuntza ikasteko nahikoa den arren, ez da hala (Larrea eta Bourgeaud 2007; Swain 1995). Kantitate aldetik ugaria eta kalitateari dagokionez ulergarria behar du izan, baita motibagarria, ikasleen interesetatik hurbil dagoena eta lanerako sustagarria ere. Aitzitik, output ulergarria, hau da, ikasleak bere xede-hizkuntza horretan hipotesiak probatzeko eta analizatzeko aukera izatea, ezinbestekoa da komunikazio-trebetasunak sendotzeko (Swain 1995).

Alde horretatik, erabilera aktiboak beharrezkoak dira ikasleek euren hizkuntza-ezagutzak testuinguruan praktikan jartzeko, esanahiak negoziatzeko eta berrelikadura eraikitzailea jasotzeko (Behney eta Gass 2021). Komunikazio-egoera esanguratsuak sortzea, beraz, irakaskuntza-plangintza sistematiko baten parte izan behar da (Larrea eta Bourgeaud 2007) eta alderdi metodologikoak zein didaktikoak birplanteatzea ekarri behar du (ISEI-IVEI 2023b). Horrek esan nahi du hizkuntza-erabilerarako testuinguru aberatsak, askotarikoak eta ikasleen ingurunera egokituak sortu behar direla, parte-hartze aktiboa sustatzen duen ikuspegi didaktikoarekin, ikaskuntza aberasteko eta esku-hartze egokiak bideratzeko (Huarte eta Ozerinjauregi 2012).

Euskararen kasuan, premia hori handiagoa da. Etxeberriak (2003) adierazten duen bezala, euskal hezkuntza-sistemak zeregin aktiboa du hizkuntza biziberritzeko, haur asko euskaraz behar adina jakin gabe iristen baitira eskolara. Testuinguru horretan, eskolak, hizkuntza-input egokia emateaz gain, hizkuntza-sozializazioa eta euskalduntzea erraztuko duten kalitatezko interakzio-aukerak ziurtatu behar ditu (Garcia-Azkoaga *et al.* 2020). Ahozkotasunaren tratamenduak zeharkakoa izan behar du curriculum-arlo guztietan, bai elkarrekintza espontaneoen bidez, bai komunikazio-egoera egituratuen bidez (Garcia-Azkoaga *et al.* 2021). Hau da, edozein ikas arlo eta egoera trebetasun linguistikoak eta ahozko komunikaziorako konpetentzia garatzeko aukera bihurtu behar da (Zabala 2018).

Irakasleen esku-hartzea, beraz, ikasle guztien parte-hartzea erraztuko duten ingurune inklusiboak sortzera bideratu behar da. Horretarako, hizkuntza-helburu argiak ezartzea; formatu desberdinetara, hots, talde handira, talde txikietara eta elkarrekintza indibidualetara egokitutako interakzio-egoerak diseinatzea; eta irakasleen parte-hartzea orekatzea funtsezko elementuak dira (Huarte eta Ozerinjauregi 2012; Iruskieta eta Huarte 2025). Esparru horretan, plangintza didaktikoak malgua izan behar du, taldeko eta banakako errealitateetara egokitua, esku-hartze kolektiboak banakako jarraipenarekin konbinatuta. Horri esker, ikasleen komunikazio-gaitasunaren maila zehaztasunez behatzeaz gain, ikasleen motibazioa sustatu eta egiten duten ahalegina baloratu daiteke (Etxeberria 2003). Irakasleak, bitartekari gisa, denek adierazteko eta entzunak sentitzeko aukera izango duten espazioak bermatu behar ditu.

Hori lortzeko, ezinbestekoa da elkarrekintza eta hizkuntza-garapena sustatuko duten estrategia pedagogiko egituratuak txertatzea. Horien artean, orientazio-estrategiak nabarmentzen dira, erantzunak gehiago lantzera bultzatzen duten galdera irekiak eta iruzkin gogoetatsuak, alegia. Ikasleek modu laburrean erantzuten dutenean, errazte-estrategiak sartzen dira jokoan, beren ideietan sakontzea ahalbidetzen baitute birformulazioen, galdera gidatuen edo esanahien egiaztapenaren bidez (Huarte eta Ozerinjauregi 2012). Era berean, informazio-estrategiek hizkuntza-egitura konplexuagoak moldatzen laguntzen dute, ideiak adierazteko adibide argiak eta askotarikoak eskainiz (Garcia-Azkoaga *et al*. 2021); eta indartze-estrategiek, hots, berrelikadura positiboak, motibazioa eta konpromisoa indartzen dituzte (Etxeberria 2003). Azkenik, amaiera-estrategiek esku-hartzeen itxiera eraginkorra errazten dute interesa transmitituz (Huarte eta Ozerinjauregi 2012). Oro har, estrategia horiek, komunikazio-gaitasuna garatzeaz gain, lotura pedagogikoa indartzen dute ikaskuntza-ingurune seguru eta aberasgarri batean.

Ikuspegi horretatik, irakaslearen zeregina edukien transmisio hutsetik askoz haratago doa. Hizkuntza- eta kognizio-bitartekari gisa, bere esku-hartzeak diskurtsoa modelatzea, hitz egiteko txandak kudeatzea, hausnarketa metalinguistikoa sustatzea eta interakzioaren elementu guztiak zaintzea dakar: hitzezko hizkuntzatik espazioaren eta denboraren anto-

lakuntzaraino (Zabala 2018). Planifikatutako ekintza hori ezagutza soziolinguistiko sakonean oinarritu behar da, ez soilik maila fonetikoan, morfosintaktikoan edo semantikoan, baita testuan, diskurtsoan eta arlo soziolinguistikoan ere (Euskararen Aholku Batzordea 2024). Maisuaren edo maistraren hizkuntzak, isiluneek, galderek eta espazioa, denbora, baliabideak eta taldeak antolatzeko moduak eragin zuzena dute interakzioen kalitatean eta hizkuntza-garapenean.

Esku-hartze horren plangintza aldamioaren teorian oinarritzen da, Vygotskyk proposatutako Garapen Hurbileko Eremuaren kontzeptua ardatz hartuta (Barléon eta Gentilhomme 2008). Teoria horrek proposatzen du irakasleek ikaskuntza ikasleen beharretara egokitutako laguntza estrategikoen bidez erraztea, ikasleak gidatuko dituzten egungo konpetentzietatik hizkuntza ulertzeko eta erabiltzeko maila aurreratuagoetara. Aldamioak hiru dimentsio osagarri ditu.

Alde batetik, aldamio afektiboaren helburua komunikazio-segurtasuneko giroa sortzea da, ikasleen parte-hartzea errazteko, bereziki, hizkuntza-gaitasun txikiagoa dutenena edo hitz egitera ausartzen ez direnena (Iruskieta eta Huarte 2025). Keinuen, begiraden, jarrera harkorren, ahots-tonuaren eta haur bakoitzaren erritmoarekiko errespetuaren bidez, irakasleek funtsezko laguntza emozionala eskaini behar dute ahozko adierazpena eta hizkuntzaren ulermena errazteko. Ikasleak afektiboki gustura eta eroso sentitu behar du irakaslearen esku-hartzearekiko eta bere ikaskideen jarrerarekiko, horrek bere ulermen- eta ekoizpen-prozesuetan lagunduko du eta (Zabala 2018). Horretarako, funtsezkoa da errespetuzko harremanak sustatzea, aktiboki entzuten irakastea eta partaidetza-dinamikak antolatzea, haur bakoitzaren ezaugarriak eta premiak kontuan hartuta.

Bestalde, hizkuntzaren erabilera lantzeko aldamioa birformulazioa bezalako estrategietan gauzatzen da, horren bidez, irakasleek ikasleen ekoizpenak aberasten, argitzen edo berregituratzen baitituzte, modu inbaditzailean zuzendu gabe (Huarte eta Ozerinjauregi 2012). Esku-hartze horiek hainbat eratakoak izan daitezke, hots, ordezkapenak, baturak, laburpenak edo berregituraketak, eta sintaxia, fonologia eta hiztegia hobetzeko aukera ematen dute. Gainera, beste laguntza batzuek, hala nola hitzak aurreratzeak, adibi-

deak emateak edo kideak birformulatzera gonbidatzeak, parte-hartze aktiboa eta gogoetatsua sustatzen dute. Ildo horretan, interakzioan hizkuntzari erreparatzea, besteak beste, erantzun landuagoak edo forma zuzena eskatzea, lexikoa egokitzea, galdera metalinguistikoak planteatzea, zuzenketa esplizituak egitea edo momentu jakin batean gaizki esandakoa errepikatzea, funtsezkoa da ezagutza partekatua eraikitzeko eta komunikazio-konpetentzia garatzeko (Zabala 2018).

Azkenik, aldamio kognitiboaren helburua hizkuntzari eta hizkuntzaren erabilerari buruzko hausnarketa kontzientea sustatzea da, hainbat komunikazio-testuingurutan. Galderen, testuinguru-erreferentzien edo diskurtsoaren plangintzaren bidez, irakasleek ikasleei laguntzen diete solaskideari, testuinguruari eta komunikazio-asmoari egokitutako hizkuntza-erabakiak hartzen (Huarte eta Ozerinjauregi 2012). Esku hartzeko mota hori estrategikoagoa da, eta hizkuntzaren balioa ulertzen laguntzen du, pentsatzeko, adierazteko eta argudiatzeko tresna gisa.

Ildo beretik, hezkuntza eleaniztunaren esparruan, *translanguaging*a funtsezko estrategia pedagogikoa da. Ikuspegi horrek espazio eta denbora berean bi hizkuntza edo gehiago modu sistematikoan eta integratuan erabiltzea sustatzen du, helburu didaktikoekin (Leonet *et al*. 2017). Hura ezartzeak, ikasleen kontzientzia metalinguistikoa eta komunikazio-gaitasuna indartzeaz gain, ikaskuntza-harreman aberasgarriak errazten dituzten interakzio-egiturak sortzea ahalbidetzen du, baita komunikazio-errepertorioak zabaltzea eta trebetasun akademikoak sustatzea ere (Amondarain-Garrido eta Ruiz de Zarobe 2025). Haatik, eskola-praktikan oraindik ere metodologia elebakarrak nagusitzen dira, eta hori da eskola eleaniztunen erronka nagusietako bat: ikasle guztien hizkuntza-errepertorioak erabat integratuko dituzten hezkuntza-ereduetarantz aurrera egitea (Gartziarena *et al*. 2023).

Ikuspegi praktikotik, *translanguaging*ak bi dimentsio osagarri ditu: pedagogikoa eta espontaneoa (Cenoz eta Gorter 2017). Autore horien arabera, *translanguaging* pedagogikoak hainbat hizkuntzaren erabilera sustatzeko eta ikaskuntza optimizatzeko planifikatutako jarduerak eskatzen ditu eta, *translanguaging* espontaneoak, berriz, ikasle elebidunen praktika malgua islatzen

du, kontzientzia metalinguistikoa eta komunikazio-gaitasuna bultzatuz. Bi modalitate horiek artikulatzeak aukera ematen du hizkuntza-mugak gainditzeko eta ikaskuntza inklusiboagoa sustatzeko. Hala ere, Euskal Herria bezalako testuinguruetan, planifikatu gabeko erabilera batek hizkuntza nagusia indartu dezakeenaren kezka sortzen du, minorizatuaren kaltetan (Leonet *et al*. 2017).

Hori guztia kontuan izanda, hizkuntzaren didaktikaren barruan estrategia didaktiko oro eraginkorra izan dadin, irakasleek arreta berezia jarri behar diote lantaldeen antolamenduari, horrek zuzenean eragiten baitu ikasgelan sortzen diren hizkuntza-praktiketan. Literatura zientifikoak ez ditu gomendatzen gaitasun-mailaren araberako taldekatze homogeneoak, desberdintasunak betikotzeko joera baitute (Belfi *et al*. 2012). Lehen Hezkuntzako lehen, bigarren edo hirugarren mailako ikastaldeetan, irakurketa- eta idazketa-mailaren zein ezagutza matematikoen araberako taldeak ohikoak badira ere, horiek arretaz kudeatu behar dira aldeak ez areagotzeko. Aitzitik, talde heterogeneoak, ondo planifikatuak eta lan kooperatibora bideratuak, eraginkorrak dira hizkuntza-gaitasunen garapena sustatzeko, bigarren hizkuntza bat ikasteko eta hizkuntzaren erabilera iraunkorra sustatzeko (Calatayud 2018).

Anterok (2016) taldekatze eraginkorrak eratzeko kontuan hartu beharreko hainbat aldagai zehazten ditu, besteak beste, dominantzia-mota, lotura-mota, adimen-mota, profil linguistikoa, sexu- eta genero-aniztasuna, eta adinen arteko komunikazioa. Euskal testuinguruan, arreta berezia merezi du profil linguistikoak, hezkuntzaren egiteko nagusia pertsona euskaldun konpetenteak garatzen laguntzea baita. Hori dela eta, lider linguistikoak identifikatzea ezinbestekoa da, hau da, euskararekiko motibazioa, euskaraz jarduteko jariotasuna eta euskara erabiltzeko joera duten ikasleak. Lider horiek erreferente gisa jarduten dute eta kutsatze-efektua sortzen dute taldean euskararen erabilera eta motibazioa sustatzeko, baita irakaslerik presente ez dagoenean ere (Antero 2016). Horregatik, taldekatzeek irizpide inklusiboei, malguei eta dinamikoei erantzun behar diete, familia-hizkuntza ez ezik, konpetentzia-maila eta benetako gizarte-interakzioak ere aintzat hartuta.

Era berean, irakasleen pertzepzioak faktore erabakigarria dira euskararen garapenean. Maisu-maistra batzuen ustez, gero eta zailagoa da hizkuntza horretan komunikazio-ingurune eraginkorra bermatzea (Martinez de Luna eta Suberbiola 2020). Pertzepzio horiek eragin zuzena dute irakaskuntzaren kalitatean, esku-hartzeen diseinuan eta ikasleen ebaluazioan (Román *et al.* 2020). Gehienek onartzen dute eskola dela hizkuntza-normalizazioaren eragile nagusia, baina oraindik ere uste dute euskara ez dela erabat finkatuta dagoen erabilerara iristen eremu guztietan (Valadez *et al.* 2015). Horregatik, irakasleen jarrera positiboa eta konpromisoa funtsezkoak dira euskararen erabilera jasangarria sustatzeko eta ikasleen hizkuntza-errepertorio eleaniztunak eraginkortasunez integratzeko.

Beraz, testuinguru soziolinguistiko gero eta askotarikoagoan, euskal hezkuntza-sistema euskararen erabilera, motibazio eta ahalduntze linguistikorako espazio gisa finkatu behar da (Hernández 2005). Irakasleek hizkuntza-bitartekari gisa, ingurune seguruak sortzeko eta euskararen ikaskuntza eta erabilera bultzatuko dituen input esanguratsua hornitzeko zeregina dute, ikasleak hizkuntzaren erabileran ahalduntzeko.

3 **Ikerketaren kokapena eta testuingurua**

3.1 **Abiapuntua: metodologia berritzaileak eta hizkuntza**

XIX. mendearen amaieratik gaur arte, hezkuntzak eraldaketa sakona izan du, eredu tradizionaletatik, autoritarioetatik eta memoristikoetatik ikasleak ikaskuntzaren erdigunean jartzen dituzten proposamen pedagogikoetara eboluzionatu du eta. Paradigma soziokonstruktibistan oinarrituta, metodologia aktiboek ikasleen parte-hartzean, autonomian eta garapen integralean oinarritutako irakaskuntzaren alde egiten dute.

Ikuspegi horrekin bat etorriz, Euskal Herriko eskola askok metodologia berritzaileak txertatu dituzte azken urteotan, autonomia, malgutasuna eta aniztasunarekiko arreta lehenesten dituztenak, hala nola zirkulazio librearen, mugimendu autonomoaren eta konfiantzaren pedagogiaren ereduak. Eredu horiek ikaskuntza-esparru irekia eta malgua proposatzen dute, ikas-

leek espazioak, jarduerak eta lan-erritmoak beren interesen arabera hauta ditzaten. Haurrak autonomo, aske eta babestuta sentiaraziko dituen ingurune bat sortzea dute helburu, beren interes eta erritmoen arabera ikasteko, eta, horrela, ikasleen garapen integrala sustatzeko. Hala, aukera ematen die ikasleei aurrez diseinatutako testuinguru aberats batean, ikaskuntza-espazioak, jarduerak zein jolasean oinarritutako praktikak aukeratzeko, beren ikaskuntza-prozesuan parte-hartze aktiboa sustatuz[1].

Azken urteotan, euskal hezkuntza-sisteman zirkulazio librearen eredua haurren autonomia sustatzeko estrategia metodologiko gisa ezarri bada ere, oraindik gutxi dira euskara bezalako hizkuntza gutxituen ikaskuntzan eta erabileran duen eragina aztertu duten ikerketak (Iruskieta eta Huarte 2025). Alabaina, zirkulazio librearen izaera autonomoak euskararen ikaskuntza eta erabilera muga ditzakeen ikertzeko beharra azaleratu du Barquínek (2024). Izan ere, Pérezek (2022) ohartarazi du espazio horietan irakasleen esku-hartzea gutxitzeak lehendik dauden desberdintasunak erreproduzitu edo areagotu ditzakeela. Euskal testuinguru soziolinguistikoari aplikatuta, planteamendu horrek iradokitzen du eskolatik kanpo euskararekiko esposizio txikiena duten ikasleei eragin diezaiekeela bereziki (Barquín 2024), gaztelaniaren presentzia nagusiak eta euskararen erabilera sustatzeko jardun didaktikoaren aldakortasunak, hizkuntza-gaitasunaren garapenean ondorioak izan baititzake.

Orain arte, euskararen eskola-eremuko erabilerari buruzko ikerketek, bereziki, Arrue Proiektuak (2011-2017), informazio baliotsua eman dute hezkuntza-testuinguru desberdinetako hizkuntza-erabileraren ereduei buruz. Azterlan horrek hizkuntzaren erabilera-maila aztertu zuen ikasgelan eta jolastokian, berdinen arteko interakzioetan nahiz irakasleekiko harremanetan arreta jarriz. Datuek agerian utzi zuten euskarak presentzia handiagoa duela ikasgela bezalako testuinguru gidatu eta arautuetan, eta nabarmen murrizten dela jolastokia bezalako espazio espontaneo eta

[1] Paragrafo honetan, zirkulazio librearen, mugimendu autonomoaren eta konfiantzaren pedagogiaren ereduek partekatzen dituzten ezaugarriak deskribatu dira. Hala ere, zirkulazio librearen ereduak ez du sistematizazio teoriko finkorik eta haren kontzeptualizazioa aldatu egiten da hura aplikatzen duten ikastetxeen arabera.


informaletan (Martinez de Luna eta Suberbiola 2020). Era berean, ondorioztatu zen ikasleek gehiago erabiltzen dutela euskara irakasleekin, ikaskideekin baino. Joera hori azken ebaluazio diagnostikoaren emaitzek ere berretsi dute (ISEI-IVEI 2023b). Hala ere, ikerketa horiek ez dute aztertu hezkuntza-testuinguru, -metodologia eta antolaketa-eredu berriek hizkuntza-erabileraren aldaketa horretan duten eragina, eta horrek ageriko hutsunea uzten du eskola-inguruneko euskararen egungo dinamikak ulertzeko.

Testuinguru horretan, ezinbestekoa da hausnartzea ikasleen autonomia hizkuntza-ekitatea bermatuko duen esku-hartze hezigarri baten bidez antolatzeko moduari buruz. Zirkulazio libreak, beste proposamen pedagogiko berritzaile batzuek bezala, jarduera-esparruak eta estrategia pedagogikoak behar ditu curriculumeko hizkuntzetarako sarbide zuzena bermatzeko, batez ere hizkuntza horietako bat minorizatua denean. Hori dela eta, funtsezko azterketa-eremua da eskola-inguruneko euskararen erabilera ulertzeko eta irakaskuntza-praktikak hizkuntza-biziberritze ekitatiboago baterantz bideratzeko.

3.2 **Herriko testuinguru soziolinguistikoa**

Ikerketa Gipuzkoako lurralde historikoan dagoen eta 4000 biztanle inguru dituen herri batean egin da (Eustat 2024). Azken urteetan herriko bilakaera demografikoa nahiko egonkorra izan bada ere, biztanleria-egiturak aldaketa esanguratsuak izan ditu azken mendean. INEren (2021) datuei erreparatuz, 1950eko hamarkadaz geroztik eta, bereziki, 1960koaz geroztik, eskualdeko industrializazio- eta hedapen-prozesuari lotutako biztanleriaren hazkunde nabarmena gertatu zen. 1960 eta 1970 artean biztanleria ia bikoiztu egin zen, 1541 biztanle izatetik 3108 izatera igaro baitzen, neurri handi batean Espainiako Estatuko beste eremu batzuetatik etorritakoei esker. Barne migrazio-fluxu horrek 1980ko hamarkadara arte jarraitu zuen, orduan 4392 biztanle izatera iritsi baitzen. 1990eko hamarkadan, populazioak behera egin zuen eta XXI. mendeko lehen urteetan, berriz, egonkor mantendu da (ikus 1. irudia).


1. irudia. Herriko biztanleriaren bilakaera (1842-2021)



Iturria: INE 2021.

Azken hamarkadetan, migrazio-dinamikak profil berri bat hartu du. Iraganean hazkundea batez ere Estatuko beste eskualde batzuetatik etorritako barne-immigrazioari lotuta zegoen bitartean, gaur egun atzerrian jaiotakoen hazkundea nabarmentzen da, % 12,1era iritsi baita, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) eta eskualdean ikusitako joera orokorraren ildotik (Eustat 2024). 2. irudian ikus daitekeenez, 1988an udalerrian bizi ziren atzerritar jatorrikoak % 0,1 baino ez ziren, eta ordutik etengabeko hazkundea izan du.

2. irudia. Jatorri atzerritarreko biztanleen bilakera, herrian (1998-2024)



Iturria: Eustat 2024.


Herria kokatuta dagoen eskualdea Euskal Herriko euskararen ezagutza-maila altuenak dituenen artean dago eta herria, UEMAren kide da, hots, Gipuzkoako arnasguneetako bat. Zalbideren (2019) arabera, arnasgunetzat hartzen da biztanleen % 70ek baino gehiagok euskara menderatzen eta erabiltzen duen udalerria. Euskaraz dakite bertako herritar gehienek eta, bereziki, eguneroko mintzajardunean euskaraz aritzen dira euren artean.

Hain zuzen ere, udalerriko euskararen ezagutza-maila % 69koa da. Balio hori 4 puntu beherago dago eskualdeko batezbestekoa baino (% 73); aitzitik, Gipuzkoakoa (% 57) eta EAEkoa (% 27) baino handiagoa da (Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkartea 2023).

Euskararen erabilerari dagokionez, 2023an herrian egindako kaleko erabileraren neurketaren arabera, herriko interakzioen % 52,3 euskaraz egin ziren, % 43,4 gaztelaniaz eta % 4,3 beste hizkuntza batzuetan (Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkartea 2023). Dena dela, udalerriko euskararen erabilera eskualdeko batezbestekoaren azpitik dago (% 60), nahiz eta nabarmen gainditzen dituen EAEkoa (% 13) eta Gipuzkoakoa (% 31).

Halaber, sexuaren arabera aldaketa esanguratsurik hautematen ez den arren, begien bistakoa da euskararen erabilera adinaren arabera aldatzen dela (Soziolinguistika Klusterra 2022). 3. irudian ikusten den bezala, 2023ko neurketan gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak (% 72); jarraian haurrak (% 67), heldu gazteak (% 50), heldu nagusiak (% 39) eta, azkenik, adinekoak % 37arekin (Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkartea 2023).


3. irudia. Hizkuntzaren erabilera herrian 2023an, adin-taldeen arabera



Iturria: Galtzaundi 2023.

Euskararen erabilerak haurren artean izan duen bilakaera asko aldatu da azken hamarkadetan. Egindako lehen neurketetan, 1993-1994 eta 1995-1997 bitartean, erabilera nabarmen handitu zela ikusi zen, eta 2001-2003 eta 2005-2007 urteetan iritsi zen puntu gorenera (ikus 4. irudia). Harrezkero, ordea, beheranzko joera izan du, aldi desberdinetan gorabeherak izan badira ere (Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkartea 2023). Datu berrienek beherakada hori berresten dute, 2019an euskararen erabilera % 79,01ekoa izatetik 2021ean % 73ra eta 2023an % 68ra igaro baita. Bilakaera horrek haurren hizkuntza-ohituren aldaketa islatzen du, eta udalerrian euskara sustatzeko erronkak planteatzen ditu.

4. irudia. Haurren euskara-erabileraren bilakaera herrian (1993-2023)



Iturria: Galtzaundi 2023.

Ibarrako Udalak, Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkartearekin eta UEMArekin lankidetzan, Euskara Biziberritzeko 2023ko Plana garatu du, udalerriko hainbat esparrutan euskararen presentzia indartzeko helburuarekin (Udala 2023). Jarduera-ildo nagusiak honako hauek dira: belaunaldien arteko transmisioa, gurasoen eta seme-alaben artean aldeko hizkuntza-ohiturak sustatuz; irakaskuntza eta hezkuntza-komunitatearen ahalduntzea; eta euskalduntzea eta alfabetatzea, herritar guztiek, batez ere iritsi berriek, euskara ikas dezaten errazteko. Horrez gain, administrazioan euskararen normalizazioa, arlo sozioekonomikoaren sustapena eta aisialdian, kirolean eta kulturan euskararen erabilera areagotzea lantzen dira. Azkenik, planak sentsibilizazio-ekintzak ere jasotzen ditu, herritarrak euskararen erabileran aktibatzeko eta ahalduntzeko kanpainekin.

3.3 **Ikastetxearen deskribapena eta euskararen erabilera**

Ikerketa hau Ikastolen Irakaskuntza Kooperatiba Elkarteko ikastetxe batean egin da. Euskal Herriko Ikastolen mugimenduak sortutako itunpeko erakundea da eta, kasu honetan, herriko hezkuntza-eskaintza bakarra, 500

ikasle inguruz eta bi lerroz osatua. Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2 urtetik 16 urtera bitarteko ikasleen kalitatezko heziketa euskalduna, integrala eta etorkizunera egokitua eskaintzen du, D ereduan. Izan ere, hezkuntza-erakunde euskaldun gisa definitzen denez, euskara da bertako hizkuntza ofiziala, euskal hiztun osoak eta kontzienteak heztea baitu helburu. Horretarako, euskaran ardazturiko praktika, hizkuntzen trataera integralean eta integratuan oinarritzen da.

Era berean, denentzako eskola inklusiboarekin identifikatzen da eta ikasle guztien aukera-berdintasuna ziurtatzeko ahalegina egiten du metodologia ludikoen, parte-hartzaileen eta inklusiboen bidez, ikasleak akademikoki eta pertsonalki osotasunez gara daitezen. Gainera, euskal curriculumetik eta konpetentzietatik abiatuta, ikastolen hezkuntza-eredu pedagogiko propioarekin hezkuntza eraldatzea du xede, gizabanako euskaldun eleaniztunak, zoriontsuak, autonomoak, kritikoak, enpatikoak eta aniztasuna errespetatzen dutenak prestatzera bideratuta. Ikasle bakoitza bakarra eta errepikaezina dela ulertzen dute eta, horregatik, bikaintasuna ulertzeko modu bakarra dauka ikastolak: ikasle guztien hobekuntza.


Gaur egun, herriko haurren % 60 inguru joaten da ikastolara, eta ehuneko horrek gora egin du azken hamarkadetan, nahiz eta oraindik ere lehia gogorra duen ondoko herriko ikastetxeekin. Ikastolako familien osaera soziolinguistikoari dagokionez, % 70 inguru dira euskara hizkuntza nagusi den etxeetakoak, % 17k gaztelania erabiltzen dute nagusiki eta % 13k bi hizkuntzak konbinatzen dituzte. Gainera, atzerrian jaiotako familien kopuruak gora egin du, eta % 15era iritsi da 2021-2022 ikasturtean. Familia-errepertorioan ere 35 hizkuntza desberdin daude; eskolako egunerokoan, ordea, euskara eta gaztelania dira nagusi. Hau da, euskara lehen hizkuntza ez duten ikasleen kopuruak gora egin du, eta horrek erronka berriak ekarri dizkio hizkuntzaren irakaskuntzari. Horri erantzunez, ikastolak bere harrera-protokoloa eta hizkuntza-tratamendua berrikusi ditu, euskarazko murgiltzea indartzeko eta ikasle guztientzako hezkuntza inklusiboa eta kalitatezkoa bermatzeko[2].

[2] Datuak ikastolako barne-dokumentuetatik jasotakoak dira.

Horri lotuta, ikastolak «Euskara eta kulturartekotasuna gure hezkuntza-komunitatean» proiektuan parte hartzen du 2022-2023 ikasturtetik, bi helbururekin: euskara harremanetarako eta ikaskuntzarako hizkuntza gisa mantentzea, eta, aldi berean, hizkuntza hori menderatzen ez duten familien parte-hartzea erraztea eta informazioa jasotzen dutela baieztatzea (Barquín eta Pérez 2025). Herri honen kasuan, ekimenak ikastetxearen hizkuntza- eta kultura-kohesioa indartzea ahalbidetu du, familien, ikasleen eta irakasleen arteko topaketarako eta lankidetzarako espazioak sortuz. Gainera, hainbat tresna eta dinamika diseinatu dira euskararen biziberritzean aurrera egiteko, hausnarketa partekatuko prozesuak sustatuz eta hezkuntza-komunitateko eragileek aldaketa txikiak batera ezarriz.

Historikoki euskararen erabilera nagusi izan da ikastolan, baina erabilera-neurketek beheranzko joera erakusten dute azken urteetan (ikus 5. irudia). Ikastetxeak jasotako datuen arabera, 2008-2009 ikasturtean, ikasleen arteko interakzioen % 93,66 euskaraz egiten ziren bitartean, 2022-2023an ehuneko hori % 68,8ra jaitsi da, udalerrian erregistratutako bilakaera orokorraren ildotik. Aldi berean, erdararen erabilera % 6,33tik % 31,2ra igo da.

5. irudia. Haurren euskara-erabileraren bilakaera ikastolan (2008-2023)



Iturria: Ikastolako datuak.

Halaber, UEMAk (2023) ikastetxeko Lehen Hezkuntzako ikasleei buruz bildutako datuen arabera, % 53,2k euskaraz komunikatzeko erraztasun handiagoa adierazten du, % 27k bi hizkuntza ofizialetan berdin, eta % 19,8 erosoago sentitzen da gaztelaniaz. Haatik, kultura-kontsumoko ohituretan argi ikusten da gaztelania dela nagusi: ikasleen % 68,5ek adierazi dute azken telesaila gaztelaniaz ikusi dutela eta % 64k YouTubeko edukiak hizkuntza horretan kontsumitzen dituztela, euskararen % 26,1 eta % 21,6en aldean, hurrenez hurren. Normalean entzuten duten musikari dagokionez, ikasleen % 45,5ek euskarazko abestiak aukeratzen ditu, % 25,2k gaztelaniazkoak eta % 29,3k beste hizkuntzetakoak.

Errealitate horren aurrean, ikastolak ahalegin handia egin du Hizkuntza Proiektua hezkuntza-langileen artean zabaltzeko. 2023-2024 ikasturtean, euskararen erabilerak ikastetxean izan duen bilakaerari buruzko gogoeta- eta azterketa-prozesu bat egin da, datu objektiboak erreferentziatzat hartuta. Hausnarketa horren ondorioz, klaustroak euskararen erabilera indartzeko, curriculum-hizkuntzen tratamendu koherentea bermatzeko eta irakasleen esku hartzeko estrategiak hobetzeko jarduera-protokoloa onartu du. Horrela, ikastolak euskararen sustapenarekin eta erabilerarekin duen konpromisoa berresten du, errealitate soziolinguistiko aldakorrera egokitzeko asmotan.

4 **Ikerketa-helburuak**

Artikulu honen helburua master amaierako lanean garatutako ikerketaren zati espezifiko bat aurkeztea da, hezkuntza-testuinguru desberdinetan euskararen erabilera aztertzea xede duena. Horretarako, artikulua hiru ardatz nagusitan egituratzen da, azterketa eta hausnarketa pedagogikoaren prozesua gidatzen dutenak:

— Ikastetxearen hezkuntza-ikuspegiaren printzipio teorikoak eta pedagogikoak deskribatzea.
— Irakasleek hezkuntza-testuinguru desberdinetan euskararen erabilera sustatzeko dituzten estrategia pedagogikoak eta linguistikoak aztertzea.

— Hezkuntza-testuinguru desberdinetan euskara erabiltzeari buruz irakasleek dituzten pertzepzioak ezagutzea.

Helburu horiekin, ikerketak hezkuntza-eremutik euskara biziberritzeari buruzko egungo eztabaidan lagundu nahi du, hausnarketa pedagogikoa prozesuaren erdigunean jarrita.

5 **Metodologia**

Ikerketa hau paradigma interpretatzailean oinarritutako metodologia kualitatiboan oinarritzen da (Vasilachis 2014), ikuspegi horrek hezkuntza-praktikan inplikatutako eragileen esperientziak eta euskararen erabilerari zein hezkuntza-jardunari egozten dizkioten esanahiak aztertzea ahalbidetzen baitu. Horretarako, kasu-azterketa egin da, diseinu metodologiko horrek fenomeno baten azterketa xehatua errazten eta testuinguru errealetan kontzeptu-oinarri sendoa eskaintzen duelako (Martínez 2023). Hainbat teknika erabiliz ikuspegi aberastua eta askotarikoa lortu da, eta, horrenbestez, emaitzen baliozkotasuna eta interpretazio teoriko koherenteak bermatu dira.

5.1 **Parte-hartzaileak eta lagina**

Ikerketaren lagina bi talde nagusik osatzen dute. Batetik, Lehen Hezkuntzako 2. mailako ikastalde bereko 25 ikasleek hartu dute parte, 7 eta 8 urte bitartekoek, alegia[3]. Talde horrek hizkuntza-aniztasun nabarmena du, hainbat familia-hizkuntza dituzten ikasleak biltzen baititu, hala nola euskara, gaztelania, arabiera, ukrainera eta frantsesa. Era berean, parte-hartzaileek euskara gaitasun-maila desberdinak dituzte.

Bestetik, lagina ikastetxeko hiru hezkuntza-profesionalek osatzen dute, zehazki, Lehen Hezkuntzako 2. mailako irakasle tutoreak, ikastetxeko Hizkuntza Normalizaziorako Batzordeko kide denak (IRAK1); ikastetxeko

[3] Parte-hartzaileen nortasuna babesteko, asmatutako izenak erabili dira.

orientatzaile eta aholkulariak, Pedagogia Batzordeko kide denak (IRAK2); eta Pedagogia Batzordeko arduraduna den Haur Hezkuntzako maistrak (IRAK3).

5.2 **Datu-bilketarako teknikak**

Azterlan honetan, behaketa parte-hartzaileak, elkarrizketa erdi egituratuak eta dokumentuen analisiak egin dira, aztergaiaren izaeraren arabera hautatuak.

5.2.1 *Behaketa parte-hartzailea*

Behaketa ezagutza zientifikoaren bizkarrezur-muintzat eta ikerketa kualitatiboaren metodologia artikulatzen duen oinarritzat hartzen da. Ikerketa honetan, zehazki, zuzeneko hemeretzi behaketa parte-hartzaile egin dira 2025eko urtarrilean, eskola-eguneko saio ezberdinetan irakasle tutorearen jarduna behatzeko. Kopuru hori datu-saturazio batera iristean zehaztu da; saioak informazio errepikakorra erakusten hasi direnean eta jada elementu garrantzitsu berririk ematen ez dutenean.

Harrerako saio guztiak (H1, H2, H3, H4, H5 eta H6), baita Euskaraz Biziko (EB1) eta Txanelako (TX3) beste bat ere, talde handiko formatuan grabatu dira, egindako jardueren izaera kolektiboa eta erabat gidatua dela eta. Aldiz, gainerako Euskaraz Bizi (EB2 eta EB3) eta Txanelako (TX1, TX2 eta TX3) saioak ohiko bost talde kooperatiboetan grabatu dira, horiek saio gidatuak izaten jarraitzen duten arren, ikasleen artean autonomia eta lankidetza handiagoa sustatzen baita. Zirkulazio libreko behaketak (ZL1, ZL2, ZL3, ZL4, ZL5 eta ZL6), berriz, talde aldakorretan egin dira, ikasleen hautu indibidualen arabera unean bertan osatuta (ikus 1. taula).

1. taula. Behaketa parte-hartzaileen erregistroa

HEZKUNTZA-TESTUINGURUA	KODEA	SAIOAREN DESKRIBAPEN LABURRA	GRABAZIO-MOTA	IRAKASKUNTZA-METODOA
Harrera	H1	Harrera-saioak egunari hasiera emateko ordu erdiko topaketak dira, egunero egiten direnak. Zirkuluan eserita, saio hauetan haurrei ongietorria egiten zaie, egunaren egitura edo jardueren antolaketa berrikusten dute eta ikasleek euren bizipenak partekatzen dituzte.	Talde handian	Gidatua
Harrera	H2		Talde handian	Gidatua
Harrera	H3		Talde handian	Gidatua
Harrera	H4		Talde handian	Gidatua
Harrera	H5		Talde handian	Gidatua
Harrera	H6		Talde handian	Gidatua
Zirkulazio librea	ZL1	Zirkulazio librea ikasleei aurrez diseinatutako testuinguruen artean modu autonomoan mugitzeko aukera eskaintzen dien proposamen pedagogikoa da. Harreraren ostean, 09:30etik 10:30era bitartean, gauzatzen da Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailetan.	Talde txikietan	Autonomoa
Zirkulazio librea	ZL2		Talde txikietan	Autonomoa
Zirkulazio librea	ZL3		Talde txikietan	Autonomoa
Zirkulazio librea	ZL4		Talde txikietan	Autonomoa
Zirkulazio librea	ZL5		Talde txikietan	Autonomoa
Zirkulazio librea	ZL6		Talde txikietan	Autonomoa

Txanela	TX1	Lehen Hezkuntzako ikas-material didaktikoa da, Urtxintxa proiektuaren jarraipena. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunearen ezagutza bermatzea du xede.	Talde txikietan	Gidatua
Txanela	TX2		Talde txikietan	Gidatua
Txanela	TX3		Talde handian	Gidatua
Txanela	TX4		Talde txikietan	Gidatua
Euskaraz Bizi	EB1	Ikastolak abiarazitako proiektua da, plangintza zehatzen bidez ikasleen artean euskararen erabilera sustatzeko helburua duena.	Talde handian	Gidatua
Euskaraz Bizi	EB2		Talde txikietan	Gidatua
Euskaraz Bizi	EB3		Talde txikietan	Gidatua

Iturria: Egileak egina.

Saio horietan, gertaerak dokumentatzeko aukera eman duten landa-ohar zehatzak hartu dira, irakaslearen esku-hartze pedagogikoak, euskararen erabilera sustatzeko erabilitako estrategiak eta ikasgelako elkarreragindinamikak identifikatzeko eta aztertzeko, besteak beste. Era berean, behaketak funtsezko dimentsio teorikoetatik abiatuta diseinatutako behaketa-taula baten bidez gidatu dira, eta horri esker, datu-bilketa egituratu eta sistematizatu ahal izan da.

5.2.2 *Elkarrizketa erdi egituratua*

Behaketa parte-hartzaileen bidez lortutako aurkikuntzak aberasteko, elkarrizketa erdi egituratuak egin zaizkie gorago aipatutako irakasleei. Elkarrizketa horiek beharrezko malgutasuna eskaintzen dute galdera-zerrenda ordenatu batez osaturiko gidoia jarraitzeko eta, elkarrizketatuei erantzun irekiak emateko, gai interesgarrietan sakontzeko eta beren kontakizunarekin sor daitezkeen interesguneak argitzeko (Guerrero 2016).

Elkarrizketatu bakoitzarekin ordubeteko iraupena izan duen aurrez aurreko elkarrizketa burutu da eta audio-formatuan grabatu. Elkarrizketa-gida bakoitza kasuan kasuko testuingurura, elkarrizketatuaren profilera eta ikerketaren helburuetara egokitu da. Hain zuzen ere, elkarrizketatuentzat gidoi bana sortu da, baina gidoi horiek atal berdinak dituzten galdera-multzoetan antolatu dira, profesional bakoitzaren lan-arloa, ezagutzak eta funtzioak, zein aztergai den ikasle-taldearekin duen harremana aintzat hartuta.

5.2.3 *Dokumentuen analisia*

Dokumentuen analisia funtsezko teknika da ikerketa kualitatiboan, aldez aurretik hainbat testu-motatan erregistratutako gai bati buruzko informazioa ikertzeko, biltzeko, antolatzeko, aztertzeko eta interpretatzeko aukera ematen duelako (Martínez-Corona *et al.* 2023). Azterlan honetan, ikastetxearen hezkuntza-proiektua, zirkulazio libreari buruzko informazioa eta Hizkuntza Normalizaziorako Batzordearen materiala aztertu dira, horien artean, hizkuntza-proiektua, plan estrategikoa, irakasleen jarduera-protokoloa, Euskaraz Bizi proiektua eta eskolako urtez urteko euskararen erabilerari buruzko datuen txostenak.

Dokumentuen berrikuspen hori funtsezkoa izan da aurretik lortutako datuak testuinguruan kokatzeko. Izan ere, testu horien azterketak ikuspegi egituratua eman du ikastolak sustatutako hizkuntza-estrategiei, ikasgelako esku-hartzeen oinarri diren printzipio pedagogikoei eta euskararen erabilera sustatzeko diseinatutako jarduera-ildoei buruz. Horrela, dokumentuen azterketak oinarri sendoa eskaini du aurkikuntza enpirikoak interpretatzeko, esparru instituzionalaren eta ikerketan identifikatutako praktiken arteko koherentzia bermatuz.

5.3 **Datu-bilketarako prozedura**

Datuak biltzeko fasea ikerketa honetarako ezarritako irizpide etikoak betetzen direla ziurtatu ondoren hasi da. Horretarako, EHUko Gizakiekin lotutako Ikerketetarako Etika Batzordearen aldeko txostena jaso eta ikas-

tetxeko zuzendaritzak, parte hartu duten 25 ikasleen gurasoek eta inplikatutako profesionalek baimen informatuak sinatu dituzte, parte-hartzaile guztien konfidentzialtasuna eta atzera egiteko eskubidea bermatzeko asmotan.

Beharrezko onarpen guztiak lortu ondoren, landa-lanaren plangintza operatiboa egin da. Plangintza horri ekiteko, ikastolak emandako dokumentazio instituzionalaren berrikuspen zehatza egin da, baita aztergaiari lotutako literatura akademikoarena ere. Azterketa teoriko horretatik abiatuta diseinatu dira datuak biltzeko tresnak, zehazki, berrikuspenetik eratorritako kategoria kontzeptualetan oinarritutako behaketa-taula egituratua eta hiru elkarrizketa-gidoi, parte-hartzaile bakoitzaren profil profesionalera egokituta eta ikerketa-helburuekin lerrokatuta.

Landa-lana 2025eko urtarrilean hasi da, behaketarako espazio eta une egokiak definitu ostean, eta 2025eko martxoan amaitu da. Behaketa-fasea bukatuta, zentroko hiru profesionali elkarrizketa erdi egituratuak egin zaizkie, eta horren guztiaren gainean oinarritu da azterlan honen emaitzen analisia eta interpretazioa.

5.4 **Datuen azterketa eta analisia**

Ikerketa honetan bildutako datuen azterketa prozesu zorrotz baten bidez egin da, ikuspegi deduktiboa eta induktiboa uztartuta, lortutako emaitzen baliozkotasuna bermatzeko. Lehen fasean, berrikuspen teoriko eta dokumentala egin da, eta, hortik abiatuta, tutorearen esku-hartze pedagogikoa kategorizatzeko azterketa-kategoriak definitu dira (ikus 2. taula).

2. taula. Irakaslearen esku-hartzea behatzeko analisi-unitateak

KATEGORIA-KODEAK	AZPIKATEGORIAK
Ikasle-irakasle interakzioa	-Interakzioa zein hizkuntzatan egiten den eta nolakotasuna -Atzeraelikaduraren estiloa (iruzkin irekiak, galdera irekien erabilera...) -Elkarreraginaren kalitatea euskaraz/gaztelaniaz
Irakaslearen ezaugarriak	-Hizkuntza-gaitasuna eta euskararen erabilera ikasgelan -Euskarazko inputen kalitatea eta kantitatea -Irakaslearen motibazio-jarrera
Ikasgelaren antolaketa	-Jokabidea maneiatzea (helburu argiak, errutina definituak...) -Jardueren egitura eta denborak -Curriculum-materialen erabilera egokia eta askotarikoa
Laguntza pedagogikoa eta emozionala	-Arazoak konpontzeko estimulazioa eta aldamioak -Parte-hartzea bultzatzea (galderak, ikusizko estimuluak, adibideak…) -Feedback eraginkorra eta errefortzu positiboa -Giro positiboa edo negatiboa -Irakaslearen sentsibilitate emozionala
Translanguaging	-Euskararen erabilera malgua beste hizkuntza batzuekin batera -Hitzen edo kontzeptuen birformulazioa

Iturria: Egileak egina.

Ondoren, behaketa-saioak audioz grabatu eta material guztia hitzez hitz transkribatu da, eta ezarritako kategorien arabera hitz-hartzeak kategorizatu, kodetu eta kuantifikatu, Excel eta SPSS bezalako tresna digitalak erabiliz. Era berean, irakasleen elkarrizketak aztertzeko, berariazko azterketa-unitateak atera dira, gaikako kodetze bati jarraituz sailkatu eta kodetu direnak. Azterketa integrala bermatzeko, elkarrizketetarako hainbat atal komun definitu dira eta azterketa-unitate bihurtu (ikus 3. taula).

3. taula. Elkarrizketak aztertzeko analisi-unitateak

KATEGORIA-KODEAK	AZPIKATEGORIAK
Ikuspegi pedagogikoa	-Hezkuntza-ereduaren printzipio pedagogikoak -Harrera, Txanela, Euskaraz Bizi eta Eraikiz proiektuen (zirkulazio librea) jatorria, ezarpena, helburuak, ekarpen metodologikoak eta bilakaera
Euskararen erabilera	-Euskararen erabileraren bilakaera ikastolan -Euskara erabiltzeko uneak eta testuinguruak -Euskararen erabilera sustatzeko estrategiak
Irakaskuntza-estrategiak	-Ikasleek euskara egunero erabiltzeko dituzten erronkak eta zailtasunak -Euskararen trantsizioa eta etengabeko erabilera zailtzen duten faktoreak -Erakunde eta pedagogia mailan hobetzeko beharrak eta proposamenak -Ikasgelan euskara normalizatzeko estrategia pedagogikoak

Iturria: Egileak egina.

Azkenik, datuak triangulatu dira, dokumentuetatik, behaketetatik eta elkarrizketetatik lortutako informazioa konbinatuz, datu-iturri anitzen erabilerak azterketaren fidagarritasuna hobetzen du eta. Ikuspegi horri esker, parte-hartzaileen ikuspuntuak kontrastatu dira eta ikasgelako hizkuntza-praktiken ikuspegi integrala eman da.

6 **Emaitzak**

6.1 **Ikastolaren hezkuntza-ikuspegiaren printzipio pedagogikoak**

Ikastetxearen proposamen pedagogikoa hezkuntzaren ikuskera aktiboan, inklusiboan eta pertsonalizatuan oinarritzen da, ikasleen garapen integralera bideratuta. Ikuspegi humanista du abiapuntu, pertsona hezkuntza-prozesuaren erdigunean jartzen duena, eta haren dimentsio kognitiboaren,

emozionalaren, sozialaren, linguistikoaren eta sentsoriomotorraren arteko oreka sustatzen duena. Erakundearen Hezkuntza Proiektuan jasotzen den bezala, helburua ezagutzak eskuratzera mugatzen ez den prestakuntza bermatzea, eta ikasleen autonomia pertsonala, gizarte-erantzukizuna eta ongizatea sustatzea da. Ildo horretan, elkarrizketatutako irakasle baten hitzetan: «gure hezkuntza proiektuaren erdigunea pertsona da, eta pertsona ulertzeko modu hori» (IRAK3).

Ikuspegi integral hori ikastetxeak berak definitutako irteera-profilean zehazten da, eta komunitate osoaren hezkuntza-ekintza egituratzen duen ardatz gisa jarduten du. Profil horrek ikasle euskaldunak, eleaniztunak, emozionalki orekatuak eta sozialki konprometituak prestatzeko helburua ezartzen du. Erreferente teoriko hutsa izatetik urrun, modu praktikoan bideratzen ditu erabaki pedagogiko guztiak. Halaxe adierazi du aholkulariak: «ikastolan badaukagu ikusmira bat eta hezkuntza-proiektuaren 12 ezaugarrien araberako irteera-profil bat. Orduan, saiatzen gara horri begira lan egiten. Beti ikaslea erdigunean jarrita» (IRAK2).

Hezkuntza-ikuspegi hori gizarte- eta kultura-ingurunera ere hedatzen da, eta eskola eragile aktibo gisa kokatzen du bere testuinguruan. Ildo horretan, euskara eta euskal kulturaren aldeko apustu irmoa egiten du, Hezkuntza Proiektuaren funtsezko zutabe gisa, gainerako hizkuntzekiko eta kulturekiko begirada integratzaileari uko egin gabe. Izan ere, elkarrizketatutako irakasle batek adierazitako eran, ikasleen hizkuntza- eta kultura-aniztasuna aberastasun pedagogikotzat hartzen da: «gure ikastolaren oinarrizko ezaugarri bat da daukan aniztasuna, eta gaur egun gehiago: % 15-18 inguruan dago, adibidez, atzerritar kopurua. Harro alde batetik, baina horrek ekartzen dituen erronkei aurre egin nahian» (IRAK1).

Printzipio horiei jarraikiz, ikastetxeak eraldaketa pedagogikoko prozesu bati ekin dio, hezkuntza-etapa eta -ziklo guztien arteko koherentzia metodologikoa lortzera bideratuta, Hobekuntza Pedagogikorako aholkularitza-prozesuari esker: «lan egiteko modu ezberdinak dauzkagu, eta momentu honetan justu horien arteko koherentzia baten bila gabiltza, aldaketa prozesu baten barruan sartuta» (IRAK3). Konpromiso hori ikasleen garapen ebolutibora egokitutako hezkuntza-praktika batean gauzatzen da. Haur

Hezkuntzan, ongizate emozionala eta garapen psikomotorra lehenesten dira, zenbait hezkuntza-praktika (Eraikiz, Urtxintxa), psikomotrizitatearen, antolaketa neurologikoaren eta bestelako programen bidez, jolas librean eta mugimenduan oinarrituta. Lehen Hezkuntzako lehen zikloan, ildo aktibo hori zirkulazio librearen bidez mantentzen da, eta dinamika horiek saio egituratuagoekin osatzen dira. Bigarren ziklotik aurrera, ikasmaterial desberdinekin (Txanela eta EKI) egiten da lan, adin desberdinen arteko interakzioa bultzatzen duten tailerrak alde batera utzi gabe. Azkenik, Bigarren Hezkuntzan, diziplinarteko proiektuetan eta ikaskuntza kooperatiboan oinarritutako ikuspegia sendotzen da, jakintzak konektatzeko, pentsamendu kritikoa sustatzeko eta ikasleen aniztasunari erantzuteko bide gisa.

Ikerketa honen ardatza den Lehen Hezkuntzako 2. mailan, ikasteko hainbat modu konbinatzen dituzten proposamen pedagogikoak dituzte ardatz. Tutoreak adierazi bezala, maila honetan «metodologia mistoak dauzkagu eta metodologia eraikitzaileak txertatzen joan gara» (IRAK1). Hau da, egitura metodologikoa funtsezko bi zutaberen inguruan antolatzen da, ikaskuntza gidatuko saioak, batetik, eta zirkulazio librea, bestetik. Konbinazio hori ikaskuntza aktiboa sustatzeko borondatearen ondorio da: «LHko lehenengo zikloan autonomia handiz lan egiteko aukera daukate momentu batzuetan, baina, gero, gidatutako saio dezente ere baditugu, ikaskuntza aktibo hori bilatuz» (IRAK3). Hori horrela, eskoladenbora hainbat saiotan antolatzen da; ikaskuntza gidatuko saioen artean harrera, Txanela eta Euskaraz Bizi izango genituzke eta, bestalde, zirkulazio librea.

Harrera-saioak eskola-jardunaldi bakoitzari hasiera ematen dio, eta ongietorria egiteko, zerrenda pasatzeko, ikasleen hutsegiteak egiaztatzeko, eguneko plana berrikusteko eta esperientzia pertsonalei buruz hitz egiteko unea da. Irakasle-taldearen arabera, une intimoa da, ikasleen ongizate emozionalari mesede egiten diona eta talde-kohesioa indartzen duena. Horrez gain, tresna pedagogiko eraginkorra da ahozkotasuna sustatzeko eta euskara-gaitasuna garatzeko, komunikatzeko benetako aukerak sortzen baititu. Tutorearen arabera, ikasleek aukeratzen dutenaz hitz egin dezaketen eguneko une sistematiko bakarra da, eta horrek indartu egiten

ditu haien motibazioa eta hizkuntzaren erabileran duten inplikazioa. Dinamika horrek informazio garrantzitsua ematen die irakasleei taldearen hizkuntza-maila behatzeko eta esku-hartzeak egokitzeko: «hizkuntzarako, bai behaketarako, bai ahozkotasuna, edo bai guk eskaintza desberdinak egiteko, zeren batzuetan erabiltzen da hizkuntza indartzeko» (IRAK2).

Ikaskuntza gidatuko beste saio bat Txanelari eskainitakoa da, gizarte- eta natura-zientzietako edukiak lantzera bideratua. Saio horiek bost ikasleko talde heterogeneoetan antolatzen dira eta elkarlana sustatzen duten dinamikak dira nagusi, une batzuetan talde handian ere lan egiten den arren. Gainera, materialak ikasleen errealitatera egokituta daude: «Txanelaren oinarria mantendu dugu, baina, adibidez, irakurketa errazak moldatu ditugu gaur egun dauden zailtasunei erantzuteko» (IRAK1).

Ikastolako Hizkuntza Proiektuarekin lotura estuan, Euskaraz Bizi Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleen artean euskararen eguneroko erabilera eta bizipena sustatzeko ekimena da, ikasleen hizkuntza-gaitasunean eragin positiboa izateko xedearekin sortua. Programa 2023-2024 ikasturtean jarri zen abian, ikasleen euskararen erabileran eta kalitatean ikusitako atzerakadari erantzuteko: «hasi ginen duela bi urte, ikusten genuelako, batetik, etorri berrien hizkuntza beharrak asko aldatu zirela, bestetik, bi urteetatik matrikulatuta egon diren ikasleen euskara-maila gero eta baxuagoa zela» (IRAK1). Saioek garapen linguistikoa eta dinamika kulturalak eta ludikoak uztartzen dituzte, hiztegi-jardueren, jolas gidatuen, antzerkiaren, mitologiaren eta Euskal Herriko ohiturekin lotutako edukien bidez, besteak beste. Hasiera batean, saioak hizkuntza-mailaren araberako taldekatze homogeneoetan antolatu ziren, baina ikasleen motibazioan izandako ondorio negatiboen ondorioz eta sortutako estigmak direla-eta, 2024-2025 ikasturtean multzokatze heterogeneoak ezarri dira, zozketa bidez.

Ikastetxearen hezkuntza-jardunaren beste zutabe nagusietako bat Eraikiz proiektua da, haurra bere ikaskuntza-prozesuaren subjektu aktibo, trebe eta protagonista gisa hartzen duena. Ikuspegi hori hainbat korronte pedagogikotan oinarritzen da, horien artean, Maria Montessori, Reggio Emilia, Emmi Pikler, Konfiantzaren Pedagogia, Rebeca Wild eta María Jesús Lópezen ekarpenak, Kataluniako Martinet eskolaren esperientzia eta Hik

Hasiren formakuntzak. Irakasle-taldeak hautemandako behar bati erantzuteko sortu zen, aholkulariaren hitzetan: «sortu zen behar handi batetik, jabetzen zelako ikasleen beharretara ez ginela ondo iristen ari eta errealitate desberdinak zeudela» (IRAK2). Abiapuntu horretatik, ikastetxeak ikasleen ongizatea, autonomia eta garapen integrala lehenesten dituen hezkuntza-ikuspegia garatu du, euren erritmoak, interesak eta gaitasunak errespetatuz. Pedagogia arduradunak adierazi bezala: «Eraikiz proiektuaren oinarria haurra ulertzeko modua da; haurra gaitasunez betetako pertsona bezala ulertzen dugu eta hortik abiatuz eraikitzen dugu beste guztia. Hortik abiatuz bidelaguntza eta testuinguru egoki bat eskaintzen saiatzen gara aurrera egiteko» (IRAK3).

Printzipio pedagogiko horien adierazpen zehatzetako bat zirkulazio librea da. Praktika hori, 2. mailan, egunero egiten da harrera-saioaren ondoren, eta irakasleek diotenez, ikasleei aukera ematen die ordubetez hainbat ikaskuntza-mikroespazioren artean mugitzeko. Espazio horiek Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailako ikasgela guztietan daude, eta asmo pedagogikoz, garapen-mailen arabera mailakatutako materialak eskaintzen dituzte. Jarduera horiek jolasean, esplorazioan eta manipulazioan oinarritzen dira, eta aukera ematen dute ikasle bakoitzak bere eboluzio-unera egokitutako proposamenak egiteko eta ingurune zaindu batean autonomia garatzeko. Pedagogia arduradunak azaldu bezala: «haur batek bere gelan eraiki dezake eta listo; baina agian berak behar duen eraikuntza-mota beste espazio batean aurkituko du; orduan, mugitzen da [...] aniztasunari erantzuteko aukera asko aldatzen da» (IRAK3).

Hala ere, elkarrizketatuek zenbait zailtasun identifikatu dituzte hura ezartzean, ikusi baitute ikasle guztiek ez dituztela berdin baliatzen sistemak eskaintzen dituen aukerak: «ikasle batzuek ez diote probetxua ateratzen, zeren batzuek pasako lukete Kaplarekin eraikitzen denbora guztia eta hori ere ez da helburua; eta horrek gu nahasten eta mugitzen gaitu. Orduan, saiatzen gara ea moldaketa batzuk egin ahala hori aldatzen dugun» (IRAK1). Batzuen kasuan, orientazio eta gidaritza handiagoa behar dela azpimarratu dute, ingurune autonomo horretan jarduteko zailtasunak agertzen direlako. Ondorioz, egoera batzuek behaketa zehatzagoa eta esku-hartze aktiboagoa eskatzen dute (IRAK2, IRAK3).

6.2 **Irakaslearen esku-hartzea eta estrategia pedagogikoak**

Egindako behaketa parte-hartzaileetan, ahozko 5219 esku-hartze erregistratu dira guztira: horietatik 1197 tutoreak (% 22,94) egin ditu eta 4022 (% 77,06) ikasleek. Hala ere, banaketa global hori nabarmen aldatzen da behatutako testuinguruaren arabera. Harrerako (% 44,75), zein Euskaraz Bizi eta Txanelako talde handiko saioetan (% 49,98), irakaslearen presentzia oso handia da, eta horrek estrategien gidaritza eta modelatzea indartzen du. Aitzitik, talde txikietako lankidetza-testuinguruetan maistraren esku-hartzea % 17,97ra murrizten da, eta zirkulazio libreko espazioetan, berriz, % 10,97ra. Agertoki horietan, irakaslearen rola aldatu egiten da; jarduerearen gidari izatetik, bideratzaile eta behatzaile izatera igarotzen da, jarrera pertsonalizatuagoa erakutsiz.

Behatutako testuinguruen artean, harrera-saioak euskararen ahozko erabilera sustatzeko espazio eraginkorrenetako bat dira. Testuinguru horretan, tutorearen esku-hartzea (% 44,75) bereziki handia da, eta komunikazio-dinamika zuzentzeko eta egituratzeko rol argia hartzen du. Irakaslea da hizkuntza-eredu nagusia, eta euskara argia eta aberatsa erabiltzen du etengabe, ikasleen mailara egokitua. Gainera, taldea zirkuluerdi forman antolatuta egoteak, interakzio hori indartzen du, eta maistra erdiko posizio batean kokatzen du, hitz-txandak kudeatzeko, hiztegi berria sartzeko eta errutinak euskara hutsean garatzen direla ziurtatzeko.

Ikuspegi linguistikotik eta pedagogikotik, irakasleak emandako inputaren aberastasun nabarmena ikusten da. Errepikapenak, birformulazioak, zuzenketak, parafrasiak, galdera irekiak eta sinonimoak erabiltzen dira ikasleen ulermena bermatzeko. Horren adibide argi bat ikus daiteke interakzio honetan (H1):

> IRAK1: «Egun on» esan dizuet. Aizue, ba erantzun.
>
> Lian: *Ziegok* gea.
>
> IRAK1: Zer?
>
> Lian: *Ziegok*.

IRAK1: Itsuak zarete, eta gorrak. Edo erdi lo zaudete… Bueno, zer moduz zaudete?

Adibide horretan bezala, H1 gainerako saioan, irakasleak antzeko estrategiak erabiltzen ditu «bi falta da» eta «monte» esamoldeen aurrean. Era berean, H4 saioan «cofre del tesoro» eta «caballero» edo H6 saioan «patada», «cama», «pato» eta «hoja» bezalako adierazpenen aurrean esku hartzen du, euskarazko forma zuzena eskaintzeko.

Beste adibide argi bat H3 saioan gertatzen da, irakasleak, forma lexikoa zuzentzeaz gain, iraganaren erabilera zuzena indartzen duela ikus baitaiteke, diskurtso narratiboaren finkatze morfosintaktikoari lagunduz:

Niko: Atzo pasata...

IRAK1: Herenegun.

Niko: Herenegun joan nintzen.

IRAK1: Oso ondo! Joan nintzen…

Niko: Donostiara eta… eta jolastu in det… eta gero joan

IRAK1: Nin…

Niko: Nintzen etxea eta gero jolastu ginen Takokin.

Bereziki garrantzitsua da, halaber, H4 saioko hurrengo adibidea, ikasle batek mediku-hitzordu bat duela aipatzean, hizkuntza-dentsitate handiko elkarrizketa hasten baita. Bertan, irakasleak aditz-formak zuzentzen ditu, hiztegi berria sartzen du, ikaskideen arteko interakzioa sustatzen du eta sinonimoak erabiltzen ditu esanahia indartzeko:

Nadir: Bihar dakala medikua.

IRAK1: Bihar daukazu medikua. Bihar, larunbata? Eta zer begiratuko dizute?

Nadir: Asma, asmarekin.

Lian: Zer da asma?

IRAK1: «Zer da asma?» galdetu Nadirri.

Nadir: Asma da… Bi aldiz tomatu nun eta gero daukazu tripako minakoa eta gero mina eta ahal dezu botaka in.

IRAK1: Asma da gaixotasun bat. Biriketan, hemen [arnasketa sakona egiten du], arnasa hartzerakoan ez dizu ondo hartzen uzten eta orduan hartu behar dezu botika.

Lian: Botika?

IRAK1: Botika da medikamentua, hola [inhalagailuarekin egiten dena imitatzen du].

Saio horien komunikazio-giroa errespetuzkoa eta emozionalki segurua da, eta horrek ikasleen parte-hartze espontaneoa errazten du, baita euskara gutxiago menderatzen dutenen artean ere; eskainitako inputa ulergarria eta testuinguruan kokatua baita. Aldi berean, irakasleak bere diskurtsoaren erritmoa moteltzen du eta keinuak, gorputz-jarrera adierazkorra eta intonazio markatua erabiltzen ditu, hizkuntza-esperientzia aberasten dutenak. Saio horietan curriculum-material espezifikorik erabiltzen ez bada ere, maistrak ingurune hurbileko ikusizko elementuetara jotzen du, taldearen arreta erakartzeko.

Euskaraz Bizi eta Txanelako saioetan egindako talde handiko jardueretan, maistraren esku-hartzeak esanguratsua izaten jarraitzen du (% 49,98), baina ez da harrera-saioetan ikusitako izaera berekoa. Jarduera horien ezaugarri nagusia azalpenezko ikuspegia da; izan ere, diskurtso nagusia irakasleak hartzen du bere gain, eta berak gidatzen du saioa, *Ilezuri* ipuina (Etxabe *et al*. 2021) edo herri kirolekin lotutako testu bat irakurriz. Testuinguru horretan, zuzendaritza-rol egituratuagoa hartzen du, eta horrek mugatu egiten ditu ikasleen ahozko ekoizpenerako aukerak. Hala ere, edukia konplexuagoa edo kulturalki espezifikoagoa denean, esaterako, EB1 saioan herri-kirolei buruzko testuaren irakurketa egitean, irakasleak kirol bakoitza azaltzeko, adierazpen-keinuetara, kirolen imitaziora eta ikusizko irudien laguntzara jotzen du, ulermena errazteko eta guztiek landutako edukiaren haria jarraitu dezaketela ziurtatzeko.

Horrez gain, esku-hartze pertsonalizatuko une puntualak identifikatzen dira, ikasleen premia zehatzei erantzutera bideratuak. Adibidez, EB1 saioan Lianen ondoan esertzen da, banakako irakurketan laguntza eskaintzeko. Oro har, maistrak jardueraren dinamika egituratzen du, irakurketa-txandak markatzen ditu, saioaren erritmoa doitzen du eta diskurtsoaren jarraitutasuna bermatzen du, ikaskuntza irisgarria eta haurren mailara egokitua bermatzen duten hitzezko eta hitzik gabeko baliabideak integratuz.

Talde txikietako lan-saioetan, irakasle tutorearen esku-hartzeak (% 17,97) presentzia malgua, hurbila eta talde bakoitzaren premia espezifikoetara egokitua du ezaugarri. Talde handiko dinamiketan ez bezala, etengabe mugitzen da taldeen artean, bere egiteko nagusia laguntza linguistiko puntuala ematea eta zalantzak argitzea da eta. Hala, bere jarduna talde bakoitzaren komunikazio-erritmora eta -beharretara egokitzen du, hizkuntzaren ulermena eta erabilera errazten dituen beharrezko aldamioa eskainiz.

Ikasleek adierazpen okerrak erabiltzen dituztenean edo gaztelaniara jotzen dutenean, tutoreak berehala esku hartzen du aukera egokiak euskaraz emateko. Horrela, zuzenketa lexikoak, besteak beste, «copo de nieve» esaten duenean «elur maluta» (EB3) eta «inposiblea» esatean «ezinezkoa» (EB2); testuinguruan kokatutako sinonimoak, esaterako, «potea edo potoa» (TX1) edo «letra txikia edo xehea» (EB2); eta birformulazioak, hots, «Libe moztu» esatean «Libe ari da mozten» (TX2) zuzentzea sartzen dira. Hizkuntza-ikuspegi horren osagarri, keinuak, intonazio markatua eta ikasgelako baliabide bisualak erabiltzen dira.

Saio horietan proposatutako zereginak ez daude berariaz diseinatuta ahozko ekoizpena sustatzeko, Euskaraz Bizi saioetako banakako fitxetan gertatzen den bezala, baina irakaslearen esku-hartzeak input linguistiko etengabea, ulergarria eta emozionalki esanguratsua ziurtatzen du. Interakzio handiagoko jardueretan, hots, Txanelako saioetan Erdi Aroko maketa egitean, bere zeregina aktibo mantentzen da, berehalako berrelikadura eskainiz eta euskarazko komunikazio-ahalegin bakoitza positiboki indartuz. Horretarako, lehenago adierazitako estrategiak erabiltzen ditu, EB2 saioan ikus daitekeen bezala:

IRAK1: O-pa-ri-a ahaztu [irakurtzen du], zaio o zitzaion?

Niko: Zaio.

IRAK1: Gaur ahaztu zaio? Edo aspaldi ahaztu zitzaion?

Niko: Aspaldi.

IRAK1: Ordun, ahaztu zi-tza-i-on, zi-tza-i-on. Oparia ahaztu zitzaion, bale?

Zirkulazio libreko saioetan, irakaslearen esku-hartzea murriztu egiten da (% 10,97) beste testuinguruekin alderatuta, eta rol pasiboagoa hartzen du, euskararen erabilerara bideratutako plangintza didaktiko urriarekin. Eguneko beste une batzuetan ez bezala, ez da hauteman input linguistikoa indartzen duen presentzia aktiborik edota ahozko ekoizpena sustatzera bideratutako estrategia pedagogikorik. Irakaslearen parte-hartzea, kasu askotan, ikasgelaren ikuskapen orokorrera, materialen kudeaketara edo gatazka-egoeretan esku hartzera mugatzen da, euskararen erabilera bideratuko duen hizkuntza aldamiorik ezarri gabe.

Hala ere, une jakin batzuetan hizkuntza-asmoa agerian uzten duten esku-hartze puntualak ikusten dira. Adibidez, ZL4 saioan, ikasle batek «korona» oker ekoizten duenean, «koroa» termino zuzena sartzen du. Era berean, zenbait saiotan esku hartu du, karta-jokoetan ezin dela gaztelaniaz hitz egin gogorarazteko: «erdaraz entzuten badugu, badakizue; kartetan ezin da erdaraz» (ZL2) eta «erdaraz egiten baduzu, orduan bai joango zarela hemendik. Gogoratu» (ZL4). ZL6 saioan, halaber, gaztelaniazko interakzio batean sartzen da elkarrizketa euskarara bideratzeko, «Zer ari zarete egiten, mutilak?» galdetzearekin batera. Saioen amaieran ere inplikazio handiagoa ikusten da taldea zirkuluerdian biltzen denean. Esparru egituratuago horretan, irakasleak erronka matematikoak sartzen ditu (ZL3), hiztegia lantzeko jolas bat sustatzen du (ZL2) eta elementu kulturalak txertatzen ditu ahozko jarduera laburren bidez (ZL4). Iraupen mugatua izan arren, ekintza horiek euskara komunikazio-hizkuntza gisa mantentzeko asmoa islatzen dute.

6.3 **Irakasleen pertzepzioak euskararen erabilerari buruz**

Elkarrizketen bidez lortutako datuek erakusten dute irakasleen artean gero eta kezka handiagoa dagoela azken urteetan euskararen erabilerak ikastetxean izan duen beherakadari dagokionez. Joera hori, ordea, tutoreak azpimarratzen duenez, «orokorra da eta ez da ikastolaren eremura mugatzen; gizartera zabalduta dagoen gauza bat da» (IRAK1). Elkarrizketa batean, gainera, irakasle batek dio gizartean sarri ikasle etorkinei egozten zaiela euskararen erabileraren murrizketaren errua, baina berak azalpen hori baztertu eta ohartarazi du egoera askoz ere konplexuagoa dela: «hemen ikasitako guraso euskaldunen seme-alabak erdaraz ari dira; eta aldamenean, gurasoa. Ostra [sic]… Beti kulpa botatzen diegu etorri berriei, baina barkatu? Batzuk ez dira etorri berriak» (IRAK2).

Irakasleen ustetan, duela urte batzuk, pentsaezina zen ikastetxean gaztelaniaz komunikatzea. Bertako bi irakaslek gogora ekarri dutenez, ikasle gehienak familia- eta gizarte-ingurune euskaldunetatik zetozen, eta hizkuntza-kontzientzia partekatua zegoen, ikastolako esparru guztietan euskararen erabilera errazten zuena. Horren harira, aholkulariak, ikastetxeko ikasle ohi gisa baieztatu du bere eskola-etapan, ez zela gaztelania erabiltzen eta ikasleek zailtasunak zituztela hizkuntza horretan mintzatzeko. Hala ere, denborak aurrera egin ahala, duela bi hamarkada irakasle gisa lanean hasi zenean, ikasleen hizkuntza-ohiturak pixkanaka aldatzen ari zirela sumatu zuen. Orduko ikasleen mintzaldietan euskarak nagusi izaten jarraitzen zuen arren, «erdaraz gaizki egiten zuena pixka bat ia arraro bihurtzen ari zen» (IRAK2). Gaur egun, ordea, ikasleen eguneroko interakzioetan gaztelaniaren eta, neurri txikiagoan, beste hizkuntza batzuen presentzia ohikoagoa da (IRAK2, IRAK3), eta, ondorioz, euskaraz murgiltzea korapilatsuagoa: «Hiru ikasle dauzkazunean gurasoek euskaraz ez dakitenak, nahi gabe murgildu egingo dira eta ikasi egingo dute euskaraz, zeren besteek euskaraz egiten badute, ez daukate beste erremediorik; baina hamabost dauzkazunean 25etik erdaraz errazago egiten dutenak, oso zaila da murgiltze hori egotea» (IRAK1).

Errealitate hori larriagotu egiten da zirkulazio libreko saioetan, hau da, helduaren gidaritza zuzenik ez dagoen testuinguruetan, euskararen erabilera nabarmen murrizten dela aitortu baitute elkarrizketatuek. Esparru horre-

tan, ikasleek hizkuntza-kidetasun partekatuen arabera elkartzeko joera dute: «sortzen diren taldekatze natural horiek afinitatez hizkuntza hautatzen dute. Esan dizuten bi nexkatxo hauek arabieraz ari zirenak, ez da kasualitatea elkarrekin egotea; hizkuntza da beraien lotura. Ama-hizkuntza erdara duten asko elkartzen dira hasieran, gero joaten dira aberasten, baina txikitan joera hori badago» (IRAK2). Gainera, ikasleek beste hizkuntza batzuetara jotzeko joera agertzen dute: «Zirkulazio librean naturalki dauden momentu horietan uzten badiezu ateratzen da gaztelera, ukrainera, urdua…» (IRAK2) eta errealitate horrek euskaraz aritzen direnei ere eragiten die: «euskaldunak direnak kutsatu egiten dira izugarri. Hori da gertatu zaiguna, eta pendiente [sic] daukagun gauza bat da zirkulazio librean nola eragin libre horretan beraien hautua euskaraz izateko» (IRAK1).

Hori horrela, euskararen erabileraren beheranzko bilakaera horrek ezintasun-sentsazioa sortu du irakasleen artean, eta elkarrizketatu guztiek beren kezka eta desorientazioa adierazi dute eraginkortasunez esku hartzeko zailtasunaren aurrean. Hartutako neurriak eta familiak inplikatzeko saiakerak gorabehera, sentitzen dute ez dutela tresna nahikorik gaztelaniaren presentzia gero eta handiago hori geldiarazteko. Pedagogia arduradunak azpimarratu du ez dela nahikoa ikasleei «euskaraz egin behar duzue» esatea, inposaketa hori kaltegarria izan baitaiteke:

> Batzuetan kontraproduzitu [sic] egiten duzu eta gero ezkutuan hasten dira. Hor ez dakigu oso ondo nola egin (IRAK3).

Zaila egiten zaie oreka aurkitzea komunikazioaren berezkotasunarekiko errespetuaren eta euskararen erabilera sustatzeko beharraren artean:

> Zirkulazio librea da. Ez dugu gidaritza kristorena egin nahi, naturalki utzi nahi diegu elkarrizketa naturalak sortzen zeren oso polita da, beste gauza askotarako aberatsa delako, baina erdaraz ari direnean ere nola esku hartu izan gabe oso direktiboa [sic]. Hor ari gara saiakerak egiten [...] zeren gauza batek ez du bestea kentzen. Ezin dugu dena gidatua egin euskara nahi dugulako, baina ezin dugu dena libreki eta erdaraz, arabieraz… (IRAK2).

Ikaskuntza gidatuko uneetan, maisu-maistrek euskararen presentzia aktiboa bermatzera bideratutako hainbat estrategia aplikatzen dituzte, horien

artean, interakzioetan euskararen erabilera sistematikoa, helduaren hizkuntza-ereduaren koherentzia eta eredu hori ikasleentzat ulergarria, erakargarria eta emozionalki esanguratsua izatea. Hala ere, onartzen dute estrategia horien aplikazioa zailagoa dela zirkulazio libreko guneetan, mugitzeko askatasunak eta elkarrekintzen bat-batekotasunak irakaslearen esku hartzeko gaitasuna mugatzen dutelako. Horrelako testuinguruetan, hezkuntza-ekintzak puntualagoak izaten dira, eta esku-hartze laburretan zehazten dira, besteak beste, ikasleen jolasekiko atxikimenduan, euskarazko esaldiak errepikatzean edo kasuan kasuko hiztegia sartzean; hizkuntza modelatzeko helburuarekin. Haatik, aipatzen dute batzuetan beharrezkoa egiten zaiela modu esplizituagoan esku hartzea eta ikasleei euskaraz aritzeko gogoraraztea.

7 Ondorioak

Euskal Herriko testuinguru soziolinguistikoak eta hezkuntza-inguruneak etengabeko eraldaketa-prozesuak ditu ezaugarri, gizartearen eta hezkuntzaren errealitatea aberasten duten aldaketa demografikoen, kulturalen eta pedagogikoen ondorioz. Azken hamarkadetan, migrazio-fluxuen hedapenak, guraso euskaldunen familia-transmisioaren ahultzeak eta gaztelaniazko ikus-entzunezkoen edukien nagusitasunak komunikazio-ohiturak eta eguneroko hizkuntza-praktikak berregituratu dituzte (Iurrebaso eta Goikoetxea 2025). Testuinguru horretan, gaztelaniaren nagusitasunezko posizioa indartzeko joera duten gizarte-dinamikekin bizi da euskara, eta horrek erronka berriak planteatzen dizkio euskal hezkuntza-sistemari. Esparru dinamiko horretan, ikasleek hizkuntza-gaitasuna eskuratuko dutela ziurtatzeaz gain, euskararen erabilera eraginkorra bermatu behar dute, gero eta heterogeneoagoak diren eskola-inguruneetan ikasteko, harremanak izateko eta gizarte-kohesiorako hizkuntza gisa.

Azterlan honen xede den arnasgunean, euskararen erabilera pixkanaka murrizten ari dela hauteman da, bai espazio publikoetan, bai eskola-ingurunean (Galtzaundi Tolosaldeko Euskaltzaleen Elkartea 2023). Joera horrek irakasleen artean gero eta kezka handiagoa sortu du ikastetxearen egune-

roko bizitzan euskararen presentzia galtzen ari delako, eta kezka hori bat dator euskal eskola-testuinguruetan hizkuntzaren erabilerak izan duen jaitsierari buruz berriki egindako ikerketetan adierazitakoarekin (Saragüeta eta Garaio 2022).

Ikerketa honen emaitzek erakusten dutenez, aztertutako ikastetxeak hizkuntza-normalizazioarekiko konpromiso sendoa duen arren eta bere proiektua printzipio soziokonstruktibistetan, inklusiboetan eta aniztasunari arreta ematekoetan oinarritzen duen arren, metodologia berritzaileak sartzeak tentsio berriak sortu ditu euskararen kudeaketari dagokionez. Bereziki, hezkuntza-profesionalek aitortzen dute zaila egiten zaiela euskararen presentzia aktiboari eustea irakaskuntza gidaritza zuzena murrizten den espazioetan.

Egindako behaketek berresten dute ikaskuntza gidatuko espazioetan irakasleak sistematikoki aplikatzen dituela aldamio afektiboa, linguistikoa eta kognitiboa (Huarte eta Ozerinjauregi 2012; Zabala 2018) integratzen dituzten estrategia didaktikoak. Esku-hartze horien artean sartzen da giro seguru eta emozionalki abegitsua sortzea, keinuen, ahots-tonuaren eta ikasle bakoitzaren erritmo indibidualarekiko errespetuaren bidez, baita partaidetza aktiboa erraztea ere, orientazio estrategien, galdera irekien, esanahien egiaztapenaren eta berrelikadura positiboaren bidez (Etxeberria 2003; Garcia-Azkoaga *et al.* 2021). Hala ere, zirkulazio libreko saioetan, jardun hori lausotu egiten da, nahiz eta hizkuntzaren erabilerari eusteko eta euskararen presentzia bermatzeko irakasleen esku-hartzea ezinbestekoa izan (Iruskieta eta Huarte 2025).

Hau da, azterlanak agerian uzten du bi jarduera-esparru mota nagusi daudela, elkarrengandik modu esanguratsuan bereizten direnak: ikaskuntza gidatuko espazioak (harrera, Txanela eta Euskaraz Bizi) eta gidatu gabeak (zirkulazio librea). Lehenengoetan, euskararen erabilera praktika da, hau da, estrategia pedagogiko eta didaktiko zehatzen bidez sustatzen da. Aldiz, zirkulazio libreko espazioetan, euskararen erabilerari buruzko diskurtsoak, arau edo konpromiso gisa ulertuta, praktikak berak baino indar gehiago hartzen du. Horren ondorioz, estrategia pedagogikorik ez dagoenean, hizkuntza-konpromisoa maila sinbolikoan edo normatiboan geratzeko arris-

kua sortzen da. Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen da ikasleen autonomia nagusitzen den espazioetan ere estrategia pedagogikoak txertatzea, euskararen erabilera praktikara eramateko eta diskurtsoa eguneroko jardunean errotzeko.

Horrekin bat etorriz, irakasleen pertzepzioek errealitate konplexua islatzen dute (Martinez de Luna eta Suberbiola 2020), euskararen erabileraren murrizketak, ikasleen hizkuntza-aniztasunak eta bat-batekotasun komunikatiboa sustatzearen eta esku-hartze eraginkorrak planifikatzearen arteko tentsioak markatuta. Berrikuntza metodologikoak, nahiz eta ezinbestekoa izan egungo lege-esparruaren printzipioei eta balioei erantzuteko, ez du berez bermatzen euskararen jasangarritasuna. Horregatik, funtsezkoa da berrikuntza pedagogikoa hizkuntzaren erabilera emozionala, funtzionala eta esanguratsua sustatzen duten hizkuntza-estrategia esplizituekin artikulatzea (Etxeberria 2003), euskal hezkuntza-proiektuak ardazten duen ikuskera inklusiboarekin bat etorriz.

Ikuspegi horretatik, inklusioa ulertu behar da guztien hizkuntza-partaidetza ekitatiboa bermatuko duten espazioak eta baldintzak sortzeko modu gisa. Horrek esan nahi du kritikoki berrikusi behar direla indarrean dauden printzipio pedagogikoak, eta aztertu behar dela zer hezkuntza-erantzun mota sortzen ari diren eta erantzun horiek nola eragiten duten ikasleen eguneroko hizkuntza-praktikan. Bestela esanda, eskolak hizkuntza-akonpainamendu kontzienteko ingurunea izan behar du, non ikaslearen autonomia aldamio afektibo, linguistiko eta kognitibo batekin osatuko den (Huarte eta Ozerinjauregi 2012; Zabala 2018).

Erronka horrek hezkuntza-ekosistema osoaren inplikazioa eskatzen du, batik bat irakasleena, ikasleena, familiena eta komunitatearena (Euskararen Aholku Batzordea 2024; Kasares 2017). Soilik hezkuntza-jardun kontziente, koherente, planifikatu eta iraunkor batetik zaindu, indartu eta normalizatu ahal izango da euskararen erabilera erreala, hizkuntza bizi eta partekatu gisa, eskola-bizitzaren eremu guztietan (Amonarriz 2019; Eusko Jaurlaritza 2018; Saragüeta eta Garaio 2022).

Azken batean, azterlan honetan ondorioztatu da, irakasleen konpromisoa gorabehera, errealitate linguistiko hau kudeatzea erronka bat dela

oraindik ere, eta, horregatik, ezinbestekoa dela oinarri pedagogikoak ikuspegi inklusibo eta soziolinguistiko kontziente batetik birpentsatzea, ikasleen autonomia euskararen bizitasuna bermatuko duten laguntza-estrategiekin artikulatuz. Erabaki metodologikoen, berrikuntza pedagogikoen eta hizkuntza-biziberritzearen arteko harremanean sakontzea lehentasunezko ikerketa ildoa da, euskaran ardazturiko hezkuntza euskaldun baterantz aurrera egiteko. Printzipio pedagogikoek euskararen erabileran nola eragiten duten ulertzeak aukera emango du, alde batetik, hezkuntza benetan inklusiboa den bermatzeko, eta beste aldetik, gai den aniztasuna zaintzeko eta, aldi berean, euskararen bizitasuna hizkuntza partekatu, esanguratsu eta bizi gisa indartzeko.

Bibliografia

AIERDI, Xabier eta RUIZ, Andrea (2024). «Euskara eta immigrazioa: gogoetak zentzuzko politikarako», *in* Julia Shershneva (zuz.), *Bi hamarkada Euskadiko migrazioari eta asiloari buruz hausnartzen*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. https://ikuspegi.eus/files/publicaciones/200_4.pdf

ALTUNA, Olatz, IÑARRA, Maialen eta BASURTO, Asier (2022). *Hizkuntzen erabileraren kale neurketa: Euskal Herria 2021*. Soziolinguistika Klusterra. https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/hizkuntzen-erabileraren-kale-neurketa-euskal-herria-2021-2/ (2025eko urriaren 17an kontsultatua).

AMONARRIZ, Kike (2019). *Euskararen bidegurutzetik*. Elkar.

AMONDARAIN-GARRIDO, Maite eta RUIZ DE ZAROBE, Yolanda (2025). «Looking into Multimodal Translanguaging in CLIL: a Case study in the Basque Country», *Journal of Multilingual and Multicultural Development* 46 (5): 1440-1458. https://doi.org/10.1080/01434632.2024.2429419

ANTERO, Amaia (2016). *Konfiantzaren pedagogia. Arizmendi ikastolaren markoa*. Ikastolen Elkartea.

BARLEÓN, Christèle eta GENTILHOMME, Corinne (2008). *Démarches et outils pour le langage oral. Construire et progresser*. Editions CRDP d'Alsace.

BARQUÍN, Amelia (2024ko irailaren 24a). «*Euskara eta «zirkulazio librea» Haur Hezkuntzan. Nora goaz?*», *Kinka* [Bloga]. https://abarquin.wordpress.com/2024/09/

BARQUÍN, Amelia eta PÉREZ, Karmele (2025). «Euskara eta kulturartekotasuna uztartzeko esperientzia berria udalerri euskaldunetan», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 70 (1): 45-82. https://doi.org/10.59866/eia.v1i70.298

BEHNEY, Jennifer eta GASS, Susan (2021). *Interaction. Elements in second language acquisition*. Cambridge University Press.

BELFI, Barbara, GOOS, Mieke, DE FRAINE, Bieke eta VAN DAMME, Jan (2012). «The effect of class composition by gender and ability on secondary school students' school well-being and academic self-concept: A literature review», *Educational Research Review* 7 (1): 62-74. https://doi.org/10.1016/j.edurev.2011.09.002

CALATAYUD, María Amparo (2018). «Los agrupamientos escolares a debate», *Tendencias Pedagógicas* 32: 5-14. https://doi.org/10.15366/tp2018.32.001

CENOZ, Jasone eta GORTER, Durk (2017). «Minority languages and sustainable translanguaging: Threat or opportunity?», *Journal of Multilingual and Multicultural Development* 38 (10): 901-912. https://doi.org/10.1080/01434632.2017.1284855

ETXABE, Kris, MÁRQUEZ, Maite eta MAIZA, Mikel (2021). *Ilezuri*. Alberdania.

ETXEBERRIA, Feli (2003). *Hizkuntzaren psikopedagogia*. Elhuyar Fundazioa. https://www.elhuyar.eus/sites/default/files/pd/199ce95930835179c83edfcc6dee67befa1924a6.pdf

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA. (2024). *Euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko marko estrategikoa (2024-2034)*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/aroa_marko_orokorra_24/eu_def/adjuntos/Aroa._Euskara_idarberritzeko_eta_euskaldunok_.pdf (2025eko urriaren 17an kontsultatua).

EUSKO JAURLARITZA. (2018). *Atzerritar jatorriko eskolatzea EAEko eskola-sisteman. Diagnostikoa eta esku-hartzeko neurri berriak: 2018ko Urria*. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/eu_def/adjuntos/aniztasuna/Atzerritar_jatorriko_ikasleen_eskolatzea_EAEko_eskola_sisteman.pdf (2025eko urriaren 17an kontsultatua).

EUSTAT. (2024). *Euskal Autonomia Erkidegoko datu estatistikoak. Udal informazioa*. EUSTAT. https://eu.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/ibarra.html

GALTZAUNDI TOLOSALDEKO EUSKALTZALEEN ELKARTEA. (2023). *Hizkuntza-erabileraren kale neurketa. Ibarra 2023*. Ibarrako Udala. https://www.ibarra.eus/documents/309088/656813/2023+Ibarra+kale+neurketa+txostena.pdf/2d100683-4f4a-3259-0759-a65bb0251d1a (2025eko urriaren 17an kontsultatua).

GARCIA-AZKOAGA, Ines, BENGOETXEA, Olatz eta ZABALA, Josune (2020). «Ahozko euskararen erabilera eskolan: gako zenbait irakasleen prestakuntzarako», *in* Ekaitz Santazilia, Dorota Krajewska, Eneko Zuloaga eta Borja Ariztimuño (arg.) *Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari*: 267-282. https://doi.org/10.35462/fontes50urte.17

GARCIA-AZKOAGA, Ines, BENGOETXEA, Olatz eta ZABALA, Josune (2021). «Hizkuntzaz besteko irakasgaietan euskararen ahozko erabilera indartzen», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 120: 151-172.

GARTZIARENA, Mikel, VILLABONA, Nerea eta OLAVE, Beñat (2023). «In-service teachers' multilingual language teaching and learning approaches: Insights from

the Basque Country», *Language and Education* 38 (2): 203-217. https://doi.org/10.1080/09500782.2023.2176714

GUERRERO, Maria Auxiliadora (2016). «La investigación cualitativa», *INNOVA Research Journal* 1 (2): 1-9. https://doi.org/10.33890/innova.v1.n2.2016.7

HERNÁNDEZ, Jone Miren (2005). *Jolasgaraia: Gaztetxoak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. https://addi.ehu.eus/bitstream/handle/10810/76202/2005-Herna%cc%81ndez-Jolas-Garaia%20Gaztetxoak%2c%20hizkuntzak%20eta%20identitateen%20adierazpena.pdf?sequence=1&isAllowed=y (2025eko urriaren 17an kontsultatua).

HUARTE, Maider eta OZERINJAUREGI, Jone (2012). «Interakzioaren garrantzia euskararen sarrera goiztiarrean», *in Hizkuntzaz jabetzen (0-6). XVI Jardunaldiak*: 183-208. Mendebalde Kultur Elkartea. http://mendebalde.eus/jardunaldiak/2012/Interakzioaren%20garrantzia%20euskararen%20sarrera%20goiztiarrean.pdf (2025eko urriaren 17an kontsultatua).

IBARRAKO UDALA. (2023). *Erabilera sustatzeko plana. 2023*. Ibarrako Udala. https://www.ibarra.eus/documents/309088/656813/IBARRA+2023KO+URTEKO+PLANA.pdf/a41775cb-374d-481f-caeb-4bf26ffac347 (2025eko azaroaren 03an kontsultatua).

INE. (2021). «Alteraciones de los municipios en los Censos de Población desde 1842». Demografía y población. INE. https://www.ine.es/intercensal/ (2025eko azaroaren 03an kontsultatua).

IRUSKIETA, Mikel eta HUARTE, Maider (2025). *Mugimendu autonomoa eta hizkuntza: datuak eta esperientziak* [Dokumentu argitaragabea]. Euskal Herriko Unibertsitatea.

ISEI-IVEI. (2023a). *Euskal hezkuntza-sistemaren diagnostikoa. Euskadiko hezkuntza sistemaren diagnostikoa. 2023ko ekaina.* Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. https://isei-ivei.euskadi.eus/documents/d/guest/diagnostico-sistema-educativo-eusk-pr2-dig?imagePreview=1 (2025eko urriaren 17an kontsultatua).

ISEI-IVEI. (2023b). *Ebaluazio diagnostikoa. 2022ko etapa amaierako txosten exekutiboa*. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. https://isei-ivei.euskadi.eus/documents/d/guest/etapa-amaierako-txostena-2018-2022-pdf-1?imagePreview=1 (2025eko urriaren 17an kontsultatua).

IURREBASO, Iñaki (2019). «Hego Euskal Herriko arnasguneak zenbatzen: arnasguneen operatibizazioaren inguruko ekarpena», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 110 (1): 115-126.

IURREBASO, Iñaki eta GOIKOETXEA, Garikoitz (2025). *Esnatu ala hil. Euskararen oraina eta geroa, diagnostiko baten argitan*. Elkar.

KASARES, Paula (2017). «La transmisión intergeneracional desde la socialización lingüística: el caso vasco», *Treballs de Sociolingüística Catalana* 27: 133-147. https://doi.org/10.2436/20.2504.01.129

KRASHEN, Stephen (1985). *The input hypothesis. Issues and implications*. Longman.

LARREA, Kepa eta BOURGEAUD, Olatz (2007). «Bigarren hizkuntzaren (H2) eskurapenerako hainbat oinarri eta proposamen metodologiko», *Tantak* (37): 27-42. https://doi.org/10.1387/tantak.3170

LEONET, Oihana, CENOZ, Jasone eta GORTER, Durk (2017). «Challenging minority language isolation: Translanguaging in a trilingual school in the Basque Country», *Journal of Language, Identity & Education* 16 (4): 216-227. https://doi.org/10.1080/15348458.2017.1328281

MARTÍNEZ, Isabel (2023). «Metodología cualitativa», *in* José Quintanal eta Juan Carlos Sánchez (zuz.), *Métodos y diseños de investigación en contextos socioeducativos*. Editorial CCS.

MARTÍNEZ-CORONA, Jose Isaias, PALACIOS-ALMÓN, Gloria Edith eta OLIVA-GARZA, Dubelza Beatriz (2023). «Guía para la revisión y el análisis documental: propuesta desde el enfoque investigativo», *Ra Ximhai: Revista Científica de Sociedad, Cultura y Desarrollo Sostenible* 19 (1): 67-83. https://doi.org/10.35197/rx.19.01.2023.03.jm

MARTINEZ DE LUNA, Iñaki eta SUBERBIOLA, Pablo (2020). *EAEko ikasleen euskararen erabilera eskola-giroan (2011-2017). Arrue Proiektua: txosten exekutiboa*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2013/03/arrue_2011-2017_eus.pdf (2025eko urriaren 17an kontsultatua).

PÉREZ, Ani (2022). *Las falsas alternativas. Pedagogía libertaria y nueva educación*. Virus.

QUINTANILLA, Maite (2014). «Gazteak, hizkuntza eta hegemonia: lekuan lekuko ikerketa antropologikoa Soraluzen», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 93 (4): 87-120.

ROMAN, Gorka, PÉREZ, Elizabeth eta LANGARIKA, Argia (2020). «Teaching minority languages in multiethnic and multilingual environments: Teachers' perceptions of students' attitudes toward the teaching of Basque in compulsory education», *Education Sciences* 10 (2): 1-20. https://doi.org/10.3390/educsci10020025

SARAGÜETA, Eider eta GARAIO, Beñat (2022). *UEH ikerketa. Udalerri euskaldunetako haurrak eta euskara*. Soziolinguistika Klusterra eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea. https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2022/11/UEH_ikerketa_txosten_osoa-3.pdf (2025eko urriaren 17an kontsultatua).

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA. (2022). *Hizkuntzen erabileraren kale neurketa. UEMAko udalerriak eta Tolosaldea: 2021; emaitzen txostena*. Soziolinguistika Klusterra. https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2022/03/UEMA-eta-Tolosaldea-2021-Emaitzen-TXOSTENA.pdf (2025eko urriaren 17an kontsultatua).

SWAIN, Merrill (1995). «Three functions of output in second language acquisition», *in* Guy Cook eta Barbara Seidlhofer (zuz.), *Principle and practice in Applied Linguistics, studies in honour of H.G. Widdowson*. Oxford University Press.

UEMA. (2023). *Ispiluari begira* [Barne dokumentu argitaragabea]. UEMA.

VALADEZ, Concepción, ETXEBERRIA, Feli eta INTXAUSTI, Nahia (2015). «Language revitalization and the normalization of Basque: a study of teacher perceptions and expectations in the Basque Country», *Current Issues in Language Planning* 16 (1): 60-79. http://dx.doi.org/10.1080/14664208.2014.947019

VASILACHIS, Irene (2014). «La investigación cualitativa», *in* Irene Vasilachis (zuz.), *Estrategias de investigación cualitativa*. Gedisa.

ZABALA, Josune (2018). *Ahozko komunikazioa irakastea: norabide bat ahozko hizkuntzaren argitan*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2019/01/Ahozkotasuna_lantzen_argitalpena.pdf (2025eko urriaren 17an kontsultatua).

ZALBIDE, Mikel (2019). «Arnasguneak. etorkizuneko erronkak», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 110 (1): 11-78.

Idazlanen ebaluazio automatizatua Lehen Hezkuntzan: euskararen berezkotasunak

Evaluación automatizada de redacciones en Educación Primaria: particularidades del euskera

Évaluation automatisée des rédactions à l'école primaire : particularités du basque

Automated Assessment of Essays in Primary Education: Particularities of the Basque

IZETA BALENTZIAGA, Inar
Ikertzaile beregaina
iizeta001@ikasle.ehu.eus
ORCID: https://orcid.org/0009-0007-1928-4655

IRUSKIETA QUINTIAN, Mikel
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU
Bilboko Hezkuntza Fakultatea
HiTZ Zentroa - Ixa Taldea
mikel.iruskieta@ehu.eus
ORCID: https://orcid.org/0000-0002-6121-3902

IBARRA LIZUNDIA, Irune
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
irune.ibarra@ehu.eus
ORCID: https://orcid.org/0000-0002-6655-4327

DOI: https://doi.org/10.59866/eia.v2i71.352

Lan hau burutzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso dugu, «Etorkizuna Eraikiz» ekimenaren bidez (2024-2025 deialdiko 17. proiektua). Halaber, egileek eskerrak eman nahi dizkiete laginak biltzeko aukera eman duen ikastetxeari; bereziki, zuzendaritzari, tutoreei, aholkulariari eta, nola ez, parte hartu duten haurrei.

Egileen zereginak:

Inar Izeta: Kontzeptualizazioa, metodologia, datuen tratamendua (digitalizazioa), softwarea (adimen artifizialaren entrenamendua), analisi formala, irudien ekoizpena eta jatorrizko zirriborroa idaztea.

Mikel Iruskieta: Kontzeptualizazioa, metodologia, softwarea (adimen artifizialaren entrenamendua), idazketa-berrikuspena eta edizioa.

Irune Ibarra: Kontzeptualizazioa, metodologia, datuen tratamendua (datuak eskuratzea), idazketa-berrikuspena eta edizioa.

Jasotze-data: 2026-02-05
Behin-behineko jasotze-data: 2026-06-20
Behin betiko jasotze-data: 2026-08-06

Ikerketa honetan Lehen Hezkuntzan (LH) idazmena nola garatzen den aztertu da, hainbat ikasmailatan. Euskarazko 181 testu digitalizatu eta CTAP (*Common Text Analysis Platform*) tresnaren bidez haien adierazle linguistikoak erauzi dira, *CAF* (*Complexity, Accuracy, Fluency*) markoa erabiliz konplexutasun neurri egokienak hautatzeko. Emaitzek erakutsi dute zenbait adierazlek alde esanguratsuak detektatzen dituztela ikasmailen artean. Irakasleek emandako kalifikazioen artean, diskriminatzeko gaitasun handiena duen adierazlea aditz-sintagmen kopurua da.

Gako-hitzak: Euskara, idazmena, ebaluazioa, Lehen Hezkuntza, Hizkuntza Naturalaren Prozesamendua (HNP), CTAP (*Common Text Analysis Platform*).

En esta investigación se ha analizado el desarrollo de la expresión escrita en distintos niveles de Educación Primaria. Se han digitalizado 181 textos en euskera y, mediante la herramienta CTAP (*Common Text Analysis Platform*), se han extraído sus indicadores lingüísticos, utilizando el marco CAF (*Complexity, Accuracy, Fluency*) para seleccionar las medidas de complejidad más adecuadas. Los resultados han mostrado que los indicadores detectan diferencias significativas entre los niveles escolares. En 4.º de Educación Primaria, el número de sintagmas verbales es el indicador con mayor capacidad para discriminar entre las calificaciones otorgadas por el profesorado.

Palabras clave: Euskera, escritura, evaluación, Educación Primaria, Procesamiento del Lenguaje Natural (PLN), CTAP (*Common Text Analysis Platform*).

Cette recherche a analysé le développement de l'expression écrite à différents niveaux de l'enseignement primaire. 181 textes en basque ont été numérisés et leurs indicateurs linguistiques ont été extraits à l'aide de l'outil CTAP (*Common Text Analysis Platform*), en utilisant le cadre CAF (*Complexity, Accuracy, Fluency*) pour sélectionner les mesures de complexité les plus appropriées. Les résultats démontrent que certains indicateurs mettent en évidence des différences significatives entre les niveaux scolaires. En CM1 (4e année du primaire), le nombre de syntagmes verbaux est l'indicateur ayant la plus grande capacité à discriminer les notes attribuées par les enseignants.

Mots-clés : Basque, écriture, évaluation, éducation primaire, Traitement Automatique du Langage Naturel (TALN), CTAP (*Common Text Analysis Platform*).

This research analyzed the development of writing skills across different grades of Primary Education. One hundred eighty-one texts in Basque were digitized, and their linguistic features were extracted using the CTAP (*Common Text Analysis Platform*) tool, employing the CAF (*Complexity, Accuracy, Fluency*) framework to select the most appropriate complexity measures. The results demonstrate that certain indicators detect significant differences between school levels. In the 4th grade of Primary Education, the number of verb phrases is the indicator with the greatest capacity to discriminate between the scores assigned by teachers.

Keywords: Basque, writing, assessment, Primary Education, Natural Language Processing (NLP), CTAP (*Common Text Analysis Platform*).

IZETA BALENTZIAGA, Inar, IRUSKIETA QUINTIAN, Mikel and IBARRA LIZUNDIA, Irune (2026) «Automated assessment of essays in primary education: particularities of the Basque», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 71 (2): 227-266.

1 Sarrera
1.1 Ikerketaren testuingurua eta helburuak
1.2 CAF marko teorikoa: konplexutasuna, zehaztasuna eta jariakortasuna
1.3 Euskararen ezaugarri tipologikoak idazmenaren analisian
1.4 Idazmenaren azterketa automatizatua: CTAP tresna
2 Metodologia
2.1 Diseinua
2.2 Parte-hartzaileak
2.3 Tresnak
2.4 Prozedura
2.5 Datuen analisia
3 Emaitzak
3.1 Adierazle linguistikoen hautaketa eta egokitasuna
3.2 Adierazle linguistikoen bilakaera LHn
3.2.1 Estatistika deskribatzaileak
3.2.2 Ezberdintasun estatistikoen analisia
3.2.3 Bilakaeraren deskribapen kualitatiboa
3.2.3.1 Aditz trinkoen eta perifrastikoen bilakaera
3.2.3.2 Diskurtsoaren analisia: modalitatea eta perpaus-elkarketa
3.2.3.3 Kohesioa: izenen gainjartze globala
3.3 Adierazle linguistikoen eragina kalifikazioetan ikasmailaren arabera
3.3.1 Ezberdintasun estatistikoen analisia
3.3.2 Ezberdintasunen deskribapen kualitatiboa
4 Eztabaida
5 Ondorioak

Bibliografia
Eranskinak
1 LH4ko testuak ebaluatzeko errubrika
2 LH6ko testuak ebaluatzeko errubrika
3 CTAP tresna euskarazko testuetara egokitzeko prozedura

1 Sarrera

1.1 Ikerketaren testuingurua eta helburuak

Idazmena garatzea funtsezko mugarria da ikasleen gaitasun kognitibo eta linguistikoen bilakaeran. Lehen Hezkuntzan (LH), ikasleek alfabetatzearen hasierako fasea gaindituta, testu egituratuagoak eta koherenteagoak ekoizten dituzte, eta testu horietan hizkuntza hobeki menderatzen dutenaren zantzuak erakusten dituzte, argiro. Garapen hori modu automatizatuan neurtzea erronka handia da ikerlarientzat, haurren garapen linguistikoa ez baita beti lineala eta adierazle ezberdinen arteko oreka aldatu egiten da adinean aurrera egin ahala (Arriola, Goikoetxea eta Iruskieta 2020).

Ikerketa honen helburua da ikasleen idazmenaren garapen linguistikoa eta horrek eskolako kalifikazioetan duen eragina modu automatizatuan aztertzea, ikuspegi kuantitatibo, kualitatibo, zeharkako eta ez-esperimental batetik. Zehazki, lau dimentsio linguistikoren (jariakortasuna, lexikoa, sintaxia eta kohesioa) bilakaera eta horiek eskolako kalifikazioetan duten eragina aztertu nahi da.

1.2 CAF marko teorikoa: konplexutasuna, zehaztasuna eta jariakortasuna

Lan honen marko nagusia nazioartean idazmena ebaluatzeko erabiltzen den CAF (*Complexity, Accuracy, Fluency*) eredua da (Bulté eta Housen 2012). Eredu horrek hiru dimentsio independentetan banatzen du hizkuntzaren erabilera, eta ikerketa honetan, dimentsio horiek euskararen ezaugarrietara eta azterketa automatikora egokitu dira:

— Jariakortasuna (*fluency*): Testua ekoizteko erraztasunari dagokio eta prozesamendu kognitiboaren arintasuna islatzen du. Ekoizpen-ahalmen gisa ulertzen da, eta testu-bolumenaren bidez neurtzen da, esaterako, hitz edo unitate linguistikoen kopuruaren bidez.
— Zehaztasuna (*accuracy*): Testuak hizkuntzaren arauekiko duen atxikimendua da, akatsen maiztasunaren bidez neurtua. Lan honetan,

ordea, dimentsio hori eredu teorikotik kanpo utzi da, euskararen prozesamendu automatikoan akats gramatikalak fidagarritasunez neurtzeko tresna estandarizatuak falta direlako oraindik.

— Konplexutasuna (*complexity*): Ikasleak erabiltzen dituen egitura linguistikoen aberastasunean oinarritzen da. Euskararen tipologia aintzat hartuta, lan honek konplexutasuna aditzaren zentralitatearekin lotzen du: konplexutasun lexikoa aditz-moten kopuruan oinarritzen da eta konplexutasun sintaktikoa aditz-sintagmen kopuruan.

1.3 **Euskararen ezaugarri tipologikoak idazmenaren analisian**

Euskara hizkuntza eranskaria (aglutinatzailea) eta hitz-ordena malgu samarra duen hizkuntza izateak erronka nabarmenak planteatzen dizkio idazmenaren azterketa automatikoari. Ezaugarri tipologikoek (aglutinazioa, kasu-sistema aberatsa eta aditzaren zentralitatea) zuzenean eragiten dute testuaren egitura morfosintaktikoan zein diskurtsiboan, eta, ondorioz, erabilitako neurketa-adierazleen interpretazioan ere bai (Hualde eta Ortiz de Urbina 2003):

— Flexio-morfologia aberatsa: Euskarak morfema flexiboen sistema zabala du (kasua, numeroa, determinazioa eta aditz-komunztadura), eta horrek hitzen aldakortasun handia eragiten du (Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordea 2021). Ondorioz, hitz-kopuru soiletan (tokenetan[1]) oinarritutako neurketek lexikoaren erabilera errealaren irudi partziala edo distortsionatua eman dezakete, lema bakar batek forma ugari har ditzakeelako (Aduriz *et al.* 2000). Testuinguru horretan, lema-mailako adierazleak egokiagoak dira ikaslearen errepertorio lexikoa modu fidagarriagoan islatzeko (McCarthy eta Jarvis 2010).

— Aditzaren eginkizun egituratzailea sintaxian: Euskaraz, aditza da perpausaren egitura sintaktikoaren nukleo nagusia, bertan kodetzen baitira argumentu-egitura, kasu-harremanak eta komunztadura-informazioa

[1] Tokena testu bateko oinarrizko unitaterik txikiena da; sistemak hitz, zenbaki edo puntuazio-marka gisa identifikatzen duena.

(Hualde eta Ortiz de Urbina 2003). Aditzaren bidez markatzen dira perpauseko partaideen arteko harremanak, baita perpausaren izaera gramatikala ere. Hori dela eta, aditz-formadun egituren kopurua adierazle egokia da idazlearen konplexutasun sintaktikoa neurtzeko (Biber, Conrad eta Reppen 1998).

— Kohesio erreferentziala: Euskararen *pro-drop* izaeraren ondorioz, erreferentziazko argumentuen jarraipena sarritan aditzaren morfologian txertatzen da, eta izen-sintagmen elipsia ohikoa da (Hualde eta Ortiz de Urbina 2003). Horrek aukera ematen du argumentu berak testuan zehar modu esplizitu zein inplizituan berrerabiltzeko, kohesio diskurtsiboa bermatuz. Testu-mailako argumentu-gainjartze globala neurtzeak testuaren barne-koherentzia ebaluatzeko informazio baliotsua eskaintzen du (Givón *et al.* 1983).

1.4 **Idazmenaren azterketa automatizatua: CTAP tresna**

Hizkuntza Naturalaren Prozesamenduaren (NLP) garapenak testuen analisi masiboa eta objektiboa ahalbidetu du (Azurmendi, Arregi eta López de Lacalle 2025). CTAP (*Common Text Analysis Platform*) tresnak testuen ehunka ezaugarri linguistiko automatikoki erauzteko aukera ematen die ikerlariei (Chen eta Meurers 2016). Nolanahi ere, kontuan hartu behar da tresna hori ingeleserako diseinatu zela. Hori dela eta, euskarazko testuak aztertzeko, ezinbestekoa da aldez aurretik euskararen prozesamendurako berariazko NLP tresnak integratzea (3. eranskina), hala nola Lexikoaren Behatokia corpusaren (Euskaltzaindia 2014) 2014ko datuetan oinarrituta entrenatutakoak. Nazioarteko ikerketek (McNamara, Crossley eta McCarthy 2010) erakutsi dute tresna horiek erabiliz lortutako adierazleek (kohesio-indizeak, sintaxi-neurriak, etab.) korrelazio altua dutela giza ebaluatzaileek emandako kalifikazioekin. Hala ere, LHko euskarazko testuekin egindako azterketak oraindik urriak dira, eta horixe da ikerketa honen ekarpen nagusia: idazmenaren garapena ongien islatzen duten adierazle linguistikoak identifikatzea eta LHn duten bilakaera aztertzea.

2 **Metodologia**

2.1 **Diseinua**

Ikerketa hau diseinu kuantitatibo, kualitatibo, zeharkako eta ez-esperimental baten bidez egituratu da. Helburua ez da aldagaiak laborategi-ingurune batean manipulatzea, baizik eta une jakin batean ikastaldeen ekoizpen linguistikoa alderatzea. Metodologiari dagokionez, korrelazioetan oinarritutako ikuspegi deskriptibo batetik, adierazle linguistikoen bilakaera eta haien arteko elkarreragina aztertu dira LHn zehar. Horrez gain, analisi inferentzialaren bidez, egiaztatu da adierazle horiek ikasmailan eta ikasleen kalifikazioetan duten isla estatistikoki esanguratsua dela. Azkenik, adierazleen bilakaera eta kalifikazioetan duten eragina ikuspegi kualitatibotik ere aztertu dira, ikasleen testuetako pasarte adierazgarrienak aztertuz.

Beraz, lau dira ikerketa galderak: (1) Zein dira LHko ikasmailak ongien bereizten dituzten adierazle linguistikoak? (2) Zein lotura dago adierazle horien artean? (3) Zein garapen dute adierazle horiek LHn zehar? (4) Ikasmaila bakoitzean, nolakoa da adierazle linguistikoen eta testuek jasotako kalifikazioen arteko elkarrekikotasuna? Horrenbestez, aldagai independenteak ikasmaila (LH1etik LH6ra) eta irakasleak testu bakoitzari emandako kalifikazioa (oinarrizko maila, erdiko maila eta maila aurreratua) dira, eta menpeko aldagaiak, aldiz, hautatutako adierazle linguistikoak eta horien bilakaera.

2.2 **Parte-hartzaileak**

Ikerketa honetako lagina Gipuzkoako eskola publiko bateko LHko ikaslez osatuta dago. Guztira 186 ikaslek parte hartu zuten testuen idazketan, lau mailatan banatuta: lehenengo maila (LH1), bigarren maila (LH2), laugarren maila (LH4) eta seigarren maila (LH6). Maila horiek ziklo bakoitzaren hasiera eta LHren amaiera ordezkatzen dutelako hautatu ziren.

Datuak garbitzeko prozesuan, bost testu baztertu dira honako irizpide hauen arabera: (a) Pedagogia Terapeutikoko (PT) laguntzailearekin idatzi-

tako testu bat, (b) eskatutako hizkuntzan idatzi ez diren bi testu eta (c) kaligrafia kaxkarra izateagatik irakurgaitzak diren beste bi testu. Ondorioz, azken lagina 181 parte-hartzailek (*N = 181*) osatu dute. Testuak anonimizatuta jaso dira. Parte-hartzaileen banaketa 1. taulan xehatzen da.

1. taula. Parte-hartzaileen banaketa ikasmailaren eta kalifikazioaren arabera

	Oinarrizko maila	**Erdiko maila**	**Maila aurreratua**	**Guztira**
LH1	7	10	1	18
LH2	12	19	31	62
LH4	20	46	20	86
LH6	4	6	5	15
Guztira	**43**	**81**	**57**	**181**

Iturria: Egileak prestatua.
Oharra: (*N* = 181).

2.3 **Tresnak**

Ikerketan bildutako datuak prozesatzeko eta aztertzeko, software espezifikoak erabili dira hiru fasetan antolatuta:

1. Digitalizazioa: *Transkribus* (Read-Coop Sce 2015) tresna erabili da eskuz idatzitako testuak formatu digitalera bihurtzeko. Euskarazko HTR ereduak erabili dira aurrelanketa egiteko eta, ondoren, eskuz zuzendu dira testu guztiak, idazlearen akatsak errespetatuta.
2. Adierazleen erauzketa: CTAP (*Common Text Analysis Platform*) tresna baliatu da adierazle linguistikoen neurketa automatikorako (Chen eta Meurers 2016). Tresna horrek NLPko teknikak erabiliz hizkuntzaren konplexutasun-neurriak erauzten ditu hautatutako adierazleen (hitz-token kopurua, aditz-moten kopurua, aditz-sintagmen kopurua eta

izenen gainjartze globala) balio kuantitatiboak kalkulatuz. Jatorrizko tresnak euskarazko testuak onartzen ez dituenez, azpitresna espezifikoak integratu dira (ikus 3. eranskina).

3. Datuen analisia: Antolaketa *Microsoft Excel* bidez egin da eta analisi estatistikorako *Python* programazio-lengoaia erabili da, zehazki, *Pandas* (McKinney 2010), *SciPy* (Virtanen *et al*. 2020) eta *Seaborn* (Waskom 2021) liburutegiak.

2.4 **Prozedura**

Ikerketaren prozedura bost fasetan garatu da:

1. Lehenik, datu-bilketa egin da, Eusko Jaurlaritzaren ebaluazio diagnostikoaren esparruan. Ikasleek beren ohiko ikasgeletan idatzi dituzte testuak, ordubete inguruko saio batean eta tutoreak gainbegiratuta. Testuak ikasmaila bakoitzari egokitutako gai baten gainekoak dira. Horrez gain, aurretik saio bat egin dute testu-mota bakoitzaren egitura lantzeko: irudi baten deskribapena (LH1), asteburuko bizipenen kontakizuna (LH2), norberaren autobiografia (LH4) eta albiste baten gaineko iritzi-artikulua (LH6).

2. Jarraian, tutoreek berek ebaluatu dituzte testuak, errubrika bateratuen arabera (ikus 1. eta 2. eranskinak). Zuzenketa horien kalifikazioak aldagai kategoriko gisa jaso dira, hiru mailatan sailkatuta: oinarrizko maila, erdiko maila eta maila aurreratua.

3. Ondoren, eskuz idatzitako testuak digitalizatu dira. Testuak eskaneatu ondoren, *Transkribus* plataformara igo dira irudiak, testu editagarri bihurtzeko.

4. Segidan, testuak CTAP plataformara (Chen eta Meurers 2016) igo dira eta bakoitzari zegozkion metadatuak (ikasmaila eta kalifikazioa) esleitu zitzaizkion.

5. Azkenik, CTAP tresnari (Chen eta Meurers 2016) euskarazko testuak aztertzeko azpitresnak integratu ondoren (ikus 3. eranskina), adierazle

linguistiko guztiak aukeratu eta testuen ebaluazio automatizatua burutu da NLP algoritmoak aplikatuz. Emaitzak .csv formatuan jaso ziren, eta testu bakoitzak adierazle linguistiko bakoitzean lortutako balio kuantitatiboa zehaztu zen.

2.5 **Datuen analisia**

Datuen prozesamendua bost fasetan burutu da:

1. Lehenik, aurreprozesamendua eta garbiketa egin da *Microsoft Excel* bidez, baliagarriak ez diren testuak kentzeko. Informazioa taula batean antolatu eta .csv formatura esportatu da.
2. Bigarrenik, adierazle linguistikoen hautaketa edo *screening* estatistiko bat egin da. Hautaketa horretarako, CAF (*Complexity, Accuracy, Fluency*) ereduaren egokitzapen bat hartu da abiapuntutzat; konplexutasuna (*complexity*) hiru azpidimentsiotan banatu da (konplexutasun lexikoa, konplexutasun sintaktikoa eta kohesioa), jariakortasunaren (*fluency*) dimentsioa mantenduz. Zehaztasunaren (*accuracy*) dimentsioa ez da kontuan hartu, euskararen prozesamendu automatikoan akats gramatikalak fidagarritasunez neurtzeko tresna estandarizatuak falta direlako oraindik. Jarraian, CTAP tresnak (Chen eta Meurers 2016) eskainitako adierazle guztiak dimentsioetan banatu dira eta dimentsio bakoitzeko adierazle egokiena aukeratu da, irizpide nagusia ikasmailen arteko aldeak hautemateko ahalmena izanik. Horretarako, ikasmailarekin korrelazio altuena (Spearmanen *rs*) erakusten duten adierazleak hautatu dira. Bestalde, adierazleen arteko harremana neurtu da Spearmanen *rs* korrelazio-koefizientearen bidez.
3. Behin datu-basea prestatuta, analisi inferentzialari ekin zaio. Datuen banaketa ez-normala eta bariantza heterogeneokoa dela egiaztatu ondoren (Shapiro-Wilk eta Levene proben bidez), metodo ez-parametrikoak lehenetsi dira. Hori horrela, taldeen arteko konparaketa globalerako (bai ikasmailen artean, bai kalifikazioen artean) Kruskal-Wallis *H* proba erabili da. Estatistikoki esanguratsuak diren kasuetan,

post-hoc analisiak burutu dira binakako konparaketen bidez (Mann-Whitney *U*), Bonferroni zuzenketa aplikatuz I. motako errorea (alfa akatsa) saihesteko eta analisi guztietan esangura-maila $\alpha = 0{,}05$ean ezarri da.

4. Segidan, lerro-grafikoak, kaxa-diagramak eta korrelazio-mapak sortu dira, emaitza esanguratsuak irudikatzeko.

5. Amaitzeko, ikasleen testuak banan-banan aztertu dira. Horretarako, adierazle linguistikoek ikasmailetan zehar izandako garapena islatzen duten pasarte adierazgarrienak hautatu dira, baita kalifikazioen artean diskriminatzeko baliagarriak izan daitezkeenak ere.

3 Emaitzak

3.1 Adierazle linguistikoen hautaketa eta egokitasuna

Arestian aipatu bezala, dimentsioak egokien islatzen dituzten adierazle linguistikoak aukeratu dira (adierazleak kalkulatzeko prozedura zehatza 3. eranskinean ikus daiteke), ikasmailekiko duten korrelazioaren arabera (ikus 2. taula):

1. Hitz-token kopurua, puntuazio-markak eta zenbakiak baztertuz: Adierazle horrek testuan agertzen diren hitz-agerpen guztien kopurua neurtzen du, errepikapenak barne. Neurri horrek testuaren produkzio-kantitatea edo luzera efektiboa islatzen du ($r_s = 0{,}83$, $p < 0{,}001$).

2. Aditz-moten kopurua: Aditz-mota gehiago erabiltzeak gaitasun linguistiko handiagoa erakusten du ($r_s = 0{,}84$, $p < 0{,}001$).

3. Aditz-sintagmen kopurua: Aditz-sintagmen kopuru handiagoak perpausa egituratzeko gaitasun handiagoa eta egitura sintaktiko konplexuagoak islatzen ditu ($r_s = 0{,}81$, $p < 0{,}001$).

4. Izenen gainjartze globalaren desbideratze estandarra, lemetan oinarritua: Balio altuek testuaren kohesio erreferentzial handia adierazten dute ($r_s = 0{,}58$, $p < 0{,}001$).


2. taula. Adierazleen hautaketa eta ikasmailekiko korrelazioa

Dimentsioa	Adierazlea (CTAP)	Spearmanen r_s	*p*
Jariakortasuna	Hitz-token kopurua (puntuazioa eta zenbakiak baztertuta)	0,833	< 0,001
Lexikoa	Aditz-moten aniztasuna (modalak barne)	0,837	< 0,001
Sintaxia	Osagai sintaktikoen kopurua: aditz-sintagma	0,807	< 0,001
Kohesioa	Argumentuen gainjartze globala (lemetan oinarrituta)	0,580	< 0,001

Iturria: Egileak prestatua.
Oharra: (N = 181). Korrelazio guztiak esanguratsuak dira: $p < 0{,}001$.

Behin adierazleak hautatuta, haien arteko harremana aztertu da eta korrelazioen analisiak patroi esanguratsua azaleratu du (ikus 1. irudia). Batetik, jariakortasunaren, lexikoaren eta sintaxiaren arteko korrelazioak oso altuak dira ($r_s > 0{,}94$). Bestetik, kohesioak portaera bereizia erakutsi du, korrelazio nabarmenki baxuagoekin gainontzeko adierazleekiko ($r_s \leq 0{,}82$).

1. irudia. Dimentsio linguistikoen arteko korrelazioen bero-mapa (Separmanen r_s)



Iturria: Egileak prestatua (N = 181).
Oharra: Bero-mapak dimentsio bakoitzeko adierazle linguistikoen arteko Spearmenen korrelazioak (r_s) irudikatzen ditu. Korrelazio guztiak estatistikoki esanguratsuak ($p < 0{,}001$) dira.

3.2 **Adierazle linguistikoen bilakaera LHn**

3.2.1 *Estatistika deskribatzaileak*

Atal honetan, hautatutako adierazle linguistikoek mailaz maila izan duten portaera aztertzen da. Datuen banaketak normaltasunaren printzipioa eta bariantzen homogeneotasuna urratzen dituenez ($p < 0{,}05$ kasu guztietan), metodo ez-parametrikoak erabili dira. Joera zentraleko neurri gisa mediana *(Mdn)* erabili da eta sakabanatze-neurri gisa kuartil arteko zabalera *(IQR)*.

3. taulan ikus daitekeenez, adierazle gehienek garapen nabarmena erakusten dute LH1etik LH4ra. Jariakortasunean, nabaria da ekoizpenak LH2tik LH4ra izan duen gorakada (*Mdn* = 35 eta *Mdn* = 159), non baliorik altuena erregistratzen den. LH6 mailan ekoizpenak apur bat behera egiten du, baina maila altuan mantentzen da (*Mdn* = 144).

Konplexutasun lexikoak eta sintaktikoak antzeko bilakaera dute: konplexutasun lexikoaren kasuan, hazkundea ez da LH4an (*Mdn* = 29) gelditzen, LH6ko ikasleek lortu baitute medianarik altuena (*Mdn* = 37). Konplexutasun sintaktikoan aldiz, LH2tik LH4rako igoeraren ondoren (*Mdn* = 5 eta *Mdn* = 25), LH6an paretsu ageri da (*Mdn* = 23), egonkortasuna iradokiz.

Azkenik, kohesioaren bilakaera zeharo ezberdina da: LH1 eta LH2 mailetako testuetan ez dago izenen gainjartzerik (*Mdn* = 0); LH4an gailurra jotzen du (*Mdn* = 0,68) eta LH6an jaisten da (*Mdn* = 0,23).

3. taula. Adierazleen estatistika deskribatzaileak (*Mdn* eta *IQR*) ikasmailaren arabera

	Jariakortasuna	**Lexikoa**	**Sintaxia**	**Kohesioa**
LH1	12 (6,5)	3 (2,25)	2 (3)	0 (0)
LH2	35 (22)	8 (3)	5 (3)	0 (0,1)
LH4	159 (64)	29 (18)	25 (12)	0,68 (0,81)
LH6	144 (67,5)	37 (12,5)	23 (10)	0,23 (0,15)

Iturria: Egileak prestatua, CTAP bidez lortutako datuetan oinarrituta (*N* = 181).
Oharra: Balioek mediana (*Mdn*) adierazten dute eta parentesi arteko datuek kuartil arteko zabalera (*IQR*).

3.2.2 *Ezberdintasun estatistikoen analisia*

Ikasmailen arteko ezberdintasunak aztertzeko, datuek normaltasunaren eta bariantza-homogeneotasunaren printzipioa betetzen ez dutenez,

Kruskal-Wallis *H* proba hautatu da. Emaitzek frogatu dute lau adierazleetan ikasmailen arteko ezberdintasunak estatistikoki esanguratsuak direla ($p < 0{,}001$). Gainera, kalkulatutako efektuaren tamainak oso handiak dira kasu guztietan ($\eta^2 \geq 0{,}68$). Horrek baieztatzen du dimentsio linguistiko bakoitzerako aukeratu ditugun adierazleek bilakaera nabarmena dutela ikasmailetan aurrera egin ahala (ikus 4. taula).

4. taula. Ikasmailen arteko aldeak adierazle linguistikoetan: Kruskal-Wallis *H* probaren emaitzak

Dimentsioa	**KW (*H*)**	*p*	**η^2**
Jariakortasuna	128,62	< 0,001	0,743
Lexikoa	122,56	< 0,001	0,707
Sintaxia	119,16	< 0,001	0,687
Kohesioa	118,13	< 0,001	0,681

Iturria: Egileak prestatua ($N = 181$).
Oharra: Konparaketak Kruskal-Wallis *H* probaren bidez egin dira eta alde guztiak estatistikoki esanguratsuak dira ($p < 0{,}001$). η^2 balioek efektu-tamaina handia adierazten dute kasu guztietan ($\eta^2 \geq 0{,}681$).

Ezberdintasun horien jatorria zehazteko, binakako konparaketak (*post-hoc*) burutu dira Mann-Whitney *U* proben bidez, Bonferroni zuzenketarekin (*p*-balio doitua: $p \times 6$) (ikus 5. taula). Jariakortasuna eta sintaxia lehen urteetan garatu dira nagusiki: LH1etik LH2ra eta LH2tik LH4ra aldeak oso esanguratsuak dira ($p < 0{,}001$), efektu-tamaina ertain-handiekin ($r \geq 0{,}36$). Hala ere, LH4 eta LH6 mailen artean garapena egonkortu egin da; ez da alde esanguratsurik aurkitu ($p = 1$) eta efektu-tamaina baxuek ($r < 0{,}05$) gaitasun horiek LH4rako sendotu egiten direla iradokitzen dute.

Konplexutasun lexikoan, garapena motelagoa izan da. LH1 eta LH2 artean alde esanguratsuak dauden arren, efektuaren tamaina ertaina da

(r = 0,31) eta LH2tik aurrera ez da hazkunde esanguratsurik hautematen maila hurbilen artean. Aipagarria da LH1 eta LH6 artean esangura galtzen dela Bonferroni zuzenketaren ondorioz (p_{adj} = 0,307).

Kohesioak, berriz, garapen berantiarragoa eta iraunkorragoa erakutsi du. Lehen zikloko mailen artean (LH1-LH2) ez dago alderik (p = 0,399), baina LH2tik LH4ra jauzi kualitatibo handia gertatzen da (r = 0,80). Beste dimentsioetan ez bezala, kohesioak beherakada handia jasaten du LH4tik LH6ra (p = 0,001, r = 0,37).

5. taula. Ikasmailen arteko bikote-konparaketak (*post-hoc*) adierazle linguistikoetan: Mann-Whitney *U* probaren emaitzak

Dimentsioa	Konparaketa	p-adj	Esang.	r (Efektu-tamaina)	Puntuazio altuena
Jariakortasuna	LH1 eta LH2	< 0,001	Bai	0,617	LH2
	LH1 eta LH4	< 0,001	Bai	0,629	LH4
	LH1 eta LH6	< 0,001	Bai	0,836	LH6
	LH2 eta LH4	< 0,001	Bai	0,827	LH4
	LH2 eta LH6	< 0,001	Bai	0,617	LH6
	LH4 eta LH6	1	Ez	0,046	-
Lexikoa	LH1 eta LH2	0,042	Bai	0,306	LH2
	LH1 eta LH4	0,039	Bai	0,271	LH4
	LH1 eta LH6	0,307	Ez	0,370	-
	LH2 eta LH4	1	Ez	0,102	-
	LH2 eta LH6	1	Ez	0,048	-
	LH4 eta LH6	1	Ez	0,049	-

Sintaxia	LH1 eta LH2	0,009	Bai	0,359	LH2
	LH1 eta LH4	< 0,001	Bai	0,614	LH4
	LH1 eta LH6	< 0,001	Bai	0,836	LH6
	LH2 eta LH4	< 0,001	Bai	0,804	LH4
	LH2 eta LH6	< 0,001	Bai	0,619	LH6
	LH4 eta LH6	1	Ez	0,028	-
Kohesioa	LH1 eta LH2	0,399	Ez	0,172	-
	LH1 eta LH4	< 0,001	Bai	0,615	LH4
	LH1 eta LH6	< 0,001	Bai	0,779	LH6
	LH2 eta LH4	< 0,001	Bai	0,790	LH4
	LH2 eta LH6	< 0,001	Bai	0,457	LH6
	LH4 eta LH6	0,001	Bai	0,375	LH4


Iturria: Egileak prestatua ($N = 181$).
Oharra: Konparaketak Mann-Whitney *U* probaren bidez egin dira. *p*-adj: Bonferroni zuzenketaren bidez lortutako *p*-balio doitua ($p \times 6$). *Esang.*: Bai (alde esanguratsua, $p < 0,05$); Ez (alderik ez, $p \geq 0,05$). *r* (Efektu-tamaina): 0,1 (txikia), 0,3 (ertaina) eta 0,5 (handia). Puntuazio altuena lortu duen eskola-maila ere adierazita dago.

2. irudian adierazle linguistikoen bilakaera agertzen da ikasmailetan zehar. Adierazle bakoitzak eskala ezberdina duenez, datuak estandarizatu egin dira puntuazio tipifikatuen bidez (Z puntuazioak), guztien garapen-erritmoa grafiko bakarrean ikusteko. Puntu bakoitzak taldearen batezbesteko aritmetikoa adierazten du eta errore-barrek % 95eko konfiantza-tartea (KT % 95) irudikatzen dute. Ardatz bertikalak puntuazio tipifikatuak adierazten ditu; horrenbestez, 0 lerroak lagin osoaren batezbestekoa markatzen du.

2. irudian ikus daitekeen grafikoak argi islatzen ditu arestian atzemandako joera nagusiak: goranzko joera eta egonkortzea dago jariakortasunean; lexikoan eta sintaxian LH1etik LH4ra, malda handiekin. Hala ere, aurreko

Mann-Whitney *U* proban ez bezala, LH2tik LH4ra gorakada bat ageri da lexikoan. LH4tik LH6ra, ordea, lerro guztiak (lexikoa izan ezik) horizontalak dira edo errore-barrak gainjartzen dira. Gainjartze horrek bisualki berresten du bi maila horien artean ez dagoela alde estatistiko esanguratsurik, eta garapenaren egonkortzea irudikatzen du. Kohesioaren portaera ezberdina da, ordea: hasierako egonkortasunaren ondoren, LH4n gailurra jotzen du eta LH6n nabarmen egiten du behera, lagin osoaren batezbestekotik behera kokatuz berriro.

2. irudia. Adierazle linguistikoen bilakaera ikasmailetan zehar



Iturria: Egileak prestatua (*N* = 181).
Oharra: Balioak puntuazio tipikoen bidez (Z puntuazioak) adierazi dira dimentsioen arteko konparaketa errazteko. Puntu bakoitzak taldearen batezbesteko aritmetikoa adierazten du eta errore-barrek % 95eko konfiantza-tartea (KT % 95) irudikatzen dute.

3.2.3 *Bilakaeraren deskribapen kualitatiboa*

Adierazleek ikasmailaz ikasmaila izan duten bilakaera estatistikoki aztertu ondoren, funtsezkoa da emaitzak ikuspegi linguistikotik interpretatzea, ikasleen testuetako pasarte adierazgarriak aipatuz. Analisi honetan alde batera utzi da jariakortasunaren adierazlea (hitz-tokenen kopurua, puntuazio-markak eta zenbakiak baztertuz, ikus 3. eranskina), hizkuntzaren garapen kualitatiboari buruzko informazio nahikorik ematen ez duelako.

3.2.3.1 ADITZ TRINKOEN ETA PERIFRASTIKOEN BILAKAERA

Aditz trinkoen errepertorioa zabaldu egiten da LHn. LH1 mailan, *izan* («olagarroa epailea da») eta *egon* («marrazoa igerilekuan dago») aditz trinkoak erabili dituzte irudiko elementuen izaera eta kokapena deskribatzeko. LH2 mailan, lehengoez gain, asteburuko bizipenak kontatzeko mugimendua adierazten duten *joan* («etxera nindoan») eta *etorri* («[lagunaren izena] etxera zetorren») aditzak erabili dituzte. LH4 mailan, ikasleek beren autobiografia idaztean, *eduki* aditza sarri erabili dute («bederatzi urte dauzkat», «begi marroiak dauzkat»), adina eta jabetza adierazteko. LH6 mailan, aldiz, ez da aditz trinko berririk erabili; aurrekoak erabili dituzte egoera eta argudioak azaltzeko.

Aditz perifrastikoen eta aspektuaren bilakaera ere nabarmena da LHn. LH1 mailan, irudien deskribapenak egiteko, aditz perifrastiko burutugabeak erabili dituzte gehienbat, pertsonaiak une horretan egiten ari diren ekintza jarraituak zehazteko («katua arrantzan ari da», «txakurra zukua edaten ari da»). LH2 mailan, ordea, asteburuan egindakoaren berri emateko aditz perifrastiko burutuak darabiltzate nagusiki («pelikula ikusi nuen», «dantza egin nuen»). LH4 mailako autobiografietan, iraganeko ekintzak gogoratzeko aditz perifrastiko burutuak erabiltzeaz gain, orainaldikoak ere erabili dituzte, haien zaletasunak eta ohiturak adierazteko («igeri egiten dut»). LH6 mailako iritzi-artikuluetan, orainaldiko aditz perifrastikoez gain, etorkizuneko aditz-formak ere erabiltzen dituzte («denbora gehiegi pasatuko dute»).

3.2.3.2 DISKURTSOAREN ANALISIA: MODALITATEA ETA PERPAUS-ELKARKETA

LH1 eta LH2 mailetan ez da modalitatezko egiturarik ageri; lehenengo mailan ikasleak irudi baten deskribapen faktikora mugatzen dira eta bigarren mailan iraganeko gertaerak kontatzen dituzte, besterik gabe. LH4 mailan, ordea, garapen kualitatibo garrantzitsu bat gertatzen da, ikasleek beren autobiografietan desirak eta asmoak adierazten baitituzte. Etorkizuneko nahiak eta lanbideak proiektatzen dituzte: «handitan albaitaria izan nahi

nuke»[2]. Ahalera («kirola egin dezaket») eta betebeharra adierazten duten egiturak ere agertzen dira («larrialdietara joan behar izan nuen»). LH6 mailan modalitatearen garapena are nabarmenagoa da, aukerak eta arriskuak aurkezteko ahalera-egiturak erabiltzen dituztelako («mugikorretik min asko egin daiteke»), baita ezintasuna islatzen dutenak ere («ezingo genien abisatu gurasoei»). Betebeharra adierazten duten egiturak ugaritzen dira («neurri bat hartu behar da») eta kausa-ondorio harremanak zein ondorio hipotetikoak ezartzen dituzte baldintzazko egituren bidez («mugikorra debekatzen badute, ezingo gara bata-bestearekin komunikatu»).

Perpaus-elkarketak bilakaera nabarmena du, eta idazten duten testumotaren konplexutasunarekin batera garatzen da. LH1 mailan, irudiaren deskribapena egitean, alborakuntza erabiltzen dute («Marrazoa dago. Mutilak betaurrekoak ditu.»). LH2 mailan, aldiz, asteburuko gertaerak kronologikoki kontatzen dituzte, *eta* edo *gero* juntagailuak («atzo parkera joan nintzen eta gero izozkia jan nuen») eta helburuzko mendeko perpausak («baserrira joan nintzen han bazkaltzeko») baliatuz. LH4 mailako autobiografietan egitura konplexuagoak eratzen dira; denborazko menderakuntza-egiturak («txikia nintzenean burua ireki nuen») eta kausazkoak («triste nago datorren urtean bosgarren mailara joango garelako») txertatzen dituzte. Azkenik, LH6 mailako iritzi-artikuluetan perpaus-elkarketa landuagoa ageri da; argudiaketari eusteko kausa-ondorio harremanak eta ondorio hipotetikoak ezartzen dituzten baldintzazko menderakuntza-egiturak («ume bat bakarrik badago eta min handia hartzen badu, mugikorretik 122ra deitu dezake») agertzen dira.

3.2.3.3 KOHESIOA: IZENEN GAINJARTZE GLOBALA

LH1 eta LH2 mailetan, izenen gainjartze globalaren desbideratze estandarra nulua izan da, baina arrazoi ezberdinengatik. LH1 mailan, ikasleek irudiko elementuak zerrendatu dituzte («Marrazoa dago. Mutilak betaurrekoak ditu.»), eta esaldi bakoitzeko elementu berri bat aurkeztu dutenez, ia

[2] Adibideetan ikasleek idatzitako pasarteak hitzez hitz jaso dira.

ez da lemen errepikapenik hauteman eta gainjartze-balioek (ikus 3. eranskina) ez dute aldakortasunik erakutsi.

LH2 mailan, berriz, asteburuko bizipenen kontakizun kronologikoa egin dute; perpausak bata bestearen atzetik kateatu dituzten arren, gai eta testuinguruak etengabe aldatu dira («larunbatean Azpeitian karrerako kotxeak ikusi nituen eta gero baserrira joan nintzen bazkaltzera eta arratsaldean gimnasia erritmikoa ikustera joan nintzen»). Ondorioz, esaldien arteko lema-gainjartze balioak konstanteak izan direnez, izenen gainjartze globalaren desbideratze estandarra nulua izan da. Horrez gain, badira sistema automatikoak detekta ezin ditzakeen kohesio-elementuak: aditzaren elipsia («bonboiak eman zizkiguten eta ogia ere bai») eta subjektuaren elipsia («Larunbatean Leitzara joan nintzen [...] aspertu egin nintzen») egiten da.

LH4 mailan, autobiografiak izenen gainjartze globala baldintzatu du, ikasleek testua bloke tematikoetan antolatu baitute (aurkezpena, familia, iragana eta zaletasunak). Egitura horrek kohesio-matrizean balio altuagoak eta desbideratze estandar handiagoa eragin ditu; bereziki nabarmena da familia-kideen errepikapena, pertsona horiek kontakizunaren hainbat ataletan agertzen baitira. Hala ere, sistema automatikoak gainjartzea literalki neurtzen duenez, ez du testuaren kohesioa bere osotasunean neurtu: pertsonei dagokienez, hasieran «ama» aipatu badute eta aurrerago amaren izena erabili badute, sistema automatikoak ez du gainjartze hori neurtu. Sistemak detekta ezin ditzakeen beste kohesio-elementu batzuk bi hauek dira: aditzaren elipsia («nire amamak [amonaren izena] izena du eta nire aitak [aitaren izena]») eta *pro-dropa* («[herriaren izena] bizi naiz eta 4A gelan nago»).

LH6 mailan, iritzi-testuek ardatz tematiko nagusi eta egonkor bat dutenez, gai horiei dagozkien lemak maiz errepikatu dira. Hala ere, argudiaketa blokeka antolatu denez, lemak bloke barruan errepikatu ondoren, hurrengo blokera pasatzean, desagertu eta berriak agertu dira, eta puntuazioak jaitsi dira. Beste muga bat antzeman da maila honetan: sinonimoen erabilerak («mobila», «mugikorra», «telefonoa») elementu zentralen gainjartzea ezkutatu du neurketa automatikoan. *Pro-dropa* («mugikorrak ez dira jokoetan jolasteko bakarrik [...] debekua jarrita ere askok erabiltzen jarraitzen dute

[...] baina hobea izango zen ez bazuten edukiko») ere agertzen da, eta sistema automatikoak neurtu ezin duenez, adierazleak ez du testuaren kohesioa bere osotasunean neurtu.

3.3 **Adierazle linguistikoen eragina kalifikazioetan ikasmailaren arabera**

3.3.1 *Ezberdintasun estatistikoen analisia*

Adierazle linguistikoek irakasleek emandako kalifikazioetan (oinarrizko maila, erdiko maila eta maila aurreratua) duten eragina esanguratsua den aztertzeko Kruskal-Wallis *H* proba aukeratu da, datuek ez dituztelako baldintza parametrikoak betetzen.

6. taulako emaitzek erakusten dutenez, hainbat kasutan efektu-tamaina handiak ($\eta^2 \geq 0{,}22$) detektatu dira, nahiz eta esangura-maila $p < 0{,}05$ mugatik gora egon. Hori bereziki nabarmena da LH1eko jariakortasunean ($\eta^2 = 0{,}27$) eta lexikoan ($\eta^2 = 0{,}22$), baita LH6ko jariakortasunean ($\eta^2 = 0{,}32$) eta sintaxian ($\eta^2 = 0{,}43$) ere. Esangura estatistikorik ezak, efektu-magnitude altu horiekin batera, iradokitzen du taldeen artean alde handiak egon arren, maila horietako lagin-tamaina txikiek ($N = 18$ eta $N = 15$) mugatu egin dutela alde horiek ziurtasun estatistikoz berresteko gaitasuna.

Hala ere, LH1 mailan ezberdintasun esanguratsuak aurkitu dira sintaxian ($H = 6{,}26$, $p = 0{,}044$) eta kohesioan ($H = 8{,}33$, $p = 0{,}015$), non efektuaren tamainak oso handiak diren ($\eta^2 > 0{,}3$). Alabaina, LH2 mailan lotura hori desagertu egin da dimentsio guztietan, esangura-mailek eta efektu-tamainek erakutsi duten bezala ($p > 0{,}05$, $\eta^2 \leq 0{,}01$). LH4 mailan, lexikoan ($p = 0{,}019$) eta sintaxian ($p = 0{,}004$) alde esanguratsuak atzeman dira, azken horren kasuan, efektuaren tamaina ertain-handia ($\eta^2 = 0{,}11$) izanik. Azkenik, LH6 mailan esangura galdu da dimentsio guztietan ($p > 0{,}05$), nahiz eta efektuaren tamaina gehienak handiak izan, arestian aipatu bezala.

6. taula. Kalifikazioen arteko aldeak adierazle linguistikoetan ikasmailaren arabera: Kruskal-Wallis *H* probaren emaitzak

Maila	Dimentsioa	KW (*H*)	*p*	Esang.	η^2
LH1	Jariakortasuna	5,519	0,063	Ez	0,271
	Lexikoa	4,892	0,087	Ez	0,222
	Sintaxia	6,26	0,044	Bai	0,328
	Kohesioa	8,333	0,015	Bai	0,487
LH2	Jariakortasuna	1,068	0,586	Ez	− 0,016
	Lexikoa	2,731	0,255	Ez	0,013
	Sintaxia	2,247	0,325	Ez	0,004
	Kohesioa	1,397	0,497	Ez	− 0,01
LH4	Jariakortasuna	5,081	0,079	Ez	0,038
	Lexikoa	7,877	0,019	Bai	0,072
	Sintaxia	11,02	0,004	Bai	0,11
	Kohesioa	2,751	0,253	Ez	0,009
LH6	Jariakortasuna	4,545	0,103	Ez	0,318
	Lexikoa	3,045	0,218	Ez	0,131
	Sintaxia	5,419	0,066	Ez	0,427
	Kohesioa	0,833	0,659	Ez	− 0,146

Iturria: Egileak prestatua ($N = 181$).
Oharra: KW (*H*): Kruskal-Wallis *H* estatistikoa. *p*: esangura-maila (esanguratsua $p < 0,05$ denean). *Esang.*: Bai (alde esanguratsua); Ez (alderik ez). η^2: efektu-tamaina, non 0,01 (txikia), 0,06 (ertaina) eta 0,14 (handia) diren erreferentzia-balioak. Kasu batzuetan efektu-tamaina handia izan arren ($\eta^2 > 0,14$), esangura-maila ez da lortu ($p > 0,05$), batez ere lagin-tamaina murritzeneko mailetan.

Behin Kruskal-Wallis *H* probaren bidez alde orokorrak identifikatu ondoren, Mann-Whitney *U post-hoc* analisia burutu da, ezberdintasun horiek zein taldetan gertatu diren zehazteko (ikus 7. taula). Emaitzek erakutsi dutenez, Kruskal-Wallis *H* proban agertutako esangura gehienak lausotu egin dira bikote-analisian, Bonferroni zuzenketaren zorroztasunagatik.

LH1 mailan, sintaxian eta kohesioan atzemandako aldeak ez dira esanguratsuak izan bikoteen artean ($p_{adj} > 0,05$). Kruskal-Wallis *H* proba orokorrak alde esanguratsuak detektatu dituen arren ($p = 0,044$ eta $p = 0,015$), binakako Mann-Whitney *U post-hoc* analisian esangura hori desagertu egin da ($p_{adj} > 0,05$). Litekeena da gertakari hori bi faktore nagusiren ondorio izatea: Bonferroni zuzenketaren zorroztasunagatik, aldi berean hainbat konparaketa egitean, zuzenketak *p*-balioaren muga asko estutzen duelako I. motako errorea (alfa errorea) saihesteko eta horrek esangura lortzea zailtzen duelako. Bestalde, potentzia estatistiko falta ere izan liteke gertakari horren kausa: LH1eko laginaren tamaina eta banaketa (oinarrizko mailako zazpi testu, erdiko mailako hamar eta maila aurreratuko bakarra) oso txikia eta desorekatua izanik, Kruskal-Wallis *H* proba gai izan arren taldeen arteko alde orokorrak antzemateko, Mann-Whitney *U* probak ez du nahikoa potentzia estatistikorik alde horiek bikote zehatzen artean atzemateko.


Era berean, LH4ko lexikoan, hasiera batean aldea esanguratsua bazen ere ($p = 0,019$), *post-hoc* analisian ez da taldearteko alderik aurkitu, talde horretako lagina handiagoa izanik ere kalifikazio guztietan. Esangura LH4ko sintaxian mantendu da soilik eta kasu zehatz batzuetan bakarrik: oinarrizko mailaren (1) eta erdiko mailaren (2) artean ($p_{adj} = 0,005$) eta hasierako mailaren (1) eta maila aurreratuaren (3) artean ($p_{adj} = 0,042$). Aldiz, erdiko mailaren eta aurreratuaren artean (2 eta 3) ez dago alderik ($p_{adj} = 1$), beraz, sintaxiari dagokionez, LH4ko kalifikazioen arteko arrakala nagusia oinarrizko mailan dauden ikasleen eta gainerakoen artean dago (ikus 3. irudia).

7. taula. Kalifikazioen arteko bikote-konparaketak *(post-hoc)* adierazle linguistikoetan eta ikasmaila bakoitzean: Mann-Whitney *U* probaren emaitzak

Maila	Dimentsioa	Konparaketa	*p*-adj	Esang.	*r* (Efektu-tamaina)	Kalifikazio altuena
LH1	Sintaxia	1 eta 2	0,12	Ez	0,517	-
		2 eta 3	0,82	Ez	0,385	-
		1 eta 3	0,584	Ez	0,567	-
	Kohesioa	1 eta 2	1	Ez	0,091	-
		2 eta 3	0,140	Ez	0,495	-
		1 eta 3	0,124	Ez	0,567	-
LH4	Lexikoa	1 eta 2	0,563	Ez	0,161	-
		2 eta 3	1	Ez	0	-
		1 eta 3	0,771	Ez	0,184	-
	Sintaxia	1 eta 2	0,005	Bai	0,385	2
		2 eta 3	1	Ez	0,052	-
		1 eta 3	0,042	Bai	0,395	3

Iturria: Egileak prestatua ($N = 181$).
Oharra: Kalifikazioak hiru mailatan banatu dira: 1 (oinarrizko maila), 2 (erdiko maila) eta 3 (maila aurreratua). Konparaketak Mann-Whitney *U* probaren bidez egin dira. *p*-adj: Bonferroni zuzenketaren bidez lortutako *p*-balio doitua ($p \times 3$). Esang.: Bai (alde esanguratsua, *p*-adj $< 0,05$); Ez (alderik ez, *p*-adj $\geq 0,05$). *r* (Efektu-tamaina): 0,1 (txikia); 0,3 (ertaina) eta 0,5 (handia). Kalifikazio altuena (puntuazio altuena lortu duen kalifikazioa) ere adierazita dago.

3. irudia. Sintaxiko puntuazioen banaketa kalifikazioen arabera LH4 mailan



Iturria: Egileak prestatua (*N* = 181).
Oharra: Kaxa-diagramek LH4ko ikasleek sintaxian lortutako puntuazioen banaketa erakusten dute kalifikazio-kategorien arabera: 1 (oinarrizko maila), 2 (erdiko maila) eta 3 (maila aurreratua).

3.3.2 *Ezberdintasunen deskribapen kualitatiboa*

Analisi estatistikoak erakutsi du LH4 mailan aditz-sintagmen kopurua neurtzen duen adierazlea dela testuak kalifikazioen arabera diskriminatzeko gaitasuna duen bakarra. Zehazki, aldea oinarrizko mailako ikasleen eta gainerakoen (maila ertaina eta aurreratua) artean hauteman da, baina ez maila ertainaren eta aurreratuaren artean. Emaitza estatistiko horiek testuen azterketa kualitatiboaren bidez argitu eta osatu daitezke.

Aditz-mota kopuruaren adierazleak ez du kalifikazioen arteko bereizketa egiteko gaitasunik erakutsi; hala ere, modalitate-formek kalifikazioen arteko ezberdintasun kualitatiboak argiago erakuts ditzakete. Oinarrizko mailako testuetan modalitatearen erabilera oso mugatua da, deskribapen estatiko eta ekintza burutuetara mugatu direlako ikasleak («ni bizi naiz [ikaslearen herrian]») eta nahia adierazteko saiakerak segmentazio-arazoekin (hitzak elkartuta idaztea) gertatu direlako («nire aitak nahizuen militarra izan»). Erdi mailako testuetan modalitatearen oinarrizko erabilerak agertzen dira nahia edo asmoa adierazteko, nahiz eta akats morfosintaktikoak eta segmentazio-arazoak ohikoak izan oraindik («nahi konuke izan andereñoa»). Maila aurreratuko testuetan segmentazio-arazoak nabarmen murrizten diren arren, modalitate-adierazpenak egitura perifrastiko sinpleetara mugatzen dira («nik ez dut nahi joan»). Aitzitik, modalitate hipotetikoa adierazten duten *nuke, nezake* edo *banintz* bezalako formak oso urriak dira.

Aditz-sintagmen kopuruari dagokionez, analisi estatistikoak erakutsi du adierazle horrek kalifikazioen arteko alde esanguratsuak hauteman ditzakeela. Oinarrizko mailako testuetan aditz-sintagmen segidak gailendu dira; ikasleek egitura predikatibo sinpleak pilatu dituzte, euren arteko lotura sintaktiko gutxirekin («oraintxe bertan [ikaslearen herrian] bizi naiz [ikaslearen eskolan] ikasten dut 4D gelan nago»). Erdiko mailako testuetan, aldiz, aditz-sintagmen arteko koordinazioa justaposizioaren edo *eta* juntagailuaren bidez lortzen da («ni txikia nintzenean haur eskolara joan nintzen, han [lagunaren izena] ezagutu nuen eta nire lagunik onena izan zen»). Maila aurreratuko testuetan, berriz, aditz-sintagmen interakzio hierarkikoa nabarmendu da, menderakuntza-egituretan txertatutako egitura predikatiboen bidez, denborazko egituretan bereziki («eskolan hasi nintzenean arbelaren kontra jo nintzen»).

Azkenik, izenen gainjartze globalaren desbideratze estandarrak ez du erakutsi kalifikazioen artean diskriminatzeko gaitasun esanguratsurik. Bi fenomenok lagundu dezakete hori azaltzen: batetik, oinarrizko eta erdiko mailako testuetan, ortografia-akatsak direla eta, lematizazioa ez da egokia izan beti eta horrek kohesioaren neurketa zigortu du. Bestetik, maila aurreratuko testuetan desbideratze estandarra altuagoa izan arren, aldea ez da

estatistikoki esanguratsua izan: ikasleek bloke tematikoak egituratu dituzte (aurkezpena, familia, iragana eta zaletasunak), blokearen barruan lemak errepikatuz, baina hurrengo blokera pasatzean aurreko lemak errepikatu ez direnez, gorabeherak sortu dira gainjartze-matrizean (ikus 3. eranskina). Aurretik aipatutako elipsiek ere (aditzaren elipsia: «nire amamak [amonaren izena] izena du eta nire aitak [aitaren izena]» eta *pro-dropa*: «[herriaren izena] bizi naiz eta 4. mailan nago») agerian utzi dute adierazle honen muga: sistema automatikoak ez dituenez ezaugarri horiek neurtzen, kohesioaren zenbait elementu analisi kuantitatibotik kanpo geratu dira.

4 **Eztabaida**

Ikerketaren emaitzek LHko idazmenaren garapenari buruzko interpretazio zehatza ahalbidetu dute, eta, orokorrean, bat datoz sarreran aipatutako euskararen ezaugarri tipologikoekin. Jariakortasunaren, lexikoaren eta sintaxiaren arteko korrelazio altuek adierazten dute hiru dimentsio horiek garapen-bloke integratu bat osatzen dutela; hau da, idatzizko ekoizpena handitzearekin batera, hizkuntza-aberastasuna ere areagotzeko joera dago. Hala ere, goranzko joera hori bereziki LH1 eta LH4 artean nabaritu da dimentsio horietan, adierazleen emaitzak egonkortu egin baitira azken zikloan.

Kohesioak, aldiz, portaera independentea erakutsi du. Lehen zikloan balio minimoak erregistratu dira, LH4 mailan gailurra jo du eta LH6 mailan beherakada nabarmena antzeman da. Beherakada horrek, ordea, ez du zertan kohesioaren ahultzerik adierazi; aitzitik, litekeena da ikasleek sinonimoak eta elipsirako baliabideak erabiltzean, sistema automatikoak fenomeno horiek neurtu ez izana. Horrek Givónek (1983) eta beste autore batzuek azaldutakoarekin bat egiten du: euskararen *pro-drop* izaeraren ondorioz, argumentuen jarraipena sarritan aditzaren morfologian kodetzen da eta izen-sintagmen elipsia ohikoa da diskurtsoan.

Emaitzek agerian utzi dute euskararen flexio-morfologiaren konplexutasunak (Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordea 2021) analisi kuantitatiboaren interpretazioa baldintzatzen duela. Hitz-tokenetan oinarritutako

neurketek lexikoaren aberastasuna modu partzialean islatzeko arriskua dute, forma bakar batek aldaera morfologiko ugari izan baititzake (Aduriz *et al.* 2000). Ondorioz, lema-mailako adierazleak egokiagoak dira errepertorio lexikoa modu fidagarriagoan neurtzeko (McCarthy eta Jarvis 2010). Halaber, nabarmena da aditzak perpausaren egitura sintaktikoan duen funtzio zentral eta egituratzailea (Hualde eta Ortiz de Urbina 2003). Horrenbestez, aditz-formadun egituren analisia egokia izan da garapen sintaktikoa ebaluatzeko (Biber, Conrad eta Reppen 1998).

Bilakaeraren azterketa kualitatiboak erakutsi du aditz-errepertorioak eta perpaus-elkarketak garapen progresiboa izan dutela Lehen Hezkuntzan, testu-mota bakoitzaren konplexutasunarekin batera. LH1 mailan deskribapen-egiturak nagusitzen dira (*izan* eta *egon* aditzak, eta alborakuntza); LH2 mailan, asteburuko gertaeren kontakizun kronologikoak ageri dira, juntagailuen (*eta*, *gero*) eta aditz perifrastiko burutuen bidez; LH4 mailako autobiografietan egitura konplexuagoak garatzen dira: denborazko eta kausazko menderakuntza-egiturak, desioak adierazteko modalitate-egiturak eta aditzaren zein subjektuaren elipsia. Azkenik, LH6 mailako iritzi-artikuluetan argudiaketa-egitura konplexuak nagusitzen dira, kausa-ondorio harremanak eta ondorio hipotetikoak adierazten dituzten baldintzazko menderakuntza-egituren bidez. Arestian aipatu bezala, kohesioaren neurketa automatikoak aldakortasun nabarmena erakutsi du, sinonimoen erabileraren eta sistema automatikoak neurtu ezin ditzakeen elipsi zein *pro-drop* mekanismoen ondorioz.

Irakasleek emandako kalifikazioen artean diskriminatzeko gaitasuna erakutsi dute adierazleek, eta ondorioztatu da LH4 mailako sintaxiak soilik erakutsi duela gaitasun hori, zehazki, oinarrizko mailako ikasleen eta gainerakoen (maila ertaina eta aurreratua) artean. Litekeena da lagin-tamaina txikiek eta Bonferroni zuzenketaren zorroztasunak potentzia estatistikoa mugatu izana. Ildo berean, Kruskal-Wallis probaren emaitzek esangura orokorra adierazi badute ere, *post-hoc* analisietan ez da beti esangura hori mantendu, eta horrek, bikoteen arteko konparaketa zehatzetarako datu gehiago behar direla iradokitzen du. Ikuspegi kualitatiboak perpaus-elkarketaren bilakaera argi eta koherentea erakutsi du: oinarrizko mailetan lotura sintaktikorik gabeko egitura predikatibo sinpleen pilaketa eta albo-

rakuntza nagusitzen dira, erdiko mailan juntadurak ageri dira eta maila aurreratuko testuetan menderakuntza-egiturak garatzen dira.

Azkenik, ikerketa honen zenbait muga metodologiko eta estatistiko azpimarratu behar dira. Batetik, baliteke LH1 eta LH6 mailetako lagintamaina txikiek analisi estatistikoen potentzia murriztu izana; ondorioz, Kruskal-Wallis proban islatutako zenbait alde orokor *post-hoc* analisietan lausotu egin dira Bonferroni zuzenketaren zorroztasunagatik. Bestetik, maila bakoitzean testu-mota desberdinak erabiltzeari lotutako heterogeneotasunak emaitzen konparagarritasuna baldintza dezake. Hori ikerketa-diseinuaren berezko muga da, adin desberdinetako haurren garapen kognitiboak eta linguistikoak testu-eskaera ezberdinak justifikatzen baitituzte. Kohesioaren kasuan, frogatu da erabilitako adierazle automatikoak (izenen gainjartze globalaren desbideratze estandarra) ezin dituenez zenbait kohesio-elementu detektatu (hala nola sinonimoen eta elipsirako baliabideen erabilera), neurketa kuantitatiboak kohesioa bere osotasunean neurtu ez izana puntuazio baxua eragin du. Aipatu beharra dago ezin izan dela CAF (*Complexity, Accuracy, Fluency*) markoa bere osotasunean aztertu, ez baita oraindik zehaztasuna (*accuracy*) neurtzeko tresna automatiko fidagarririk garatu euskararako.

5 Ondorioak

Ikerketa honek Lehen Hezkuntzako idazmenaren garapena aztertu du, CTAP tresna eta CAF (*Complexity, Accuracy, Fluency)* markoa euskararen berezitasun tipologikoetara (flexio-morfologia, aditzaren zentralitatea eta *pro-drop* izaera) egokituz. Lortutako emaitzek erakutsi dute ebaluazio automatizatuaren ikuspegitik, euskara bezalako hizkuntza eranskari eta morfologikoki konplexuetan, hitz-tokenetan oinarritutako metrikek lexikoaren erabileraren irudi partziala edo distortsionatua eman dezaketela. Testuinguru horretan, lema-mailako adierazleak erabiltzea eta aditz-formadun egituren analisi kuantitatibo nahiz kualitatiboa uztartzea estrategia egokiak eta fidagarriak dira ikasleen hizkuntza-aberastasuna eta garapen sintaktikoa ebaluatzeko.

Gaitasun sintaktikoaren garapenari dagokionez, emaitza kuantitatiboek eta kualitatiboek erakutsi dute kalifikazio-mailak bereizteko gaitasun estatistiko esanguratsua LH4ko sintaxi-adierazlean soilik identifikatu dela. Azterketa kualitatiboak, gainera, bilakaera progresibo argia erakutsi du: oinarrizko mailako lotura sintaktikorik gabeko egitura predikatibo sinpleen pilaketatik erdiko mailako koordinazio-egituretara eta maila aurreratuko menderakuntza-egituretara igaro dira ikasleak.

Kohesioaren neurketari dagokionez, emaitzek adierazle automatikoaren zenbait muga metodologiko azaleratu dituzte. Bereziki, izenen gainjartze globalean oinarritutako metrikek ez dituzte behar bezala jasotzen kohesioa eraikitzeko erabiltzen diren hainbat baliabide diskurtsibo, hala nola elipsia, *pro-drop* mekanismoak eta sinonimoen erabilera. Ondorioz, neurketa kuantitatiboek ez dute kohesio-maila bere osotasunean islatu, eta hori puntuazio baxuetan antzematen da.

Inplikazio pedagogikoei dagokienez, emaitzek iradokitzen dute aditz-egituren, perpaus-elkarketen, modalitatearen eta menderakuntza-egituren garapenak lotura estua duela ikasleen idazmenarekin. Horrenbestez, alderdi horiek era sistematikoan lantzea eraginkorra izan daiteke idazmena garatzeko.

Azkenik, etorkizuneko ikerketek lagin handiagoak hartu beharko lituzkete kontuan, Lehen Hezkuntzako ikasmaila guztiak barne hartuz, eta, ahal den neurrian, testu-mota homogeneoagoak erabiliz. Era berean, beharrezkoa da kohesioa modu integralagoan neurtzeko adierazle berriak garatzea, baita euskaraz zehaztasuna (*accuracy*) modu fidagarrian ebaluatzeko tresna automatiko espezifikoak diseinatzea ere. Horrela, CAF (*Complexity, Accuracy, Fluency*) markoaren hiru dimentsioak osotasunean azter litezke, euskarazko idazmenaren ebaluazio automatizatuan aurrerapauso esanguratsuak emateko.

Bibliografia

ADURIZ, Itziar, AGIRRE, Eneko, ALDEZABAL, Izaskun *et al.* (2000). «A word-grammar based morphological analyzer for agglutinative languages», *in Proceedings of the 18th Conference on Computational Linguistics (COLING 2000)*. Association for Computational Linguistics: 3-9. https://doi.org/10.3115/990820.990821

AGERRI, Rodrigo, BERMUDEZ, Josu eta RIGAU, German (2014). «IXA pipeline: Efficient and ready to use multilingual NLP tools», *in Proceedings of the Ninth International Conference on Language Resources and Evaluation (LREC'14). European Language Resources Association (ELRA): 3823-3828.* https://doi.org/10.63317/2b6q4azr2a9a

ARRIOLA, Jose Mari, GOIKOETXEA, Josu eta IRUSKIETA, Mikel (2020). «Hizkuntza-teknologiak hizkuntzen ikas-irakaskuntzan: zenbat aukera, hainbat erronka», *in Hizpide* 95: 35-50. https://doi.org/10.54512/LOUF1436

AZURMENDI, Ekhi, ARREGI, Xabier eta LÓPEZ DE LACALLE, Oier (2025). «Automatic essay scoring and feedback generation in Basque language learning», *arXiv*. https://doi.org/10.48550/arxiv.2512.08713

BIBER, Douglas, CONRAD, Susan eta REPPEN, Randi (1998). *Corpus linguistics. Investigating language structure and use*. Cambridge University Press. https://doi.org/10.1017/CBO9780511804489

BULTÉ, Bram eta HOUSEN, Alex (2012). «Defining and operationalising L2 complexity», in *Dimensions of L2 performance and proficiency dimensions of L2 performance and proficiency*. John Benjamins Publishing Company. https://doi.org/10.1075/lllt.32.02bul

CHEN, Xiaobin eta MEURERS, Detmar (2016). «CTAP: A web-based tool supporting automatic complexity analysis», in *Proceedings of the 26th International Conference on Computational Linguistics: System demonstrations (COLING 2016).* The International Committee on Computational Linguistics. https://doi.org/10.17863/CAM.39630

EUSKALTZAINDIA. (2014). *Lexikoaren Behatokia.* https://lexikoarenbehatokia.euskaltzaindia.eus/

EUSKALTZAINDIAREN GRAMATIKA BATZORDEA. (2021). *Euskararen Gramatika*. Euskaltzaindia.

GIVÓN, Talmy, HINDS, John, GASSER, Michael, *et al.* (1983). *Topic continuity in discourse: A quantitative cross-language study*. John Benjamins. https://doi.org/10.1075/tsl.3

HUALDE, José Ignacio eta ORTIZ DE URBINA, Jon (2003). *A Grammar of Basque*. Mouton de Gruyter.

IXA TALDEA. (2022). *IXA taldea A motako ikertalde finkatua. Eusko Jaurlaritza.* https://www.ixa.eus/node/13571

MCCARTHY, Philip eta JARVIS, Scott (2010). «MTLD, Vocd-D, and HD-D: A validation study of sophisticated approaches to lexical diversity assessment», *Behavior Research Methods* 42 (2): 381-392. https://doi.org/10.3758/BRM.42.2.381

MCKINNEY, Wes (2010). «Data structures for statistical computing in Python», in *Proceedings of the 9th Python in Science Conference*. SciPy: 56-61. https://doi.org/10.25080/majora-92bf1922-00a

MCNAMARA, Danielle, CROSSLEY, Scott eta MCCARTHY, Philip (2010). «Linguistic features of writing quality», *Written Communication* 27: 57-86. https://doi.org/10.1177/0741088309351547

READ-COOP SCE. (2015). *Transkribus*. https://www.transkribus.org/ (2024/07/10ean kontsultatua).

VIRTANEN, Pauli, GOMMERS, Ralf, OLIPHANT, Travis, *et al.* (2020). «SciPy 1.0: fundamental algorithms for scientific computing in Python», *Nature Methods* 17 (3): 261-272. https://doi.org/10.1038/s41592-019-0686-2

WASKOM, Michael (2021). «Seaborn: Statistical data visualization», *Journal of Open Source Software* 6 (60): 3021. https://doi.org/10.21105/joss.03021

Eranskinak

1 LH4ko testuak ebaluatzeko errubrika

ERRUBRIKA - LH4			
Irizpideak	**Oinarrizko maila**	**Erdiko maila**	**Maila aurreratua**
1. Egokitasuna			
Helburua (% 10)	Ez du eskatutako testu-mota ekoiztu.	Eskatutako testu-mota ekoiztu du (nahiko sinplea).	Eskatutako testu-mota egoki ekoiztu du.
Lerro-kopurua			
Grafia (% 10)	Grafia irakurtezina da. Hizki larri eta xeheak nahasten ditu. Testuak zirrimarrak ditu edota egiten dituzten berridazketak ezin irakur daitezke.	Grafia ez da oso argia, irakurketa zailtzen du. Testuak zirrimarrak edota berridazketak ditu, irakurketa zailtzen dutenak.	Grafia argia da. Testuak ez du zirrimarrarik edota berridazketarik.
2. Koherentzia eta kohesioa			
Egitura eta lokailuak (% 10)	Ez ditu ideiak paragrafoetan antolatzen. Testuaren egitura ez da argia. Ez dago oinarrizko antolatzaile edota lokailurik edo gaizki erabilita daude.	Ideiak paragrafoetan antolatu ditu. Testuaren egitura nahiko argia da. Badira oinarrizko testu-antolatzaileak.	Ideia ezberdinak paragrafoetan antolatzen ditu. Testuaren egitura nabaria da. Lokailuak eta testu-antolatzaile desberdinak erabiltzen ditu.
Informazioa/ edukia (% 15)	Edukiak ez du beti eskatutakoarekiko loturarik edota pobrea da.	Informazioa eskatutakoari egokitzen zaio.	Informazioak eskatu denarekin lotura dauka eta aparteko osagaiak gehitzen ditu.

3. Zuzentasuna			
Hiztegia/ lexikoa (% 10)	Hiztegi mugatua eta hitz-errepikapen ugari.	Hiztegi nahiko mugatua, hitzak errepikatzen dira batzuetan.	Hiztegi zabala erabiltzen du eta ez ditu hitzak errepikatzen.
Puntuazioa: puntuazio-marken erabilera egokia. Testuan puntuak erabili ditu (% 10)	Puntuazio-akats dezente daude.	Puntuazio-markak ondo erabiltzen ditu orokorrean.	Puntuazio-markak (puntua, koma…) ondo erabiltzen ditu.
Ortografia (% 10)	Akats ortografiko nabariak (rr/r…). Hainbat hizki norabidez aldatzen ditu. Hainbat hizki ispilu gisa idatzita daude. Ez ditu hainbat hizki idazten.	Akats ortografikoak ageri dira, baina ez hitz arruntetan. Hitzak elkarren artean ongi bereizten ditu, baina aditzak ez ditu banatzen. Batzuetan bakarrik errespetatzen ditu hizki larriak eta xeheak.	Ortografia-arauak ezagutu eta errespetatzen ditu. Hitzak ongi bereizten ditu. Esaldi-hasieran eta puntu ondoren, larriz. Izen propioetan, lehen hizkia larriz. Erakusleetan «h». Aditzetan «z».
Morfosintaxia (% 15)	Oinarrizko akats ugari. Esaldiak gaizki osatuta. Lotu gabeko perpausak.	Akats batzuk ageri arren, testua ulergarria da. Esaldiak nahiko ondo osatuta daude.	Ez dago ia akatsik. Ondo osatutako esaldiak daude.
Hizkuntza-erabilera/ erregistroa (% 10)	Hizkuntza ez da egokia, lagunartekoa eta ahozko hizkuntzarekin adierazita. Erregistroak nahasita.	Hizkuntza egokia erabiltzeko saiakera egin du. Hala ere, ahozko hizkuntzari lotutako ezaugarriren bat edo beste ageri da batzuetan.	Hizkuntza egokia erabili da (lagunarteko edo ahozko hizkuntza eta euskara batua desberdindu ditu).

2 LH6ko testuak ebaluatzeko errubrika

ERRUBRIKA - LH6			
Irizpideak	Oinarrizko maila	Erdiko maila	Maila aurreratua
1. Egokitasuna			
Helburua	Ez du eskatutako testu-mota idatzi. Emandako informazioa oso eskasa da (hiztegia/ lerro-kopurua). Hizkuntza ez da egokia, lagunartekoa edo ahozko hizkuntzarekin adierazia.	Eskatutako testu-mota ekoiztu du, baina nahiko sinplea da.	Narrazioa edo deskribapena da.
Lerro-kopurua			
Grafia	Grafia irakurtezina da. Letra larri eta xeheak nahasten ditu. Testuak zirrimarrak ditu edota egiten dituzten berridazketak ezinezkoak dira irakurtzen.	Grafia ez da oso argia, irakurketa zailtzen du. Testuak zirrimarrak edota berridazketak ditu, irakurketa zailtzen dutenak.	Grafia argia da. Testuak ez du zirrimarra edo berridazketarik.
2. Koherentzia eta kohesioa			
Egitura eta lokailuak	Ideiak ez daude era egokian antolatuta. Ez du lokailurik eta testu-antolatzailerik.	Ideiak paragrafoetan antolatzen ditu. Ez du antolatzaile eta lokailu egokirik erabiltzen edo behin eta berriz berdinak erabiltzen ditu.	Ideia ezberdinak paragrafoetan egoki antolatzen ditu. Lokailuak eta testu antolatzaile desberdinak erabiltzen ditu.
Informazioa/ edukia (% 15)	Edukia ez dago beti eskatutakoarekin lotuta eta pobrea da.	Informazioa eskatutakoari egokitzen zaio.	Informazioak eskatu denarekin lotura dauka eta aparteko osagaiak gehitzen ditu.

3. Zuzentasuna			
Hiztegia	Hiztegi mugatua eta hitz-errepikapen ugari.	Hiztegi mugatua.	Hiztegi zabala erabiltzen du eta ez ditu hitzak errepikatzen.
Puntuazioa: puntuazio-marken erabilera egokia. Testuan puntuak erabili ditu (% 15)	Puntuazio-marka gutxi erabiltzen dira eta akatsak nabari dira.	Puntuazio-markak egoki erabiltzen dira, nahiz eta akats batzuk ageri.	Puntuazio-markak (puntua, koma…) ondo erabiltzen ditu.
Ortografia: grafiaren erabilera egokia (% 15)	Akats ortografiko ugari.	Akats ortografikoak ageri dira, baina ez hitz arruntetan.	Ortografia-arauak ezagutu eta errespetatzen ditu.
Hizkuntzaren erabilera	Hizkuntza erregistroan lagunarteko diskurtsoa ageri da.	Ahozko zein idatzizko erregistroa nahasirik ageri da.	Erregistro formala, egokia.

3 CTAP tresna euskarazko testuetara egokitzeko prozedura

Jatorrizko CTAP tresnak (Chen eta Meurers 2016) sei hizkuntza onartzen ditu, eta, euskara ez dagoenez integratuta, beste ikerketa-proiektu batean garatutako euskarazko bertsioa erabili da lan honetarako (IXA Taldea 2022). Adierazle guztiak kalkulatzeko, aurreprozesamendu estandar bat jarraitu da. Lehenik, NLPAnnotator.xml arduratu da testu garbiak jaso eta sistemak uler ditzan egokitzeaz. Segidan, testuak esaldietan banatu dira SentenceAnnotator.xml erabiliz. Jarraian, testuak tokenizatu egin dira TokenAnnotator.xml bidez. Beharrezkoa denean, POSAnnotator.xml arduratu da etiketatze morfosintaktikoaz, hitz bakoitzari bere kategoria gramatikala esleituz. CTAP tresnak prozesu-kate (*pipeline*) hori kudeatzeko AAE (*Aggregate Analysis Engine* edo Analisi-Motor Bateratua) erabili du (Chen eta Meurers 2016), testuaren inguruko datu linguistikoak sortuz. AAE ez dagoenez diseinatuta euskarazko elementu linguistikoak bereizteko, IXA Taldeak garatutako IXAPIPES (Agerri, Bermudez eta Rigau 2014) integratu da. Datu linguistiko horiekin, CTAP tresnak (Chen eta Meurers 2016) gainontzeko hizkuntzetan neurtzen dituen adierazle linguistikoak euskaraz kalkulatu ditu, 201 guztira. Jarraian, lan honetarako aukeratu diren adierazle linguistikoak zehazki nola kalkulatzen diren azaltzen da:

1. Hitz-token kopurua, puntuazio-markak eta zenbakiak baztertuz (*Number of Word Tokens, excluding punctuation and numbers*): adierazle horrek arestian aipatu den aurreprozesamendu estandarraren ondoren, POSAnnotator.xml erabili du testuko puntuazio-markak eta sinboloak identifikatu eta baztertzeko. Jarraian, hitz-kategoria duten elementuak soilik zenbatu dira.

2. Aditz-moten kopurua, modalak barne (*Number of POS Feature, Verb Types, including Modals*): adierazle horrek ere aurreprozesamendu estandarra jarraitzen du. Jatorrizko tresnak beste hizkuntzetako berariazko aditz-etiketak baliatzen dituenez, IXAPIPES (Agerri, Bermudez eta Rigau 2014) analizatzaileak *Universal Dependencies* (UD) deituriko nazioarteko estandarra erabiltzen du, hizkuntzen egitura gramatikala eta sintaktikoa modu uniformean etiketatzen dituena. Euskaraz aditz modal isolaturik ez dagoenez eta funtzio hori aditz laguntzaileen

flexioen bidez bideratzen denez, UD estandarreko bi etiketa nagusi erabili dira: VERB (aditz trinkoak, mendekoak nahiz konposatuak eta partizipioak) eta AUX (aditz laguntzaileak eta haien flexioaren bidezko modalak). Sistemak POSAnnotator.xml erabili du etiketa horiek iragazi eta zenbatzeko, non VERB etiketak aditzaren forma lexiko nagusiak biltzen dituen eta AUX etiketak euskarazko aditz-sistemako elementu funtzionalak, horien artean, modalitatea adierazten duten formak (ahalera eta subjuntiboa).

3. Aditz-sintagmen kopurua (*Number of Syntactic Constituents, Verb Phrase*): adierazle hori kalkulatzeko, aurreprozesamendu estandarraren ondoren, ParseTreeAnnotator.xml erabili da zuhaitz sintaktikoak sortzeko eta horietatik aditz-sintagmei dagozkien adarrak isolatu eta zenbatzeko.

4. Izenen gainjartze globalaren desbideratze estandarra, lemetan oinarritua (*Referential Cohesion, Standard Deviation of Global Noun Overlap, lemma-based*): testuko kontzeptuak zein neurritan errepikatzen diren kalkulatzeko, lema bera esaldi ezberdinetan zenbat aldiz agertzen den neurtu da. Lema-mailako neurketa bereziki garrantzitsua da euskararen kasuan, bere izaera eranskaria eta deklinabide-sistema direla eta (McCarthy eta Jarvis 2010). Prozesu horretan, aurreprozesamendu estandarraren ondoren, POSAnnotator.xml arduratu da izenak bakarrik iragazteaz eta LemmaAnnotator.xml erabili da izen horien lema edo erroa ateratzeko. Jarraian, CTAP tresnak (Chen eta Meurers 2016) gainjartze-matrize bat osatu du; adibidez, lehen esaldiak bigarren eta hirugarren esaldiarekin lema bat partekatzen badu, esaldi horren puntuazioa 2 izan da. Segidan, puntuazio guztien arteko batezbestekoa kalkulatu da, eta amaitzeko, testu osoaren desbideratze estandarra. Emaitza baxua bada, testuko esaldi guztiek antzeko puntuazioa dutela esan nahi du eta testuaren kohesioa orekatua izan dela adierazten du horrek; are gehiago, errepikapenik ezean ere (balio konstantea mantentzen denean) emaitza zero da. Emaitza altua bada, berriz, esan nahi du esaldi batzuk oso konektatuta daudela eta beste batzuk ez daudela batere konektatuta. Konektibitate-gorabehera horiek kohesioaren ezegonkortasuna islatzen dute, eta horrek irakurleari testua ulertzea zailtzen dio, gaia etengabe zentratu eta aldatzen delako.

Nolakoak dira kode-alternantzia erabiltzen ez duten edo gutxitan erabiltzen duten euskaldunak?

¿Cómo son los/las vascohablantes que no utilizan o rara vez utilizan la alternancia de código?

À quoi ressemblent les locuteurs basques qui ne pratiquent pas, ou pratiquent rarement, l'alternance codique ?

What Are Basque Speakers Who Do Not Use, or Rarely Use, Code-Switching Like?

PÉREZ GONZÁLEZ, Mikel
Osakidetza
mikelp22@ni.eus
ORCID: 0000-0002-1272-1142

DOI: https://doi.org/10.59866/eia.v2i71.353

Lan hau Euskaltzaindiko Mintzola egitasmoari esker burutu da, eta, eskerrak eman nahi dizkiet horiei eta baita ikerketa honetako parte-hartzaileei ere.

Jasotze-data: 2026-06-08
Behin-behineko onartze-data: 2026-07-30
Behin betiko onartze-data: 2026-09-08

Euskaldun gehienek ez bezala, euskaldun batzuek ez dute aitortzen euskara-erdara kode-alternantzia erabiltzen dutenik. Lan honetan, kode-alternantziaren erabilera eza edo urria aitortzen duten euskaldunen mintzoa arakatu da. Emaitzek erakusten dute hiztun horiek euskararekiko harreman estu-estuan bizi direla, kode-alternantzia erabili erabiltzen dutela, baina, era berean, behar komunikatibo orori erantzuteko euskara-gaitasuna badutela eta gaitasun hori praktikan jartzen dutela.

Gako-hitzak: kode-alternantzia, elebitasuna, euskara, lagunarteko hizkera, hiztun-profila.

A diferencia de lo que hace la mayoría de los/las vascohablantes, algunos/nas vascos/cas no reconocen que utilicen la alternancia de código. En este trabajo se ha rastreado a los/las vascohablantes que reconocen la nula o escasa utilización de la alternancia de código. Los resultados muestran que estos hablantes viven en una relación muy estrecha con el euskera, que sí utilizan la alternancia de código, pero que también tienen una competencia lingüística suficiente para responder a cualquier necesidad comunicativa y que la ponen en práctica.

Palabras clave: alternancia de código, bilingüismo, euskera, lenguaje coloquial, perfil lingüístico.

Contrairement à la majorité des Basques, certains d'entre eux ne reconnaissent pas recourir à l'alternance de code. Ce travail a permis de recenser les Basques qui reconnaissent ne pas utiliser, ou très peu, l'alternance de code. Les résultats montrent que ces locuteurs entretiennent une relation très étroite avec l'euskera, qu'ils recourent à l'alternance de code, mais qu'ils possèdent également une maîtrise de l'euskera suffisante pour répondre à tous leurs besoins de communication et qu'ils mettent cette compétence en pratique.

Mots-clés : alternance codique, bilinguisme, basque, langue familière, profil linguistique.

Unlike the majority of Basques, some Basques do not acknowledge that they use code-switching. This study has identified those Basques who acknowledge that they make little or no use of code-switching. The results show that these speakers have a very close relationship with the Basque language, that they do use code-switching, but that they also possess sufficient proficiency in Basque to meet any communicative need and that they put this proficiency into practice.

Keywords: code-switching, bilingualism, Basque, colloquial language, linguistic profile.

PÉREZ GONZÁLEZ, Mikel (2026) «What are Basque speakers who do not use, or rarely use, code-switching like?», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 71 (2): 267-314.

1 Sarrera
2 Kode-alternantzia
2.1 KAren erabilera-funtzioak
2.2 Kode-alternantziarekiko jarrera eta onargarritasuna
2.3 Hizkuntza-gaitasunaren eragina kode-alternantziaren erabileran
3 Euskararen egoera soziolinguistikoaz
4 Ikerketa-galderak eta hipotesiak
5 Metodologia
6 Emaitzak
6.1 Kode-alternantziaren erabilera-maiztasuna aldagaien arabera
6.2 Kode-alternantziaren erabileraren izaera eta erabilera ekiditeko baliabideak
6.3 Hizkerei eta kode-alternantziari buruzko iritziak
7 Eztabaida eta ondorioak
Bibliografia

1 Sarrera

Kode-alternantzia (hemendik aurrera, KA) hiztun batek diskurtso berean bi hizkuntza edo gehiago konbinatzearen komunikazio-ekintzari deitzen zaio, eta hiztun elebidun edo eleaniztun askok egiten dute (Uria eta beste 2017), idatziz nahiz ahoz (Ibarra Murillo 2020; Zulaika 2019). KAren erabilera, ordea, hizkuntzaren degenerazioaren adierazle moduan (Bullock eta Toribio 2009), hizkuntza(k) ondo ez menderatzearen ondorio moduan (Iriondo 2017) edo ekoizpen desegoki eta desabantailatsu moduan (Loyer 2021) ikusi izan da, eta KAri buruzko lehen lan ezagunak xx. mendeko 60ko hamarkadaren amaieran eta 70ekoaren hasieran egin ziren (Lantto 2023: 49); geroztik, lan ugari dira fenomeno honi heldu diotenak hainbat ikuspegitatik (Lantto 2023).

Pixkanaka, KAren erabileraren inguruan dagoen diskurtso orokorra aldatuz joan da (Aldekoa Díez 2020; D. Jiménez eta A. Jiménez 2015; Lerman eta beste 2019; Loyer 2021; Mad'arová 2020), nahiz eta oraindik hiztun askok KA hizkuntza kutsatzen duen praktika gisa, analfabetismoaren adierazle gisa, ikasketa faltaren isla gisa edota hizkuntza-gaitasun/konpetentzia eskasaren ondorio gisa har dezaketen (Lantto 2015; Ortega eta beste 2016).

Orain arte egin diren lanei esker, KAren patroiak identifikatu dira, eta horien eraketan eta banaketan eragina duten hainbat faktore linguistiko eta ez-linguistiko ere bai (Lantto 2023).

Euskal Herrian ere KA aztergai da. Euskaldunen KAren inguruko ikerketek fenomeno horren hainbat ezaugarri aztertu dituzte, besteak beste, KA zein helburu edo funtziorekin erabiltzen den (Ibarra Murillo 2011; Muñoa Barredo 2002), zer motatakoa den eta zer ezaugarri gramatikal dituen (Munarriz-Ibarrola eta Ezeizabarrena 2012; Parafita Couto eta beste 2015b) eta zer onarpen maila duen fenomenoak (Lantto 2018). Orain arteko lanek erakutsi dute, besteak beste, euskaldunen KAren erabilera ingurune erdaldunagoetan zein euskaldunagoetan gertatzen dela (Barrios eta beste 2008; Etxabe 2005), ez bakarrik euskara-gaitasun urria duten hiztunen artean (Barrios eta beste 2008; Ibarra Murillo 2011, 2020; Lantto 2015, 2016),

edozein euskara-hizkeradunek ekoizten duela (Pérez González 2024)[1], egoera komunikatibo informalagoetan formalagoetan baino gehiago gertatzen bada ere (Aiestaran Iparragirre 2023; Pérez González 2022) formalagoetan ere agertzen dela (Aldekoa Díez 2020; Portal Molinera 2022; Rodrigo 2020; Torralba 2023), euskara frantsesarekin/gaztelaniarekin konbinatzeaz gain, ingelesarekin ere konbinatzen dela (Fernandez 2019; Kintana Morcillo 2025; Rodrigo 2020) eta ez dela soilik gazteekin lotuta dagoen fenomenoa (Goirigolzarri Garaizar eta beste 2018; Igartzabal 2014), nahiz eta gazteek euskara eta erdarak hitz-txanda berean konbinatzeko joera oso nabarmena duten (Altuna Ramírez 2023; Kintana Morcillo 2025). Gazteen artean KA gazte-hizkera propiotzat hartzen da, eta, zentzu horretan, KAk gazteen identitatea markatzeko ere balio dezake (Altuna Ramírez 2023; Elordui 2016; Ibarra Murillo 2011; Lantto 2018).

Lan honetan, lagunartean (nagusiki) euskaraz egin bitartean, euskaldunek KA erabiltzeko duten maiztasunari erreparatu zaio, KAren erabilera aitortuan eragina izan dezaketen hurrengo aldagai psikosoziolinguistiko aitortuetan arreta jarriz: adinean, generoan, ingurune soziolinguistikoan, etxeko hizkuntzan, lagunarteko euskara-erabileraren maiztasunean, lagunarterako euskara-gaitasunean eta euskara-atxikimenduan. Bestetik, lagunartean batez bestekotik beherako KAren erabilera aitortzen duten euskaldunek lagunartean nola hitz egiten duten jaso da, zehazki KA espero daitekeen uneetan nolako ekoizpena duten aztertu da. Amaitzeko, aurreko euskal hiztun berberek KAren erabilerari buruz dituzten iritziak arakatu dira.

2 **Kode-alternantzia**

KAren erabileran hainbat faktorek eragiten dute aldi berean: faktore linguistikoek/tipologikoek, faktore psikolinguistikoek, faktore soziolinguistikoek edo sozialek, ideologikoek eta abarrek (Lantto 2023). Adibidez, hiz-

[1] Lan hau Pérez Gonzálezen aurreko lanetako zenbait akats zuzentzeko edo ideia osatzeko ere baliatu da.

kuntzaren estatus sozialak edota ideologia puristaren edo identitatearen pisuak zuzenean eragiten dute KAren erabilera-maiztasunean, erabiltzen den KA motan eta hiztunen helburu komunikatiboetan (Bullock eta Toribio 2009; Lantto 2015, 2023). Euskaldunen artean, esaterako, ohikoagoa da (nagusiki) euskaraz egin bitartean, euskara eta erdara konbinatzea, (nagusiki) erdaraz egin bitartean, erdara eta euskara konbinatzea baino (Alonso Amezua eta beste 2025; Cid 2014; Igartzabal 2014; Pérez González 2022)[2]. Lan honetan, euskaldunen KAri buruz hitz egiten denean, ohikoagoa den ekoizpen modu horri egiten zaio erreferentzia, hau da, (nagusiki) euskaraz egin bitartean, diskurtso berean erdara ere sartzeari.

Kontuan hartzeko beste aldagai bat generoa izan liteke; Hanna Lanttoren (2023) berrikuspenaren arabera, generoak KAn duen eragina ez da zuzena edo unibertsala. Emaitzek erakusten dutenez, joerak oso lotuta daude ukipen-egoera bakoitzaren berezitasun soziokulturalekin. Lanttok berak gogorarazten du euskal testuinguruan «autentikotasuna» maiztasun handiz maskulinitateari, euskaldun zaharrei eta herri-hizkerari lotu izan zaiela (Lantto 2015).

Bestalde, KArako joera handiagoa eta txikiagoa duten hizkuntza-kategoriak identifikatu dira (Lantto 2023), errealitate psikosoziolinguistikoaren arabera zerbait alda daitezkeenak; adibidez, izenek eta izensintagmek KArako joera handiena erakusten dute eta izenordainek txikiena. Euskaldunen kasuan hierarkia hau aipatzen du Lanttok (2023): Diskurtso-markatzaileak > Esamolde finkoak > Izen soilak (izen biluziak) > Izensintagmak > Adberbioak > Konjuntzioak > Adjektiboak > Aditzak > Kasu-markatzaileak / Preposizioak.

KAren ekoizpen motak banatzeko, Poplacken (1980) taxonomiak tradizio handia du:

— Esaldi arteko KA (*intersentential*)
— Esaldi barneko KA (*intrasentential*)
— Etiketa bidezko KA (*tag-switching*)

[2] Batzuetan posible da bi KA mota horien artean desberdintzea zaila izatea (Cid 2014).

Esaldi arteko KAn hizkuntza batean sortutako diskurtsoan beste hizkuntza bateko esaldiak txertatzen dira, Ibarra Murilloren (2011: 284) euskara-gaztelania elebidunen (a) adibidean ikusten denez. Esaldi barneko KAn perpaus beraren barnean gertatzen da aldaketa, (b) adibidean ikusten den bezala (Ibarra Murillo 2011: 283). Azkenik, etiketa bidezko KAn bereziki interjekzio moduan erabiltzen diren hitzak edo esaldiak txertatzen dira, hala nola formulak, harridura adierazteko edo makulu gisa, esaterako (c) (Ibarra Murillo 2011: 287):

a. *Zeren... ni lehen iristen nintzen Mateko azterketara eta ikasiz ere, bua!,* ***no entiendo nada!***

b. *Nengoen* ***alau del ambulatorio*** *yoateko.*

c. *Eta gainera,* ***eske*** *puff, guztia da* ***impresionante****.*

Aipatu diren hiru KA motez gain, autore batzuek laugarren bat ere aipatu izan dute (D. Jiménez eta A. Jiménez 2015): hitz barrukoa, hitzaren barruan gertatzen dena.

2.1 **KAren erabilera-funtzioak**

KAren erabilera hizkuntza-gabeziaren bati aurre egiteko estrategia edo solaskideari ulermenean laguntzeko baliabidea izan daiteke. Baina hiztunentzako beste funtzio asko ere bete ditzake fenomenoak. Ikuspegi pragmatikoago batetik, KA erabiltzearen funtzioak askotarikoak dira elebidunen artean, batzuk aipatzearren (Bereziartua Arruabarrena eta beste 2023; Bullock eta Toribio 2009; Campos Uralde 2017; Gardner-Chloros 2009; Loyer 2021; Mad'arová 2020): hitzorduak markatzeko, enfasirako, hizkuntza gutxituari eusteko, konnotazio jakin bat gehitzeko, hizketaren rolak nabarmentzeko, errepikatzeko, esaldiren bat itzultzeko/zuzentzeko, rol aldaketaren bat edo gai aldaketaren bat markatzeko, parentesi bat gehitzeko, identitatea markatzeko, beste batek esandakoak ekartzeko, arrazoi estilistikoak erabiltzeko (adibidez, musika konpositore gisa, kanten egiturari laguntzeko/entzulearen arreta bereganatzeko), jolaserako, hizkuntza-hautua negoziatzeko, eta abarrerako.

Euskaldunen KAri buruzko ikerketetan arreta handia jarri da KAren funtzioetan (Ibarra Murillo 2020; Lantto 2012; Ortega eta beste 2016), nahiz eta hurbilketa psikolinguistikoko lanak eta linguistiko teorikokoak ere egin diren. Euskaldunen KAren erabilerarako dauden arrazoiak/funtzioak asko dira (Altuna Ramírez 2023; Barrios eta beste 2008; Etxabe 2005; Ibarra Murillo 2020; Igartzabal 2014; Lantto 2015; Muñoa Barredo 2002; Torralba 2023; Zulaika 2019) eta horiek hiztunaren profilaren arabera edo egoera komunikatiboaren arabera alda daitezke (Aiestaran Iparragirre 2023; Pérez González 2024). Askotan aipatzen den arrazoia edo funtzioa da hizkerari kutsu informala ematea. Izan ere, askok gaztelania hizkera informalagoarekin eta euskara hizkera formalagoarekin lotzen dute, eta euren euskara informal bihurtzeko aukeretako bat KA erabiltzea, edo, euren hizkeran erdara sartzea da. Larrabetzuko 14-17 urte bitarteko gazteen hizkera, adibidez, euskalkia, batua eta gaztelania konbinatuz eraikitzen da, eta, KAren erabilera egunerokotasunean oso erabilgarri zaie, nahiz eta itsusia eta arrotza egiten zaien. Era berean, aldaera estandarra artifiziala, antinaturala eta itsusia egiten zaie; herriko euskalkia eta batez ere herriko nagusien hizkera, berriz, naturala eta polita iruditzen zaie (Rioboo Azkue 2025). BAM inguruko gazteen artean ere, frantsesaren eragina nabarmena dela ondorioztatu du Kintanak (2025), eta, aldiz, euskara batuarena, mugatua.

Hauek dira ikerketetan euskaldunen KAren erabilerari jaso zaizkion beste zenbait funtzio: zenbait egoeraren gaineko azalpenak emateko, aurrez bizitako egoerak gogora ekartzeko (batak edo besteak esandako hitzak gogoratzeko), adierazi nahi denari konnotazio berezia emateko, esandakoari adierazkortasuna emateko, indartzeko, kutsu negatiboa emateko edota denbora irabazteko, erdaraz errotutako esapideak erabiltzeko, zerbaiten izen berezia mantentzeko, emozio esapideak txertatzeko, konplizitateagatik, umorerako zein irainetarako, probatzeko solaskidearekin zein hizkuntza erabili, gaia hizkuntza batekin edo beste batekin lotzeko, eta abarrerako. Gainera, Amorrortuk eta bestek (2020), Lanttok (2015, 2016) eta Ortegak eta bestek (2016) erakutsi zutenez, euskararen erabilera oso hedatua ez dagoen ingurune soziolinguistikoetan edo euskara erabiltzeko babesa behar duten hiztunentzat KA erabiltzea estrategia mesedegarria edo lagungarria izan

daiteke euskara erabiltzeko edo mantentzeko. Pardina Arenazaren (2022) laginean ere horixe ikusten da Lizarrako gazteen artean.

Behatutako datuen arabera, Lanttok euskara etxean ikasi zuten Bilbo inguruko euskaldunei euskal hiztun berriei baino KA ekoizpen konplexuagoak behatu zizkien, eta, KA erabilera handiagoa ere bai (Lantto 2015). Izan ere, euskara etxean jaso dutenek KA modu natural eta arinagoan erabiltzeko gaitasuna dute, KA ekoizpen konplexuagoak ere egiten dituzte (esaldi barrukoak) eta KA baliabide komunikatibo gisa erabili ohi dute, arreta bereganatzeko, tonua aldatzeko edo solaskidera egokitzeko. Bestalde, euskal hiztun berriei purismoaren ideologiak gehiago eragiten die eta KA modu kontzienteagoan saihesten ahalegintzen dira[3]. Ordea, Pérez Gonzálezen lanean (2022), ordea, sortzez euskaldun elebakarrak direnek euskal hiztun berriek eta aldibereko elebidunek baino KAren erabilera baxuagoa aitortu zuten, KAren erabileraren konnotazio negatiboarekin edo euskararekiko atxikimenduarekin lotuta egon daitekeena (edo gaztelaniaren gaitasunarekin). Edonola ere, Lanttok (2022) azpimarratzen du hiztun berrien hiztun profila eta hizkuntza-praktikak askotarikoak direla euren artean ere.

2.2 **Kode-alternantziarekiko jarrera eta onargarritasuna**

KAren erabilerari begira kontuan hartu beharreko beste aldagai bat jarrera da. Jarrera portaeran eragiten duen faktoreetako bat den arren (Parafita Couto eta beste 2015a), ez dirudi jarrerak nahikoa direnik portaerak ulertzeko edo aurresateko (Bullock eta Toribio 2009; Chrissunday 2016). Euskaldunen KAren erabilerarekiko jarreraren eta KAren erabilera-maiztasunaren arteko harremanari dagokionez, egoera konplexua da; jarrera zenbat eta aldekoagoa aitortu, KAren erabilera aitortua ez da beti orduan eta altuagoa (Pérez González 2022).

---

[3] Pérez Gonzálezen lan batzuetan iradoki da Lanttoren lanetan (2015) esaten dela etxetik erdaldunak direnek etxetik euskaldunek baino KA gehiago erabiltzen dutela. Irakurketa zuzena alderantzizkoa da: Lanttok frogatu zuen etxetik euskaldunak zirenek KA gehiago erabili zutela etxetik erdaldunak zirenek baino.

Bestalde, KArekiko jarreren eta jokaeren arteko loturak estuagoak izan daitezke KArekiko onargarritasunaren eta jokaeren artekoak baino (Parafita Couto eta beste 2015a). Parafita Coutok eta bestek (2015a) erakutsi zuten ingelesa-galesa elebidunen artean juzguek ez zutela loturarik ekoizpenarekin (jarrerek, aldiz, bai). Aitzitik, euskara-gaztelaniadunekin egindako beste lan batean (Parafita Couto eta beste 2015b), onargarritasun-juzguek eta benetako ekoizpenak bat egin zuten, antzeko ariketak erabilita. Brdarević-Čeljo eta besteren (2021) lanean ere ikusi zen erlazio horien konplexutasuna: jarrerak nahiko positiboak izan arren, inkestatuek adierazi zuten KA neurriz erabiltzen zutela.

Pérez Gonzálezen (2024) datu-basearekin lan honetarako egin diren *khi* karratu analisi gehigarrien arabera, hizkuntza-gaitasun motak kode-alternantziaren inguruko jarrera ere baldintzatzen du: euskararen aldeko gaitasuna duten hiztunek kalean/jai giroan KA gutxiago erabiltzen dutela adierazten dute, eta gaztelaniaren aldeko gaitasuna edo gaitasun orekatua duten hiztunek, aldiz, kalean / jai giroan KAren erabilera onargarriagoa dela uste dute ($X^2 = 23$, df = 2, N = 227, $p < 0{,}001$, Cramer $V = 0{,}318$)[4].

Aipatu da lehenago ere hizkuntzaren kontzientzia soziolinguistikoak eraman dezakeela hiztuna KAren erabilera ekiditera. Bada, Pérez Gonzálezen (2022) lanean ere horixe bera suma daiteke analisi estatistikoen bidez: euskararekiko atxikimendu altuagoa duten euskaldunek atxikimendu baxuagoa dutenek baino okerragotzat zuten KAren erabilera (eta KA erabilera aitortu baxuagoa ere adierazi zuten), eta alderantziz.

Aldalbahyren (2022) lanaren arabera, adibidez, hiztun gehienek KArekiko jarrera positiboa adierazi zuten, gaitasun altuagokoek KAren erabilera hizkuntza hutsunearen edo gabeziaren sintomatzat hartu zuten, eta, gero, gaitasun baxuagokoek zein altuagokoek, biek erabili zuten berdinberdin KA.

Askok erabiltzen dute KA, baina denek ez dute erabiltzen dutela aitortzen edota onartzen (Lantto 2016; Pérez González 2022), nahiz eta gero

[4] Efektuaren tamaina (*V*): txikia: 0,1-0,3; ertaina: 0,3-0,5; handia: 0,5 <.

errealitateak talka egin dezakeen hiztunek esan dutenarekin (Lantto 2015); esate baterako, Lanttoren ikerketako parte-hartzaile guztiek erabili zuten KA, baita erabilera aitortu ez zutenek edo ondo ikusten ez zutela esan zutenek ere. Parte-hartzaileen erantzunek euren buruarekiko daukaten irudia ordezka dezakete, eta ez egitateak (Fernandez 2019). Horregatik, pentsa liteke euskaldunen kasuan ere aitortzen dena baino are fenomeno zabalduagoa izatea KA, Lanttok (2015, 2016) esan bezala, oraindik gizartean «gaitzetsita» dagoen edo ez oso onartua dagoen fenomenoa izanik; dela elebakartasunaren ideologiaren ondorioz, hizkuntzaren degradazioaren pentsamenduaren ondorioz edo hizkuntza baten egoerarekiko kezkagatik (Brdarević-Čeljo eta beste 2021; Bullock eta Toribio 2009; Gardner-Chloros 2009; Ortega eta beste 2016).

Altuna Ramírezek (2023), ordea, erakutsi zuen nerabeek eta gazteek garbi identifikatzen dutela KAren erabilera, eta nolabaiteko kontraesan moduan bizi dutela, zuzentasunaren aurkako praktika dela iruditzen zaielako, eta, modu berean, euren hizkeraren beharrezko elementutzat jotzen dutelako. Ildo beretik, Lanttok dio (2015, 2016, 2018) euskara batuan egiten duten hiztunak beren hizkera estigmatizatuaren kontziente direla eta hizkuntzak banatuta mantendu nahi izatearen ideia (elebakartasunaren ideologia) indartsu samarra dela hiztun askoren kasuan. Hizkera informala edo lagunartekoa euskalkiekin lotu izan da askotan, eta formala, ordea, euskara batuarekin (Alonso Amezua eta beste 2025).

KAren erabilera hainbat ebaluazio-irizpideren arabera epaitzen da: euskaratik gaztelaniara egitea «benetako», «natural» izan daiteke, edo, euskaragaitasun faltaren adierazle, ekoizlearen profilaren arabera (Elordui 2019). Beste batzuek, berriz, egoera informaletan, diskurtso estrategia bezala erabiltzen dutela onartzen dute eta, beraz, ondo baloratzen dute.

2.3 **Hizkuntza-gaitasunaren eragina kode-alternantziaren erabileran**

Hiztunen hizkuntzaren erabilera elebidunak lotura estua du hizkuntzaren menderatze-mailarekin, eta, beraz, bi hizkuntzetan nolabaiteko gaitasuna

lortzen denean bakarrik alda daiteke kodez (Kheder eta Kaan apud Han eta beste 2022).

Alabaina, posible da elebidunek kodez aldatzea beste modu batera hitz egin ezin dutelako, hizkuntza ikasten ari direlako edo konpetentziarik ez dutelako (Bereziartua Arruabarrena eta beste 2023; Bullock eta Toribio 2009; Mad'arová 2020). Baina, batzuek azpimarratzen dute bereziki hizkuntzak gehien menderatzen dituztenak direla gaituenak hizkuntzak aktiboki erabiltzeko eta txandakatzeko (Han eta beste 2022).

Hala eta guztiz ere, eztabaida dago KA bi hizkuntzak bereizteko ezintasunaren edota hizkuntza-gaitasun urriaren (edo ez-orekatuaren) adierazle den (Mad'arová 2020; Volterra eta Taeschner 1978) edo, aldiz, elebidunen gaitasun gehigarriaren edo hizkuntzak ondo menderatzearen ezaugarri (Oktavia eta Trisnawati 2020; Poplack 1980).

Aldalbahyren lanean (2022), hiztunen hizkuntza-gaitasunak KAren ekoizpen-motan eragina duela ikusten da, baina KAren maiztasunean ez. Askotan erakutsi da hizkuntza-gaitasunaren eta KA erabilera-motaren artean harremana zuzena dela; esaldi barneko KA oso maiz gertatzen da (Bullock eta Toribio 2009), eta, KA mota horren ekoizpena ohikoagoa da gaitasun handiko elebidunen (edo elebidun orekatuen) artean, eta, aldiz, etiketa bidezkoa edo esaldi artekoa elebidun desorekatuen (edo hizkuntzetako baten aldeko gaitasuna dutenen) artean (Epelde eta Oihartzabal 2010; Lantto 2012; Mad'arová 2020; Poplack 1980), salbuespenak salbuespen (Rodrigo 2020). Euskaldunen profilak KAren erabilera-motan eragina duela ikusi dute DS nahasiak (Munarriz-Ibarrola eta beste 2022) edo ergatiboaren erabilera (Uriarte Orbañanos 2024) aztertu dituzten beste lan batzuek ere.

Ibarra Murillok (2014) gazte euskal elebidun orekatuen artean hizkuntzak maiztasun handiagoz eta modu gehiagotara konbinatzen dituztela identifikatu zuen, eta, ondorioztatu, horrelakoetan, KAren erabilerak komunikatzeko estilo eta modu bati erantzuten diola eta ez komunikatzeko gaitasun faltari. Pérez Gonzálezen (2022, 2024) lanen arabera, ordea, euskara-gaitasunaren eta KAren erabilera-maiztasunaren arteko harremana konplexua da eta euskara-gaitasunaz galdetzeko moduaren arabera, emai-

tzak aldatu egiten dira (euskara hutsean egiteko gaitasunari buruz galdetzeak ekarri zituen alderik handienak).

Edonola ere, oro har, euskara-gaitasun aitortu baxuagoa dutenek (eta gaztelania-gaitasun altuagoa dutenek) aitortu zuten KAren erabilera altuena eta euskara-gaitasun altukoek baxuena. Era berean, KAren erabilera baxuena euskara hutsean egiteko gai direla eta gaztelania hutsean egiteko gai ez direla esan zutenek aitortu zuten, eta erabilera altuena euskara hutsean asko kostata egiten dutenek. Gainera, gaztelania hutsean egiteko gai direnek KA (nagusiki) gaztelaniaz egin bitartean baino, (nagusiki) euskaraz egin bitartean erabiltzen dute, eta, gaztelania hutsean asko kostata egiten dutenek, ordea, KA (nagusiki) euskaraz egin bitartean baino, (nagusiki) gaztelaniaz egin bitartean egiten dute (Pérez González 2022). Bestalde, euskara batutik hurbil dauden euskaldunek eta euren euskara mailarekin gustura ez dauden euskaldunek KA erabiltzeko joera handixeagoa adierazi zuten (Pérez González 2024).

Datu base horrekin berarekin (Pérez González 2024) khi karratuaren analisi eta kontraste gehigarriak egin dira parte-hartzaile haien euskararen eta gaztelaniaren mintzamen-gaitasun erlatiboa aintzat hartuz (euskararen aldeko gaitasuna, gaztelaniaren aldeko gaitasuna eta gaitasun orekatua kategoriak bereiziz): 1) Lagunekin egiten den hizkuntza-erabilera ($X^2 = 92,9$, df = 8, N = 283, $p < 0,001$) zein lehen hizkuntza ($X^2 = 119$, df = 4, N = 282, $p < 0,001$) faktore oso indartsuak dira elebitasun-mota azaltzeko; erabilerak / lehen hizkuntzak eta mintzamen-gaitasunak elkar indartzen dute; 2) Kalean / jai giroan KA erabiltzaileenak gaztelaniaren aldeko eta gaitasun orekatuko hiztunak dira ($X^2 = 37,2$, df = 2, N = 252, $p < 0,001$, Cramer $V = 0,384$); 3) Euskarari emandako balioak lotura sendoa du hizkuntza-gaitasunarekin ($X^2 = 57,5$, df = 8, N = 283, $p < 0,001$); oro har, euskararekiko atxikimendu baxukoek gaztelaniaren aldeko gaitasuna dute eta atxikimendu altukoek euskararen aldeko gaitasuna edo gaitasun orekatua[5].

[5] Parte-hartzaileen euskarazko eta gaztelaniazko mintzamen-gaitasunen artean ez da korrelaziorik antzeman. Hau da, parte-hartzaileek euskara-maila altuagoa edo baxuagoa izateak ez du esan nahi gaztelania-maila altuagoa edo baxuagoa izango dutenik.

Gauzak horrela, euskaldunen ingurune soziolinguistikoa, etxeko hizkuntza, euskararen erabileraren maiztasuna, euskara-gaitasuna eta euskarari esleitutako balioa zenbat eta euskararen aldekoagoak izan, orduan eta KA-ren erabilera apalagoa aitortzen da, batez ere, kalean / jai giroan (Pérez González 2024).

3 **Euskararen egoera soziolinguistikoaz**

Iurrebaso Biteriren (2023) arabera, gaztelaniaren eta frantsesaren aldean, euskara oso ahul dago, bai erabileran, bai gaitasunean, bai lurralde-nagusitasunean, bai hizkuntza-bilakaeran eta baita sozializazio-prozesuetan ere. Alderdi horiekin lotutako zifrak hizkuntzaren heriotzatik gertuago daude normalizazio-egoeratik baino[6].

Euskara-gaitasuna da ahulen dagoen ardatza (Iurrebaso Biteri 2023). Izan ere, azken urteetan euskaldun kopurua handitu bada ere, gaitasun erlatiboan ez da egon euskararen aldeko igoerarik, hau da, ez da hazkunderik egon euskara-gaitasuna nagusi duten hiztunen artean. Azken urteetan, elebidunen gorakada erdal eremuetan gertatu da bereziki, hau da, erabilera erosorako baldintza zailak dituzten eremuetan (Alonso Amezua eta beste 2025: 235).

Euskararen erabilerari begirako faktore eragilerik aipatuenak hurrengoak dira: erabilera-eremuan dagoen euskararen ezagutza; testuinguru soziolinguistikoa; euskara erabiltzeko erraztasuna eta harreman-sarea. Ildo beretik, hizkuntza-erraztasunaren eta lehen hizkuntzaren arteko korrelazioa oso handia dela azpimarratu behar da (Bereziartua Arruabarrena eta beste 2023). Gaur egun, askok etxetik kanpo ikasi dute euskara eta hiztun berri horietako askorentzat eskola edo eskolako lagunartea da euskaraz aritzeko aukera bakarrenetakoa (Bereziartua Arruabarrena eta beste 2023: 14). Hiztun horien artean, asko gazteak edo gazte helduak dira eta Amonarriz

[6] Sei ardatz nagusi aipatzen dira hizkuntzen osasun-egoera neurtzeko: hizkuntza-gaitasuna, erabilera(k), jarrerak-motibazioak-atxikimendua, hizkuntza-bilakaera, transmisioa-sozializazioa, lurralde-nagusitasuna.

Gorriaren (2018) arabera, gazteen euskara kolokialaren ezaugarriak honako hauek dira: euskara nahasia (euskalkien arteko konbinazioa eta KAren erabilera), erdarazko hitzen ordena, aditz-formen erabilera okerra, azentuaren aldaketa, forma linguistiko berriak eta abar.

Bestalde, euskaldunen indargunea euskararekiko jarreren eta motibazioen ardatzean dago (Goikoetxea eta Iurrebaso Biteri 2025), nahiz eta alderdi subjektiboetan ere ahulguneak dauden, zantzuak baitaude euskararekiko atxikimenduan ahultzea edo aldaketa datorrela uste izateko.

Generoaren arabera, bada alderik: oro har, emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago egiten dute euskaraz (Alonso Amezua eta beste 2025). Gazte-kultura maskulino hegemonikoan, adibidez, euskara ez da hizkuntza egokitzat hartzen eta mutil gazteentzat arazotsua izan daiteke euskara erabiltzea (Rioboo Azkue 2025). Hitz egiteko moduan ere badira aldeak edo errepikatzen diren patroiak (Altuna Ramírez 2023): mutilek hizkera oldarkorragoa erabiltzen dute eta neskek baino elkarrizketa motzagoak izaten dituzte (esamolde laburrak, zirikak, irainak, hizketagai gutxiago…). Horrela, eremu informalaren, gaztelaniaren erabileraren eta maskulinitatearen artean bada nolabaiteko harremana (Altuna Ramírez 2023).

4 **Ikerketa-galderak eta hipotesiak**

Aurreko ataletan aipatutakoa kontuan hartuta, baiezta daiteke euskaldun askok erabiltzen dutela KA kalean / jai giroan, eurek horrela aitortuta (Pérez González 2024) edo eurei horrela jasota/behatuta (Lantto 2015). Hala ere, ez dute denek erabilera aitortzen (Lantto 2015; Pérez González 2024), edo, batzuek gainerakoek baino erabilera nabarmen baxuagoa aitortzen dute (Pérez González 2024), nahiz eta gero errealitatea bat ez etorri esandakoarekin (Lantto 2015). Hain zuzen ere, lan honetan, lagunartean (nagusiki) euskaraz egin bitartean KArik erabiltzen ez dutela dioten euskaldunei, edo gainerakoekin alderatuta KA gutxiago erabiltzen dutela dioten euskaldunei, erreparatu zaie hurrengo ikerketa-galderei erantzuteko (hipotesiak galdera bakoitzaren azpian zehaztu dira):

1. galdera: zer hiztun-profil dute lagunartean KA gutxi edo batere ez dutela erabiltzen aitortzen duten euskaldunek (KA gehiago erabiltzen dutela esaten dutenen aldean)?

1. hipotesia: datu aitortuetan oinarrituta, euskararekiko harreman estuagoa espero da KAren erabilera apalagoa aitortzen dutenen aldetik, ingurune soziolinguistikoari, etxeko hizkuntzari, euskara-gaitasunari, euskara-erabilerari eta euskara-atxikimenduari dagokienez (Pérez González 2022, 2024).

2. galdera: KA ekoiztea espero daitekeen momentuetan, zer ekoizten dute euskaldun horiek?

2. hipotesia: KAren erabilera aitortua nulua edo oso apala bada ere, KAren erabilera denei jasotzea espero da (Lantto 2015), behintzat diskurtso markatzaileak, esamoldeak eta izenak (Lantto 2023). Aurreko lagina erreferentzia gisa hartuta (Pérez González 2022, 2024), parte-hartzaileak euskara-erabilera eta -gaitasun oso altukoak izatea espero da (eta asko etxetik euskaldunak, baina beste asko ez), eta beraz, posible da horietako asko euskararen aldeko gaitasun erlatibodunak izatea (Iurrebaso Biteri 2023) eta ez elebidun orekatuak. Horrela, laginaren gaitasun-profila kontuan hartuta (Iurrebaso Biteri 2023), etxetik euskaldunak direnei ez zaie etxetik erdaldunak direnei baino esaldi barruko KA adibide gehiago jasoko, nahiz eta Lanttok (2015) kontrakoa behatu zuen Bilbo inguruan; eta agian etxetik erdaldunak direnek joera garbizaleagoa dutela ikusiko da (Lantto 2015, 2023).

Bestalde, parte-hartzaileek euskararekiko atxikimendu oso altuak izatea espero da eta, beraz, euskararen egoera eta KAren erabilera kezkaz bizi dezakete eta KAren erabilera ekiditeko joera izan (Lantto 2023). Era berean, euskara hutsez egiteko gaitasuna izatea espero denez, euskaran ardaztutako hizkuntza-baliabideak erabiliko dituztela aurreikusten da.

Azkenik, diskurtso aldetik, esan bezala, pentsatzekoa da KAren erabilerari kezkaz begiratuko diotela, euskararen bilakaera soziolinguistikoarekiko kezkaren ondorioz (Lantto 2023).

5 Metodologia

Aurreko atalean zehaztutako ikerketa-galderei erantzuteko, lehendabizi galdetegi psikosoziolinguistiko laburra zabaldu zen euskara-gaztelania/frantsesa konbinaziorik eza edo, gainerakoekin alderatuta, konbinazio apala duten euskaldunak identifikatzeko eta euskaldunen KAren erabilerari buruzko argazki kuantitatiboa jasotzeko[7].

Galdetegia sare sozial digitaletatik zabaldu zen eta, parte-hartzaileen profilei jarraipena egin zitzaien (generoa, ingurune soziolinguistikoa eta galdera gakoetako erantzuna: KAren erabilera maiztasuna eta lagunarteko planak). Guztira, baleko 535 erantzun jaso ziren eta erantzunak Jamovi estatistika-programaren bidez aztertu dira.

Erantzunak eta profilak aztertu ostean, lagunartean (batez ere) euskaraz aritu bitartean gaztelania/frantsesa gutxi edo batere ez dutela sartzen dutela dioten zenbait euskaldun identifikatu ziren, eta, behaketak/grabaketak egin zitzaizkien, aldez aurretik eurekin harremanetan jarri ostean: alde batetik, lagunarteko grabaketa bana jaso zitzaien, lagunarteko plan baten bueltan euskarazko jardun ahalik eta informalena jasotzeko asmoz, eta, beste alde batetik, elkarrizketa sakon bana egin zitzaien, euskararen erabilerari eta KAren erabilerari buruzko diskurtsoak jasotzeko.

Grabaketei dagokienez, KAren erabilerarik eza edo oso apala aitortu zuten 7 lagunengana jo zen; horiei jaso zitzaien lagunarteko elkarrizketa eta elkarrizketa sakon bana. Lagunarteko grabaketak, guztira, 6 izan ziren, eta, elkarrizketa sakonak 7, izan ere, ikerketako 2 parte-hartzaile lagunarte berekoak dira eta, beraz, lagunarte berean grabatu ziren.

Lagunarteko grabaketak, batez beste, 44 minutu eta 47 segundokoak izan dira, eta 39 minutu eta 44 segundokoak eta 47 minutu eta 38 segundo artekokoak denak. Elkarrizketa sakonek 36 minutu eta 57 segundo irauten dute batez beste, 28'01'' eta 55'09'' arteko iraupenarekin. Grabaketetan, kasu batean izan ezik, ikertzailea presente izan zen.

---

[7] Datuen babesari eta tratamenduari dagokienez, galdetegi-erantzunak eta grabaketak parte-hartzaileen baimenekin batera jaso dira.

Grabatutakoak aztertzeko, QualCoder programa erabili da; aurretik transkribatutakoa parte-hartzailearen eta gaiaren arabera kodetu da, eta, ondoren, emaitzak eta ondorioak atera dira. Parte-hartzaileen lagunarteko aipuak jaso bezala emateko ahalegina egin da, baina irizpide fonologikoetan baino, irizpide ortografikoetan oinarrituta, salbuespenak salbuespen: *h*-ak ahoskatu ez direnez, *h* barik eman dira aipuak, ortografikoki *n*, *l* edo *t* tokatzen bada, eta bustidura ekoiztu bada > *ñ*, *ll* edo *tt* idatzi da, *g* belar ahostunari erreferentzia egiteko erabili da eta *j* belar ahoskabeari erreferentzia egiteko. Bestalde, elkarrizketa sakonetakoak, oro har, euskara batuaren arauen arabera ekarri dira.

Guztira, 535 pertsonak erantzun zioten galdetegiari, batez ere 41 urte eta 67 urte bitartekoek (% 54), emakumezkoek (% 59,1), etxetik euskaldunak direnek (% 70,1), lagunarteko euskara-erabilera eta -gaitasun aitortu altukoek eta ingurune euskaldunagoetakoek (% 49,3)[8]. Bestalde, gehiengehienek (453) lagunarteko planak egiteko ohitura adierazi zuten, eta 64k oso noizean behin egitekoa.

Adinari dagokionez, 18-29 urte bitarteko 113 gazteren erantzunak jaso ziren (% 21,1), 30-40 urte bitarteko 109 gazte heldurenak (% 20,4), 41-67 urte bitarteko 289 heldurenak (% 54) eta 67 urtetik gorako 24 adinekorenak (% 4,5). Bestalde, etxeko hizkuntzari dagokionez, erantzun duten gehienek (377) dute euskara (ere) lehen hizkuntza gisa, izan gaztelaniarekin batera edo frantsesarekin edo beste hizkuntzaren batekin batera. Hala ere, horietatik gehienek euskara bakarrik dute etxeko hizkuntza. Etxetik erdaldunak (lehen hizkuntza bezala euskara izan ez zutenak) 158 dira (% 29,5). Generoaren arabera ($X^2 = 8,76$, $N = 513$, $gl = 2$, $p = 0,013$), emakumezko gehiago dira etxetik euskaldun elebakar direnak (% 51,9) gizonezkoekin alderatuta (% 39,5). Hazitokiari eta bizitokiari dagokienez, gehienak ingurune euskaldunagoetan hazi dira, baina erdaldunagoetan bizi dira, herri ertainhandikoak dira eta Gipuzkoakoak eta Bizkaikoak dira bereziki.

---

[8] Lan honetako emaitzetan udalerriak bi gune soziolinguistikotan banatu dira: ingurune euskaldunagoa eta ingurune erdaldunagoa, euskararen ezagutza-mailaren arabera: ingurune euskaldunagoan biztanleriaren % 50 baino gehiago da euskalduna eta ingurune erdaldunagoan biztanleriaren % 50 baino gutxiago.

1. taula. Galdetegia erantzun zutenen hiztun-profila zenbait aldagairen arabera


		N
Adina	18-24 urte	36
	25-29 urte	77
	30-34 urte	58
	35-40 urte	51
	41-54 urte	164
	55-67 urte	125
	> 67 urte	24
Generoa	Emakumezkoa	316
	Gizonezkoa	210
	Ez-binarioa	7
	Ez dut erantzun nahi	2
H1	Euskara	249
	Euskara eta gaztelania	123
	Gaztelania	150
	Euskara eta beste bat(zuk)	5
	Gaztelania eta beste bat(zuk)	1
	Beste bat(zuk)	7
Hazitokia	Ingurune euskaldunagoa	263
	Ingurune erdaldunagoa	238
Bizitokia	Ingurune euskaldunagoa	241
	Ingurune erdaldunagoa	262

Iturria: Egileak sortua.

Lagunartean euskaraz hitz egiteko duten gaitasunari dagokionez, gehienek esan dute gaitasun altua edo aurreratua dutela; 1etik 5erako eskalan, 4,31ko batezbestekoarekin, 4ko medianarekin, 5eko modarekin eta 0,858ko desbiderapenarekin, eta, emakumezkoek (4,36) gizonezkoek

(4,26) baino gaitasun altuagoa adierazi dute (U Mann-Whitney (29979, N = 526), p = 0,038), hala ere, efektuaren tamaina txikia da ($r = -0{,}096$)[9].

1. irudia. Pertsona-kopurua lagunartean euskaraz egiteko gaitasunaren arabera, generoa ere kontuan hartuta



Iturria: Egileak sortua.

Lagunarteko euskara-gaitasunaren eta adinaren artean (Spearman korrelazioa = -0,116, gl = 533, p = 0,007), eta lagunarteko euskara-gaitasunaren eta etxeko hizkuntzaren artean ($X^2 = 69{,}9$, gl = 8, N = 522, $p < 0{,}001$) bada erlazio esanguratsurik: adinean behera egin ahala, lagunarteko euskara-gaitasunak gora egiten du, eta, alderantziz, eta euskara H1 dutenek (4,58) dute lagunarteko euskara-gaitasun aitorturik altuena, gero etxetik euskara-gaztelania elebidunek (4,33) eta azkenik etxetik erdaldun elebakarrek (3,90).

Galdetegiari erantzun ziotenen artean, lagunarteko KAren erabilera (edo, euskaraz egin bitartean, erdarazko hitzen edo pasarteen erabilera), batez beste, 3,04koa da 1etik (inoiz ere ez) 5era (askotan). Beraz, KAren erabilera baxuari edo gainerakoenarekin alderatuta, baxuagoari buruz hitz egiteko, batezbesteko horretatik behera erantzun dutenen artean begiratu

[9] Efektuaren tamaina (r): efektu txikia: 0,1; efektu ertaina: 0,3; efektu handia: 0,5.

behar da. Horrela, 213 (% 40) dira 1 edo 2 jarri zutenak lagunarteko KAren erabileran; erdarazko hitzak edo pasarteak inoiz ere ez dituztela erabiltzen adierazi zuten (1 zenbakiarekin) 38k (% 7k) eta gutxitan erabiltzen dutela (2 zenbakiarekin) 175ek (% 33k). Euskaldunen KAren erabilerarik eza edo oso apala denez lan honetan arakatu nahi izan dena, lagunarteko grabaketetarako eta elkarrizketa sakonetarako hurrengo parte-hartzaileak hartzea erabaki da:

2. taula. Lagunarteko grabaketan eta elkarrizketa sakonean parte hartu zutenen profila

Kodea	Adina	Generoa	Ingurune soziolinguistikoa (hazitokia)	Lehen hizkuntza	Lagunekin euskaraz egiteko gaitasuna	Euskara-erabilera lagunekin (1-5)	Erdara-erabilera lagunekin (1-5)	KAren erabilera lagunartean (1-5)	Euskara atxikimendua (Oso gutxi-Asko)
AIN	> 67	Emak.	Nafarroa Garaia (ingurune euskaldunagoa)	Euskara	Aurreratua	5	1	1	Asko
LAM	30-34	Emak.	Bizkaia (ingurune euskaldunagoa)	Euskara	Aurreratua	5	1	1	Asko
ANI	25-29	Emak.	Lapurdi (ingurune erdaldunagoa)	Euskara eta beste bat(zuk)	Altua	4	1	1	Asko
ENE	25-29	Emak.	Nafarroa Garaia (ingurune euskaldunagoa)	Euskara	Altua	5	1	2	Asko
GOR	55-67	Giz.	Araba (ingurune erdaldunagoa)	Gaztelania	Aurreratua	5	1	2	Asko
KAR	55-67	Giz.	Araba (ingurune erdaldunagoa)	Gaztelania	Aurreratua	5	1	2	Asko
KAX	35-40	Emak.	Gipuzkoa (ingurune erdaldunagoa)	Gaztelania	Aurreratua	5	1	2	Asko

Iturria: Egileak sortua.

Guztira, 25-29 urte bitarteko bi lagun, 55-67 urte bitarteko beste bi lagun eta 30-34 urte bitarteko, 35-40 urte bitarteko eta 67 urtetik gorako lagun bana grabatu ziren; gehienak emakumeak (% 71,4), etxetik euskaldunak (% 57,1), lagunarterako euskara-gaitasun aurreratukoak (% 71,4), lagunarteko euskararen erabilera oso altukoak (4,9), KAren erabilera baxua aitortu dutenak eta euskararekiko atxikimendu altuenekoak.

AINen lagunartea irakasle ohien artekoa da, LAMena parkean elkartzen den guraso artekoa da («kuadrilla naturala» gehi beste batzuk), KAXena txikitako lagunen (kuadrilla) eta euren bikotekideen artekoa, GORena euskara praktikatzeko lagunartea da (bertan, GORen rola gainerakoen eredu/laguntza izatea da), KARena Euskalgintzak batutako lagunartea eta ANI eta ENE lagunarte berekoak dira, herriko lagunak.

6 **Emaitzak**

Emaitzak hiru ataletan banatu dira. Alde batetik, galdetegiaren erantzunen berri emango da, argazki orokorretik aldagaiz aldagaiko irakurketarainoko ibilbidea eginez. Beste alde batetik, KAren erabilerarik eza edo, gainerakoekin alderatuta, KAren erabilera baxuagoa aitortu zuten parte-hartzaileen lagunarteko ekoizpenen berri emango da. Bukatzeko, azken parte-hartzaile horien «hizkerei buruz eta KAren erabilerari buruz dauzkaten iritziak» partekatuko dira.

6.1 **Kode-alternantziaren erabilera-maiztasuna aldagaien arabera**

Galdetegia erantzun zutenen artean, ikusten da, oro har, euskara erdara baino gehiago erabiltzen dela; KAren erabilerari dagokionez, erdigunean daudela (1etik 5erako eskalan); eta, euskararekiko atxikimendu altua dutela[10]:

[10] Esanguratasun-mailak: txikia: $p < 0,05$; ertaina: $p < 0,01$; handia: $p < 0,001$.

3. taula. Galdetegiko eskala-aldagaien batezbestekoak

	Euskararen erabilera lagunartean (1etik 5era)	**Erdararen erabilera lagunartean (1etik 5era)**	**KAren erabilera lagunartean (1etik 5era)**	**Euskararekiko atxikimendua (1etik 4ra)**
Guztira	3,81[11]	2,52[12]	3,04[13]	3,86[14]

Iturria: Egileak sortua.

Kruskal-Wallis analisian oinarrituta, KAren erabilera aitortu altuagoa erakutsi dute gazteagoek helduenek baino ($X^2 = 24,52$, gl = 6, $p < 0,001$; $\varepsilon^2 = 0,0459$)[15], hori bai, efektu txikikoa da aldea. DSCF *post-hoc* konparazioen arabera, zehazki, esanguratasuna 18-24 urtekoen eta 67 urtetik gorakoen artean (W = -4,461, p = 0,027), 25-29 urtekoen eta 67 urtetik gorakoen artean (W = -4,915, p = 0,009), 35-40 urtekoen eta 67 urtetik gorakoen artean (W = -4,937, p = 0,009) eta 41-54 urtekoen eta 67 urtetik gorakoen artean (W = -4,872, p = 0,010) dago. Gainerakoetan (euskara/erdara-erabileran eta euskararekiko atxikimenduan) ez dago alde esanguratsurik adinaren arabera.

[11] Mediana: 4; moda: 5; desbideratzea: 1,25.

[12] Mediana: 2; moda: 1; desbideratzea: 1,49.

[13] Mediana: 3; moda: 2; desbideratzea: 1,20.

[14] Mediana: 4; moda: 4; desbideratzea: 0,382.

[15] Efektuaren tamaina (ε^2): efektu txikia: 0,01-0,05; efektu ertaina: 0,06-0,13; efektu handia: 0,14tik gora.


4. taula. Eskala-aldagaien batezbestekoak adinaren arabera

Adina	Euskararen erabilera lagunartean (1etik 5era)	Erdararen erabilera lagunartean (1etik 5era)	KAren erabilera lagunartean (1etik 5era)	Euskararekiko atxikimendua (1etik 4ra)
18-24	3,61	2,64	3,22	3,86
25-29	3,87	2,44	3,22	3,86
30-34	4,03	2,22	2,98	3,90
35-40	4,06	2,35	3,39	3,86
41-54	3,68	2,72	3,15	3,82
55-67	3,80	2,46	2,78	3,89
67 <	3,67	2,58	2,25	3,83

Iturria: Egileak sortua.

Hurrengo irudian ikusten denaren arabera, KAren erabilera baxuena adin-tarte altuenetan dago. Harreman esanguratsua, baina ahula dago adinaren eta KAren erabileraren artean (Spearman korrelazioa; -0,164, $gl = 533$, $p < 0,001$): adinak behera egin ahala, KAren erabilera aitortuak gora egiten du, eta alderantziz.

2. irudia. Lagunarteko KAren erabilera-maiztasuna adinaren arabera



Iturria: Egileak sortua.

Generoaren arabera, lagunartean emakumezkoek euskara gizonezkoek baino gehiago erabiltzen dute (U Mann Whitney = 28192, p = 0,002, *r* = -0,150) eta lagunarteko KAren erabilera altuagoa ere bai (U Mann Whitney = 28095, p = 0,002, *r* = -0,153). Hala ere, aldeak egon badaude ere, biek tamaina efektu txikia dute. Euskararekiko atxikimenduari dagokionez, ez da alde esanguratsurik aurkitu gizonezkoen eta emakumezkoen artean (U Mann Whitney = 32165, p = 0,313).

5. taula. Eskala-aldagaien batezbestekoak generoaren arabera

Generoa	Euskararen erabilera lagunartean (1etik 5era)	Erdararen erabilera lagunartean (1etik 5era)	KAren erabilera lagunartean (1etik 5era)	Euskararekiko atxikimendua (1etik 4ra)
Emakumezkoak	3.93	2.41	3.18	3.85
Gizonezkoak	3.60	2.70	2.85	3.87

Iturria: Egileak sortua.

Etxeko hizkuntzaren arabera, alde esanguratsuak daude aztertutako aldagai guztietan (Kruskal-Wallis), baina efektuaren tamaina aldakorra da: handia euskararen eta erdararen erabileran, eta txikia KAren erabileran eta euskararekiko atxikimenduan. Euskara H1 dutenek erabiltzen dute gehien euskara lagunartean ($X^2 = 143$, gl = 2, $p < 0{,}001$, $\varepsilon^2 = 0{,}275$) eta gutxien erdara ($X^2 = 162$, gl = 2, $p < 0{,}001$, $\varepsilon^2 = 0{,}311$). Lagunarteko KAren erabilerari dagokionez, lehen hizkuntza (H1) euskara dutenek aitortu dute KAren erabilera baxuena eta, altuena, aldibereko elebidunek (hau da, 2H1 direnek); aldea esanguratsua da, baina efektu txikikoa ($X^2 = 9{,}63$, gl = 2, $p = 0{,}008$, $\varepsilon^2 = 0{,}0185$), eta, DSCF post-hoc konparazioen arabera, bi talde horien artean baino ez dago alde esanguratsua ($p < 0{,}010$). Azkenik, euskara H1 dutenak dira euskararekiko atxikimendu altuena adierazi dutenak ($X^2 = 21{,}3$, gl = 2, $p < 0{,}001$, $\varepsilon^2 = 0{,}0408$).

6. taula. Eskala-aldagaien batezbestekoak H1aren arabera

H1	Euskararen erabilera lagunartean (1etik 5era)	Erdararen erabilera lagunartean (1etik 5era)	KAren erabilera lagunartean (1etik 5era)	Euskararekiko atxikimendua (1etik 4ra)
Euskara	4,45	1,70	2,88	3,92
Euskara eta gaztelania	3,63	2,81	3,27	3,89
Gaztelania	2,94	3,61	3,14	3,73

Iturria: Egileak sortua.

Lagunartean euskaraz egiteko gaitasunaren arabera (Kruskal Wallis analisia aplikatuz), euskara-gaitasun altuagoa aitortzen dutenek aitortzen dute euskararen erabilera ($X^2 = 138,6$, gl = 4, $p < 0,001$, $\varepsilon^2 = 0,260$) eta euskararekiko atxikimendu altuagoa ($X^2 = 57,9$, gl = 4, $p < 0,001$, $\varepsilon^2 = 0,108$). Era berean, euskara-gaitasun altuena aitortu dutenek euskara-gaitasun hain altua aitortu ez dutenek baino KAren erabilera baxuagoa adierazi dute ($X^2 = 18,7$, gl = 4, $p < 0,001$, $\varepsilon^2 = 0,0350$). Hiru kasuetan da aldea esanguratsua, baina, efektuaren indarra euskararen erabileran handia da, euskararekiko atxikimenduan ertaina eta KAren erabileran txikia (gainera, kasu honetan, alde esanguratsua gaitasun altua eta aurre-ratua dutenen artean baino ez da aurkitu --3,26 VS 2,82; W = -5,838, $p < 0,001$--).


7. taula. Eskala-aldagaien batezbestekoak lagunarteko euskara-gaitasunaren arabera

Lagunarteko euskara-gaitasuna	Euskararen erabilera lagunartean (1etik 5era)	Erdararen erabilera lagunartean (1etik 5era)	KAren erabilera lagunartean (1etik 5era)	Euskararekiko atxikimendua (1etik 4ra)
Apala	1,46	4,69	3,46	3,31
Oinarrizkoa	2	3,56	3,44	3,33
Tartekoa	2,76	3,59	3,06	3,76
Altua	3,55	2,85	3,26	3,83
Aurreratua	4,34	1,95	2,82	3,93

Iturria: Egileak sortua.

Lagunartean euskaraz aritzeko trebetasun aitortuaren eta lagunartean KA erabiltzeko maiztasun aitortuaren artean korrelazio oso esanguratsua dago: negatibo ahula (Spearman, -0.169, gl = 533, $p < 0,001$); hurrengo irudian ikus daitekeen bezala, euskaldunen euskara gaitasunak gora egin ahala, KAren erabilerak behera egiten du, eta alderantziz.


3. irudia. Lagunarteko KAren erabilera lagunarteko euskara-gaitasunaren arabera



Iturria: Egileak sortua.

Lagunartean euskaraz aritzeko maiztasun aitortuaren eta KAren erabilera aitortuaren artean ere, korrelazioa oso esanguratsua da eta negatibo ahula (Spearman: -0.270, gl = 533, p < 0,001); lagunarteko euskara-erabilerak gora egin ahala, KAren erabilerak behera egiten du, eta alderantziz. Ildo beretik, erdararen erabilerak gora egin ahala, KAren erabilerak ere gora egiten du (Spearman, 0.271, N = 533, p < 0,001).


4. irudia. Lagunarteko KAren erabilera lagunarteko euskara-erabileraren arabera



Iturria: Egileak sortua.

Euskararekiko atxikimenduaren (1etik 4ra, euskarari emandako balioaren) eta KAren erabilera aitortuaren artean, korrelazio esanguratsua dago, negatibo ahula. Euskararekiko atxikimenduak gora egin ahala, KAren erabilera aitortuak behera egiten du (Spearman, -0.117, gl = 533, p = 0,007).

5. irudia. Lagunarteko KAren erabilera euskararekiko atxikimenduaren arabera



Iturria: Egileak sortua.

Galdetegia erantzun zutenen hazitokia oinarri hartuta, ikusten da ingurune euskaldunagoetakoek dutela euskaraz hitz egiteko trebetasun aitortu altuena (U Mann-Whitney = 22.108, p < 0,001, *r* = -0,294), lagunartean euskara-erabilera aitortu altuena (U Mann-Whitney = 14.431, p < 0,001, *r* = -0,539) eta erdara-erabilera baxuena (U Mann Whitney = 12.137, p < 0,001, *r* = 0,612), lagunartean KAren erabilera aitortu baxuena (U Mann-Whitney = 26.230, p = 0,001, *r* = 0,162) eta euskararekiko atxikimendu altuena (U Mann-Whitney = 28.948, p = 0,014, *r* = -0,0751). Ingurune soziolinguistikoaren eta lagunarteko euskara-erdara erabileraren artean aldeak oso esanguratsuak eta indartsuak dira, ingurune soziolinguistikoaren eta lagunarteko euskara-gaitasunaren arteko aldeak oso esanguratsuak eta sendotasun txiki-ertainekoak dira, eta, ingurune

soziolinguistikoaren eta KAren erabileraren edo euskararekiko atxikimenduaren artekoak esanguratsuak eta efektu (oso) txikikoak.

8. taula. Eskala-aldagaien batezbestekoak euskaldunen ingurune soziolinguistikoaren arabera

Hazitokia	Euskararen gaitasuna lagunartean (1etik 5era)	Euskararen erabilera-maiztasuna lagunartean (1etik 5era)	Erdararen erabilera-maiztasuna lagunartean (1etik 5era)	KAren erabilera lagunartean (1etik 5era)	Euskararekiko atxikimendua (1etik 4ra)
Euskaldunak % 50etik gora	4.56	4.38	1.72	2.87	3.90
Euskaldunak % 50etik behera	4.09	3.19	3.34	3.22	3.81

Iturria: Egileak sortua.

Bizilekuari dagokionez ere, antzeko joera ikusten da: ingurune erdaldunagoetan bizi zirenek (3,18 VS 2,86) KAren erabilera altuagoa aitortu zuten (U Mann-Whitney = 26.997, p = 0,004, *r* = 0,145).

6.2 **Kode-alternantziaren erabileraren izaera eta erabilera ekiditeko baliabideak**

Aurreko atalean ikusi bezala, euskaldun batzuek ez zuten KAren erabilerarik aitortu, edo, batezbestekotik behera dagoen erabilera aitortu zuten. Hain zuzen ere, horietako batzuei lagunarteko ekoizpena jaso zitzaien, hots, KA erabiltzeko ohikoa den testuinguru bateko euskara-ekoizpena. Parte-hartzaileek helburu komunikatiboak euskara hutsez betetzeko baliabideak badituztela erakutsi zuten, esaterako, beste baten hitzak (edota norbere

buruaren pentsamenduak) elkarrizketara euskaraz ekarri zituzten askok, baita agian momentu hartan erdaraz ekoiztu zirenak ere (1, 2, 3)[16].

1. Eduki nuen eztabaida bat [leku izen batetik] etortzean emakumezko gidari bat eta [...] eta eta ori eta bera [leku izena] erria zela eta ez [leku izena] […] **beti pentsatu dut erria zela**, baiña beti pentsatu duzu txarto. (KAR).

2. Bai nik ere oi aitu nun oso txarra ingo zula eta gero ustet argazkiak ikusi nitula jendiana eta **pentsatu nun a giro ederra dao**. (KAX).

3. [...] eta baten batek **esan zuen: aizu baña ireki egin dugu autoa, nola daiteke?** Ta a begira giltzak emen daude, la ostia! Jo ba ordubete etaaa hogei minutuko ibillaldia. (GOR).

Batzuek emozioekin edo erreakzioekin lotutako esamoldeak euskaraz adierazi zituzten (4), eta, nahiz eta hika ez zen lagunarte batean ere egin, batzuek hikaren erabilerara jo zuten beren hitz hartzea informaltzeko edo umore puntua gehitzeko (5, 6).

4. Ba ni daroiet […] pasau dot aste guztixe ezer idatzi barik ez euskaraldia, ez arnasgunea, **ez e aita santuen abarketie!** (LAM).

5. Pues yasta, **bazekiñat** ordun hemendik aurrea mendia juten naizenean **artukoñat** eta a ber eramanazazu eztakit noa. (AIN).

6. **Gutxienez isil adin!** (KAR).

Hitz bakarreko erreakzio batzuk ere jaso ziren, solaskidea esaten ari denari momentuko balorazioa egiteko.

7. **Bikain!** (ANI).

8. **Hara!** (KAX).

---

[16] Azaldu nahi den baliabidea baino ez da nabarmendu beltzez; hori dela eta, adibide batzuetan beltzez nabarmendu ez diren erdarazko beste elementu batzuk ere ageri dira. Bestalde, KAren eta maileguaren arteko mugari buruz adostasunik ez dagoenez eta biak *continuum* batean kokatzea proposatu izan denez (Lantto 2023), muga lausoko kasuak (28.-33. adibideak) halakotzat aurkeztu dira, eta Euskaltzaindiaren Hiztegian jasotako zenbait hitz ez dira KAtzat hartu.

Gai batetik bestera salto egitean, euskarari eutsi zioten, kodez aldatu barik, adibidez, aurreko gaiaren puntu bat hartuz eta solaskideak gai berrira ekarriz.

9. **Baakizue** zer pasa den Bilbon? **Oain esaten duzula hori?** Leengo egunean bakarren bat, bakarren bat gelditu da ortzainari galdetzeko ez dakit zer zer zegoen eta etorri da kotxe automatiko bat eta aurrean artuta eraman du. (AIN).

Zenbaitetan solaskideak edukira ekarri dira bestelako funtzio batzuekin lotuz; norbere burua hobeto edo bestela azaltzeko (10) eta dena delako galdera edo ideia solaskide bakar bati zuzentzeko (11).

10. [...] bakarrik zijoan, **esan nai dizut**, atzean zijoan okupantea ta bea bakarrik zijoan. Eztakit nola zijoan. (AIN).

11. **Aizu**, eta hori eittearen arabera egiten dezue edo leenautik baduzue plangintza bat, egiten da plangintza bat, egingo ditteu gastu auek, jatea? (AIN).

Aurretik esandakoa osatzeko edo aurretik esandakoari beste zeozer gehitzeko, askotariko baliabideak jaso zitzaizkien parte-hartzaileei, adibidez, lehen aipatu bezala, solaskideak edukira ekarriz eta lokailu bat gehituz (12), edo eduki berria iragarriz (13).

12. **Aizue** Frantzia juan giñenean eerki ibili giñen **ba!** […] (AIN).

13. **Nere alde zerbait esango det:** kontzertu osoa pasatu zen orduako, ia-ia bukaera zan eta kriston pixa […] eta loguria sartu zitzaidan pixkat bukaeran. Gaiñea ez al zen ostirala? (KAX).

Isiluneak betetzeko edo pentsatzeko denbora hartzeko batzuek 14. eta 15. adibideetan ageri diren elementuen modukoak erabiltzeko joera erakutsi zuten.

14. **Olaxen ba.** (AIN).

15. Nik ez dakit baiña kanpotik ikusita eta puta ideiarik idukita, **e zera** eduki gabe esan nai dut, e nik uste dut or gauza oiek ere normali-

zatu bear direla federazioak eta enpresak eta zerbait egin bearko da ze bestela ez da lojikoa. (KAR).

Azkenik, ideia indartzeko hitz bakarreko baliabideak asko erabili dira, benetan indartu nahi den hitzaren aurretik (16) edo atzetik (17). Bestelako batzuk ere jaso dira (funtzio indargarria duen hitzaren errepikapena, adibidez), baina adibide gutxiagorekin.

16. Erran zuten [izena] **sobera** mea zela. (ENE).

17. Nik egixa esangotsuet, kotxin untxe etorri naz eta esan dot ostia inbidi puntue **itxela** iruñera jutiana, mozkortu, aztu. (LAM).

Aldiz, egiaztatu ahal izan da kasu batzuetan, aipatutako testuinguru batzuetan, KA ere erabiltzen dela eta beraz, batzuek aitortutakoa ez datorrela bat errealitatearekin. KAren erabilera adibide gehien etxetik euskaldun zetozenei jaso zitzaien eta gutxien etxetik erdaldun zetozenei (KAXi eta KARi gutxien).

Hasteko, batek inoiz beste baten hitzak elkarrizketara erdaraz ekarri zituen.

18. [...] edo lapurtzen badizute zerbait, bizikletaren bat, **jendeak esaten du me an robado la bicicleta**. Joder, sartu orrelakoren bat eta ikusiko duzu zelan arrapatzen duzun lapurra. (GOR).

Emozioekin edo erreakzioekin lotutako batzuk erdaraz jaso ziren, esamoldeak (19) zein hitz bakarrekoak (20), baita egoerari umore puntua gehitzeko iruzkinak ere bai (21).

19. [...] ostia, irua eta amar eta ola e **depresión total ta mala ostia**. (ANI).

20. **Merde** (ANI).

21. **Control, control social!** (LAM).

Gai batetik bestera salto egitean, ez zioten beti euskarari eutsi, eta, ordura artekoa eteteko eta gaiez aldatzeko erdararen erabilera ere jaso zen.

22. **A todo esto**, ee beste gauza bat, [nonbaiteko] batzar orokorra noz da? (LAM).

Isiluneak betetzeko edo pentsatzeko denbora hartzeko erdarazko adibide batzuk jaso ziren, eta horietako batzuk (24koa adibidez) maiztasun handiarekin erabili zituzten batzuek.

23. Ez ez, baña bueno **sinmas**. (LAM).

24. Ez eta **en fin**, okerrena da ba ori batez ere eskuiñeko jendeak ya iparra galdu duela guztiz beren ideologiarekin itxututa daude erabat. (GOR).

Ideiak indartzeko erdarazko esamolde batzuk jaso ziren, esaldi barruko KAren erabileraren barruan. Parte-hartzaile bakar batek erakutsi du euskaraz egituratutako esaldi barru batzuetan erdarazko esamolde indargarriak sartzeko joera.

25. [...] etorri na **a toda ostia** hor goittik beera pentsetan enai heldu bear, umik [norbaitegaz] das **con dos cojones**, [norbaitegaz]… [...] umik, ta zer? (LAM).

Gertatu da parte-hartzaileren batek erdaraz jasotakoari erdaraz erantzuteko joera erakustea (26), hau da, ematen du solaskidearen hizkuntzaren arabera erantzuteko joera gerta daitekeela, baina hori ez da gehienen kasuan identifikatu (27).

26. - laguna: **te encanta!**

    - Karo que ba me encanta! (LAM).

27. - laguna: gutxiago, **treintaidos, veinte siete cinco** proportzioa ez?

    - Ogeita lau lektibo, ez ez, ogeitalau egon eta […]. (KAR).

Gaiaren arabera, hitz batzuk erdaraz ekoiztu ziren, eta, hitz horiek horrela esaten dituztela ematen du. Horrelako batzuetan, zaila izan daiteke zehaztea erdara den edo jada (norbere) euskaran txertatutako mailegua.

28. [...] txarrena da gañera ni oso teknolojikoa naiz eta onelako **paridak** ditut […]. (GOR).

29. Duela gutti aipatu zuten **kit de emergencia** bat iteko eztakit zer oitu bear giñela olako egoeretara eta eztakit zer, eta pun apagona. (ENE).

30. [...] gañera, antza danez, e, zera, e, Pradales asi da itz batzuk katalanez esaten […] ta **kapulla** orrek […]. (GOR).

Aurretik esandakoa osatzeko edo aurretik esandakoari beste zeozer gehitzeko, euskaraz hitz egin bitartean ere asko erabiltzen diren erdarazko *pues*, *eske*, *osea*… makuluak asko erabili ziren. Horietako batzuen kasuan ere, ahozko mailan, zaila izan daiteke erabakitzea euskara diren edo ez.

31. **Pues** galdera bat: Mintzola zer da? Villabonan dagoen ori? e? Bada Mintzola or. (AIN).

32. Baiña **eske** konturatu naiz leen asteak […]. (KAR).

33. **Osea eske pues** e bai baño [pertsona izenak] ez. (KAX).

6.3 **Hizkerei eta kode-alternantziari buruzko iritziak**

Parte-hartzaile denei gustatzen zaizkie euskaraz egiteko tokian tokiko moduak eta, hizkera bat edo beste erabiltzeko edota horri buruzko edozein balorazio egiteko, oro har, ezinbestekotzat jotzen dute egoera komunikatiboa kontuan hartzea. Euren ustez, egoera informalagoetan ohikoagoa edota onargarriagoa da estandarretik urrunago ibiltzea eta egoera formalagoetan, berriz, ez.

34. [...] ez daukat oso garbi. Euskalkiak edonon erabili beharko liratekeen. (GOR).

35. Ez zait iruditzen jendeak informalki edo euskalkiak erabiltzea gaizki dagoenik komunikabideetan ondo ikusten dut, baita, albistegietan ez nuke erabiliko baina bueno, adibidez, entretenimendu saio batean euskalkiak erabiltzea edo euskara ez hain estandarra, ba ondo iruditzen zait, agian bakoitzak bere espazioa dauka. (KAX).

36. Segun ze gai den ere, zure solasteko manera aldatzen da igual edo ba gehiago bazilatzen edo zirikan edo igual pekatue bat. (ENE).

37. Sanue da biak edukitzea, espazio bat, arnasgune bat gure euskalkia mantentzeko, gure hitzak, gure, gure izaera hori. Eta beste testuinguru batzuetan anitzagoa danetan ulermena errazte aldera. Danoi. Ni hor eroso sentitzen naiz. (LAM).

Euskara-hizkeren edo euskalkien arteko konbinazioarekin alderatuta, euskaldunen KAren erabilerari desberdin begiratzen diote denek. Orokorrean, galdetegi erantzunetan baino KAren erabilera aitortu altuagoa jaso zitzaien, baina kritikotasun handiarekin eta kezkarekin (kezka mailak daude euren artean) begiratzen diote fenomenoari, eta ez zaie KA gustatzen, ez baldin bada pixka bat erabiltzen dena. Kezkak erdaren eraginaren dimentsioarekikoak dira.

38. Gazteleratik baldin badator, esango nioke ba pena. Nik ez dut uste ezer gazteleratik hartzeko arrazoirik daukagunik. (LAM).

39. Egoeraren arabera, lagunartean egiten baldin bada, ez nau bereziki kezkatzen. Bueno, hobe litzateke code switching egingo ez balitz. (GOR).

40. [...] esaldien morfosintaxia, lexikoa eta zera espainiera da. (KAR).

41. Ostra ez dugu ahantzi behar ere bai. Hoi da. Osea, euskaraz mintzatzen ari garela edo arriskua dagoela bertze hitz hizkuntzetatik sartzen badie hitzak edo esaldiak eta hola arriskua dagoela pues euskaraz ez izatea halako indarrik edo bueno, edo. (ENE).

Batzuek aipatu zuten, beren ustez, KA batez ere gazteen artean erabiltzen dela eta denek bat egiten dute erdaren eta euskararen arteko harreman desorekatua, edo, erdararen presentzia/erdararekiko ohitura dela eragileetako bat. Beste eragile batzuk edo KA erabiltzeko funtzio batzuk ere aipatu zituzten, esaterako, umorea txertatzeko, beste hizkuntza bateko esamoldeak ekartzeko, hizkera teknikoa erabiltzeko, erraztasunagatik, ezagutza-gaitasun-adierazkortasun faltagatik (hori bera euskaraz nola esan

ez jakiteagatik), gaiaren arabera, halako maila bat adierazteko, euskara garbiago batetik aldentzeko eta besteei kopiatzeagatik.

42. Edo inguruk jaten gaituelako edo eztakit ze ingurutik atera garelako. Zu aritu baldin bazara ja igual goiz osoa erderaz hitzik egiten, […] eta gero etorri eta ez dakit zer, ba igual tartean tartean hitzen bat aterako zait erderaz, e. (AIN).

43. Nik gaztelerazko hitz asko erabiltzen dotaz nik sartzen dut maila tekniko batean batzutan bai talentuaren erakarpena edo. Ordun, horrelako hitz batzuk bai sartzen ditut, baina batez ere euskaraz ez naizelako eroso sentitzen horren itzulpen formalarekin. Identitatea galtzen da eta nahiago dut gaztelaniazko hitz hori edo ingelesezko hitz hori erabiltzea. (LAM).

44. [...] ematen du broma bat egiteko edo graziosoa izateko gazteleraz egin behar duzula. (KAX).

Inguruko errealitatearekin alderatuta, «KA gutxi» erabiltzen duten euskaldunei buruz, euren burua hor ikusten dute, oro har. KAren erabilera gutxi horren arrazoien inguruan galdetuta, horren atzean hautu kontzientea dagoela aipatzen da, edo, bestela, beharrik eza.

45. Ba lagun batzuk jakin batzuk baditudala agian saiatzen direnak hori ekiditen, […] euskara jator bat hitz egitearen aldeko apustua. (KAX).

46. Hoi iten ez duenak edo osea konsziente delako, nik uste edo. (ENE).

47. [...] oso mugatua da, erran molde bat, espresio bat adierazteko bai, halere aski mugatua. (ANI).

Bukatzeko, nabarmentzekoa da parte-hartzaile guztien euskararekiko lotura estua.

48. Ni euskararen inguruan dagoen guztia eta etortzen den guztia. Ikasteko pronto eta ikusteko pronto eta zeatzeko pronto. (AIN).

49. Eta hizkuntzarekin lotuta guztiz aldatu da nire fokua. Gaur ehuneko 90a euskeraz eitten dot. […] Ni ez naiz pertsona berdina euskaraz eta gazteleraz. Eta euskarazko harremanetan beste konexio bat erortzen da pixka bat. (LAM).

50. [...] baina bestela beti euskaraz egiten det hori, familia kenduta, lagunartean betiere nire bikotearekin dena beti euskaraz egiten det. (KAX).

7 Eztabaida eta ondorioak

Lan honetan metodologia mistoa erabili da. Alde batetik, euskaldunen kode-alternantziaren (KA) erabileran eragiten duten zenbait aldagai psikosoziolinguistikoren araberako KAren erabileraren maiztasunaren berri jasotzeko galdetegia diseinatu, zabaldu eta erantzunak aztertu dira, eta, bestetik, fenomeno honen erabilerarik eza edo gainerakoekin alderatuta, erabilera urria aitortzen duten euskaldunen profiletan eta lagunarteko euskara ekoizpenean sakontzeko lagunarteko grabaketak eta elkarrizketa sakonak diseinatu, grabatu eta arakatu dira.

Galdetegiari 535 pertsonak erantzun zioten, batez ere 41 urte eta 67 urte bitartekoek, emakumezkoek, etxetik euskaldunek, lagunarteko euskara-erabilera eta -gaitasun aitortu altukoek eta ingurune euskaldunagoetan hazitakoek, hau da, euskaldunak % 50etik gora diren lekuetan hazitakoek. Lagunartekoa 25-29 urte bitarteko bi laguni, 55-67 urte bitarteko beste bi laguni eta 30-34 urte bitarteko, 35-40 urte bitarteko eta 67 urtetik gorako lagun banari jaso zitzaien; gehienak emakumeak, etxetik euskaldunak, lagunarterako euskara-gaitasun aurreratukoak, lagunarteko euskararen erabilera oso altukoak, KAren erabilera aitortu baxukoak eta euskararekiko atxikimendu altuenekoak. Horiei elkarrizketa sakon bana ere jaso zitzaien.

Emaitzei begiratuta, beste lan askotan baieztatu den bezala (Lantto 2015; Pérez González 2024), emaitzek erakutsi dute KAren erabilera oso zabalduta dagoela euskaldunen artean. Izan ere, erdarazko hitzak edo pasarteak

inoiz ere ez dituztela erabiltzen soilik 38k (% 7k) adierazi dute 535etik. Horietako hirurekin egon ostean, ordea, errealitateak aitortutakoarekin bat egiten ez duela ikusi da (denek erabili zuten KA), Lanttok (2015) ere ikusi zuen bezala.

KAren erabileran eragiten duten aldagai aitortuen arabera, ingurune euskaldunagoetakoek dute KAren erabilera baxuena, eta helduenek baxuena, emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago erabiltzen dute, lehen hizkuntza gisa (H1) euskara dutenek erabiltzen dute gutxien KA eta aldibereko elebidunek (2H1) gehien, euskara-gaitasun altuena dutenek dute KAren erabilera baxuena eta euskararekiko atxikimendu altuena dutenek dute KAren erabilera baxuena. Hala ere, aldeen tamainak, oro har, txikiak izan direnez, berretsi daiteke KAren erabilera-maiztasunean eragiten duten aldagaiak askotarikoak direla eta errealitatea ezin duela aldagai bakar batek azaldu (Lantto 2023). Hori bai, euskararekiko zenbat eta estuagoak izan aldagaiak, orduan eta KAren erabilera apalagoa aitortzen da, espero bezala (Pérez González 2022, 2024).

Etxeko hizkuntzari dagokionez, esan bezala lehen hizkuntza (H1) gisa euskara dutenek aitortu dute KAren erabilerarik baxuena, Lanttok behatutako erabilera errealarekin bat ez datorrena (2015), baina Pérez Gonzálezen (2022) lanarekin bai. Era berean, aldibereko elebidunek, hau da, euskara 2H1 gisa dutenek, aitortu dute KAren erabilera altuena, eta, nahiz eta aldea ez den oso esanguratsua, horrek iradoki dezake hiztunek hizkuntza bakoitzean duten hizkuntza-gaitasunean sakonduz gero, euskaldunen hizkuntza-gaitasunari buruzko argazki osatuagoa atera litekeela (gaitasunaren eta KAren erabileraren arteko harremanari buruz dagoen eztabaidaren bidetik; ikus, adibidez, Oktavia eta Trisnawati 2020 eta Poplack 1980).

Badaude beste zenbait puntu bereizgarri: lan honetan, helduenetan gazteagoetan baino KAren erabilera aitortu baxuagoa jaso da, eta horrek bat egin dezake gazteen artean KAren erabilera oso ohikoarekin (Altuna Ramírez 2023; Gardner Chloros 2009). Bestalde, generoaren arabera, Pérez Gonzálezen aurreko lanetan ez bezala, oraingoan emakumezkoen eta gizonezkoen artean alde esanguratsua identifikatu da, hots, emakumezkoek gizonezkoek

baino KAren erabilera altuagoa aitortu dute. Badirudi emaitza horrek ez duela bat egiten maskulinitatearen eta gaztelaniaren arteko loturarekin (Altuna Ramírez 2023), baina bai agian autentikotasunaren eta maskulinitatearen arteko loturarekin (Lantto 2015), euskara garbiagoa, euskara hutsagoa aitortzeko nork aitortzen dion bere buruari zilegitasunik handiena, adibidez. Irakurketa horrek zentzua izan dezake, emakumezkoek gizonezkoek baino KAren erabilera altuagoa aitortzearekin batera, euskara-gaitasun altuagoa aitortu baitute eta baita euskara-erabilera altuagoa ere. Hau da, euren euskara-gaitasunaren eta euren lagunarteko euskara-erabileraren arabera, KAren erabilera baxuagoa espero litzateke, baina ez da horrela, eta, beraz, aurretik aipatutako balizko arrazoiak emaitza azalduko luke.

Bestalde, lagunarteko euskara-ekoizpenei dagokienez, parte-hartzaile denei jaso zaie KAren erabilera. Hala ere, denek erakutsi zuten lagunarteko behar komunikatiboak euskara hutsez estaltzeko baliabideak badituztela, erdarara jo beharrik gabe, eta hori ez da ohikoa euskaldunen artean (Bereziartua Arruabarrena eta beste 2023). Hala nola beste baten hitzak ekartzeko, emozioekin edota erreakzioekin (balorazioekin) lotutako adierazpenak egiteko, hizkera informaltzeko edo umore puntua sartzeko, beste gai batera salto egiteko, solaskideak edukira ekartzeko eta betegarrietarako edo indargarrietarako euskara erabiltzen dute maiz. Ordea, batzuetan erdara ere erabiltzen dute, erdaraz ekarriz beste batek esandakoa, indargarriak edo betegarriak erdaraz esanez, etab. Adibide gehienak etiketa bidezkoak dira, baina badaude esaldi barruko zenbait adibide. Oro har, jaso diren adibideek bat egiten dute KAren erabilerarako errazenak (Lantto 2023) diren ekoizpenekin eta espero izatekoa zenarekin: diskurtso markatzaileak, esamoldeak eta izenak dira jasotako asko. Era berean, etxetik euskaldunei KA adibide gehiago eta askotarikoagoak (esaldi barrukoak eta etiketa bidezkoak) jaso zaizkie eta etxetik erdaldunei KAren erabilera periferikoagoa (etiketa bidezkoa). Horrek ez du bat egin hasieran aurreikusitakoarekin, izan ere, lan honetako etxetik euskaldun askori euskararen aldeko gaitasun desorekatua aurreikusi zaie, eta, beraz, erdara diskurtso berera sartzeko abilezia edota malgutasun hain handirik ez. Aurreikuspena bete ez izana azal daiteke etxetik euskaldun horiek uste baino erdara gaitasun altuagoa (eta, beraz, uste baino gaitasun orekatuagoa) dutela uste izanez edo ideologia garbizaleak etxetik erdaldunei

gehiago eragiten diela pentsatuz edo adinaren eraginagatik, lagin honetako etxetik euskaldunak, oro har, etxetik erdaldunak baino gazteagoak baitira (ikus 2. taula) (Lantto 2015).

Parte-hartzaile hauek (oso nagusiki) euskaraz ari dira hizketan eta beraz, kasu honetan, KAren erabilerak ez du euskarari eusteko estrategia gisa balio (Gardner Chloros 2009), eta gehiago ikusten dute euskara alboratzeko arrisku gisa (Lantto 2023).

Amaitzeko, lan honen emaitzak zenbait mugaren barruan ulertu behar dira:

Lehenik, emaitza kuantitatiboak KAren erabilera aitortuari buruzkoak dira, eta hiztunek beren hizkerari buruz duten irudiaren isla gisa ere irakur daitezke, ez soilik erabileraren neurri gisa.

Bigarrenik eta analisiei dagokienez, aldagai bakoitzaren eta KAren erabilera-maiztasun aitortuaren arteko lotura banaka aztertu da, proba ez-parametrikoen bidez, arloko beste lan batzuetan egin izan den bezala. Ondorioz, ez da neurtu aldagai bakoitzaren eragin erlatiboa.

Hirugarrenik, zati kualitatiboa esploratzailea da, zazpi parte hartzailekoa, eta KA adibideak jasotzeko ez da berariazko irizpiderik zehaztu, maileguKA banaketari buruzko eztabaida ekidin da eta ez dira ekoizpenak kuantifikatu.

Muga horiek etorkizuneko ikerketarako zenbait ildo iradokitzen dituzte.

Muga horiek gorabehera, lan honek bi ekarpen nagusi egiten ditu. Batetik, erakutsi du KAren erabilera aitortua euskaldun-profil guztietan dagoela hedatuta, eta aldagai soziolinguistikoekin dituen loturak ahulak direla. Bestetik, KA gutxi edo batere ez aitortzen dutenen lagunarteko jardunean ere KA agertzen dela erakutsi du, batez ere diskurtso-markatzaileen eta errotutako esamoldeen bidez, eta, aldi berean, hiztun horiek euskara hutsez aritzeko baliabide ugari dituztela.

Bibliografia

AIESTARAN IPARRAGIRRE, Maddi (2023). *Beasaingo gazte hizkera aztergai, testuinguruaren eragina kode alternantzian*. Gradu amaierako lana, Euskal Herriko Unibertsitatea. ADDI. http://hdl.handle.net/10810/67477

ALDALBAHY, Kholood Khalid (2022). «The relationship between code-switching and the level of language proficiency in the second language of Saudi female students», *Arab World English Journal* 13 (4): 309-324. https://dx.doi.org/10free.24093/awej/vol13no4.20

ALDEKOA DÍEZ, Ana (2020). *Hizkuntzen irakaskuntza bateraturantz: ahozko azalpenaren didaktika eleaniztuna Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan*. Doktore-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea. ADDI. https://addi.ehu.es/handle/10810/49181

ALONSO AMEZUA, Idurre, BEREZIARTUA ARRUABARRENA, Aritz, MENTXAKATORRE ODRIOZOLA, Jon eta LASA AGIRREZABAL, Xabier (2025). «Lagunarteko hizkera langai ikastolan: bi ikasturteko esku-hartzearen inplementazioa eta emaitzak», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 70 (2): 229-260. https://doi.org/10.59866/eia.v2025i10.307

ALTUNA RAMÍREZ, Jaime (2023). *Hizkuntzaren funanbulistak Hizkuntza-sozializazioa kirol eremuan adin eta generoan ardaztuta*. Doktore-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea. ADDI. https://addi.ehu.eus/handle/10810/62640

AMONARRIZ GORRIA, Kike. (2018). *Gazteen euskara erabilera: hizkuntza kalitatea*. Asmoz Fundazioa eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

